

SAINDUEN BEREZIA

1. Ospakizunaren maila : Bestaburua, Besta, Oroimena, egun bakoitz idatzia da. Deus ez delarik idatzirik, ospa daiteken Oroimena da.
2. Bestaburu eta Besta guziek meza berezi osoa badute, eta den bezala erran behar dira.
3. Oroimen mezetan :
  - a) Meza berezia dutelarik, erran den bezala.
  - b) Besteentzat, beti emana da zoin «Betiko meza» har daiteken. Hautua balin bada, nahi dena har daiteke.
  - c) Bertzalde, nahi bada, edozoin saildurentzat, 907-920 orrietan diren mezetarik bat hauturat har daiteke.
  - d) Bertzalde, saildu batek «Esk. gain. otoitz» eta «Azken otoitz» berezirik ez badu, «Betiko meza» bat har daiteke nahi den lekutik, edo ere igandekoa.
4. Sailduen meza bereziak har daitezke ere debozioneko meza gisa. Salbu Jesus Jaunaren biziko misterio bat aipatzen duten mezak, Maria Birjina dohatsuaren mezak, eta beste saildu zonbait : horientzat debozioneko meza bereziak badira. Saildu baten mezan, debozioneko meza gisa erraiten delarik, besta eguna aipatzen duten hitz batzu kendu behar dira.

## URTARRILEKO SAINDUAK

### Urtarrilaren

#### 1 MARIA SAINDUA, JAINKOAREN AMA

ikus 45 or.

### Urtarrilaren

Oroimena

#### 2 San BASILIO HANDIA eta GREGORIO NAZIANZETZEOA apezpiku eta Eliz erakasleak

*Basilio (330-379), monasterioan fraide ala Zezareko apezpiku gisa, ekintza eta izkiriotan, xumeen defendatzaile bizia agertu zen, baita Elizaren askatasunaren eta fede zuzenaren begiralea. Gregorio Naziantzekoa bere adiskidea zuen : biek ikasle eta fraide bizia partikatu ondoan, Basilio 18 hilabetez Konstantinoplako apezpiku izan zen (381an) ; ekintzetako ahal guti izanik, Naziantze sortirian erretiratu zen, kontenplazio bizia eramanez.*

**SARTZEA**  
*Ik Si 44, 15.14*

Hauen zuhurtziaz mintzatuko dira nazioeak  
hauen gorespena aldarrikatuko herri-batzarrak.  
eta gizaldiz gizaldi bizi da hauen izena.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, argi eman diozu zure Elizari  
Basilio eta Gregorio sainduen bizimolde ta erakaspenez :  
Egizu zure egia ikas dezagun umiltasunean  
eta zintzoki bete maitasunean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.**  
**OTOITZA**

Egizu, Jauna, Basilio eta Gregorio sainduen egunean  
zure herriak zu goresteko eskaintzen duen sakrifizioa  
guretzat salbagarri izan dadin.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA**  
*1 Ko 1, 23-24*

Guk, Kristo gurutzizatua predikatzen dugu,  
Mesias hori Jainkoaren indar eta zuhurtzia da.

**AZKEN OTOITZA** Jainko guziahalduna,  
 Basilio eta Gregorio sailduen eguna ospatzean,  
 zeruko mahaiaren parte hartu dugu ;  
 egizu, hauierik esker,  
 azkar eta handi daitezene gu baitan goi-indarrak,  
 fedearen dohaina osorik zaindu dezagun  
 eta erakutsi daukuzun salbamen-bidean ibil gaitezen.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Urtarrilaren

### 3 JESUSEN IZEN GUZIZ SAINDUA

*«Jesusen izenean bakarrik dugu salbamendua, Jainkoak ez baitiote jendeeri beste nehor eman eguzkiaren pean salba gaitzakeenik» (Eg 4, 12). Jesusen izena aipatzea eta ospatzea, Kristo eta Jaun dela aitortzea da, munduaren Salbatzaile bere heriotze eta piztean.*

**SARTZEA** Jesusen izenaren omenez, denen belaunak makur daitezela,  
*Flp 2, 10-11* zeruan, lurrian eta lurpean, eta mihi guziek aitortu dezatela  
 Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitarekin aintzarako.

**OTOITZA** Gizadiaren salbamena zure Hitzaren gizon egitean  
 oinarritu zenuen Jainkoa,  
 eman zure herriari eskatzen dauzun urrikia,  
 guziek jakin dezaten ez zaiola  
 zure Seme bakarraren izenari baizik dei egin behar.  
 Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Ausarkian emaiten dauzkiguzun dohainak  
**OTOITZA** zuri eskaintzean, Jauna,  
 otoitz egiten dauzugu :  
 heriotzeraino zure erraneko izan zen Kristori  
 gu salbatzen gaituen izena eman zenion bezala,  
 begira gaitzala haren indarrak.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Jauna, gure Jauna, zoin miragarria zure izena mundu guzian !  
*Sal 8,2*

**AZKEN OTOITZA** Jauna, Kristoren izenaren omenez  
zure handitasunari eskainirik,  
zure dohainak ixur dezala ausarki gure baitan zure grazia,  
gure izenak zeruan idatzirik daudela  
jakitearen poza izan dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

---

## Egun berean **Santa JENOFA**

*Nanterren sortua 420 inguruan, Jenofa birjina kotsakratua bakartasunean bizi zen, barur, otoitz eta ixiltasunean. 451an, Attilaren erasoarengatik ikaran zauden Paristarrak lasaitu zituen. Geroago, gosetearen mehatxuan ziren biztanleeri jatekoa eman zien. Bere heriotzean, 500 inguruan, ehortzia izan zen geroztik Santa Jenofa deitua den mendixkan.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) 904-905**

**OTOITZA** Ixur ezazu gutarat, Jauna,  
adimendu eta amodiozko izpiritua,  
Jenofa zure zerbitzaria betetzen zuen hura,  
zure zerbitzatzerat lehiatuz eta hari jarraikiz,  
zuri laket izan gaitezen gure fede eta bizi-moldeaz.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

---

## Urtarrilaren

### 7 **San ERRAMUN PEÑAFORTEKOA, apez**

*Erramun Penafortekoa katalan dominikanoa (1175-1275) teologia eta zuzenbide kanonikoaren irakasle nagusietarik bat izan zen, bainan apezak penitentzia zerbitzura prestatzean erakusten zuen karrantentzat ezagutua da ere. Bere Ordenuko Maisu orokor izan zen, eta azkarki bultzatu zuen.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)**

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
Erramun apez sainduaren bihotzean ezarri duzu  
bekatoreen eta giltzapetuen alderako amodio miresgarria :  
Emaguzu, haren bitartez,  
bekatuen lokarriak hautsirik,  
zure gogoko dena trabarik gabe egin dezagun.  
Zure Seme ...

**Urtarrilaren****13 San HILARIO, apezpiku eta Eliz erakaslea**

*Hilario, laikoa zen, Poitiers-eko apezpiku hautatua izan zelarik, 350 inguruan. Arianoen kontra, Jesu Kristoren jainkotasunaren defendatzaile suharra, 4 urtez Ekialderat desterratua izanen da Nizen finkatu fedeari leial izan delako. Poitiers hirira itzulirik, geroxago San Martin izanen denaren bidez, fraide biziaren sortzea sustengatuko du eta han berean zenduko da 367an.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahalduna, zure Semea Jainko dela,  
beldurrik gabe erakatsi zuen Hilario sainduak :  
Egizu guk ere egia hori ongi ezagut  
eta aitore dezagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

---

**Urtarrilaren****15 San REMI, apezpikua**

*Remi Reimseko apezpiku izan zen 70 urtez († 530 inguruan). Bere izena Klovizen bataioari lotua da, bai eta Frankoak Eliza Katolikoan sartzeari. Bainan ixtorio hori ez zen nolana hika gertatu. Remi alabainan aspaldidanik hasia zen errege hori fedearen biderat gidatu beharrez.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891)**

**OTOITZA**

**Nahi izan duzu, Jauna, San Remiren apostolu lanak  
eta zure zerbitzuko izan duen karrak  
handiaraz dezaten zure Eliza :  
egizu, hura ararteko, eta haren urratseri jarraikiz,  
sinestean azkar egon gaitezen.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

## Urtarrilaren

Oroimena

## 17 San ANTON, abadea

*Anton, Egiptoako fraideen aita, hogei urtetan finkatu zen basamortuan Ebanjelioa irakurtzean entzun baitzuen : « Guziz ona izan nahi baduzu, zoazi, sal zure ontasunak eta eman behartsueri, eta zure aberastasuna Jainkoaren baitan izanen duzu ; gero, zato, jarraik neri ». Mende batez kasik han biziko da († 356). Bizi den Jainkoari hurbiltasuna emaiten duen bizi garratz horretan, dizipulu anitzek segitu zuten.*

**SARTZEA***Sal 92 [91],13-14*

Gizon zuzena loratzen nola palmondoa,  
Nola zedroa goiti doa.  
Jainko Jaunaren etxean xutik betiere,  
Gure Jaunaren tenploan dago dena lore.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, Anton dohatsuari eman diozu  
basamortuan zu harrigarrizko bizitez zerbitzatzea :  
Haren bitartez, egizu, gure buruari uko eginik,  
beti oroz gainetik maita zaitzagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Onar, Jauna,  
guk zure zerbitzariak, Anton sainduaren besta huntan  
zure aldarerat ekarri ditugun eskaintzak :  
Egizu, lur huntako gauzen trabak bazterturik,  
zutaz bakarrik aberats izan gaitezen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***Ik. Mt 19, 21*

Nahi baduzu osoki saindu izan, zoazi, dituzunak sal,  
eta eman beharduneri eta jarraik zakizkit, dio Jaunak.

**AZKEN OTOITZA**

Jauna, zuk eman diozu Anton dohatsuari  
ilunbetako indarrak garaitzea :  
Egizu, zure sakramenduek hazirik,  
etsaiaren maltzurkeriak beti garait ditzagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Urtarrilaren****20 San FABIEN, aita saindu eta martirra**

*Fabien aita saindua hamalau urtez erromatar Elizaren buru izanen da (236 - 250 artean), bakezko urteak, misionest garapen eta antolakuntza denborako urteak. Deziaren pertsekuzioa abiatu zelarik, lehen biktimetarik izan zen.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (880-881)  
edo Artzainena (Aita saindu) (889)**

**OTOITZA**

**Zu zira, Jauna, zure apezen ospea :**

**Fabien zure martir dohatsua bitarteko dugula,  
egizu gero ta biziago izan dadin gure fedea,  
eta zure zerbitzatzeko gogoia.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean San SEBASTIEN**

*Sebastien, ohituraren arabera Milaneko soldado bat zen, armadaren kanporatzeaz hasi Dioklezienek pertsekuzio hastapenean Erroman hil zena (300an). VI. mendean geroztik, izurrite denboran otoiztua, gaur egun beti famatua da.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (880-881)**

**OTOITZA**

**Emaguzu, Jauna, indarrezko Izpiritua,  
Sebastien martir sainduaren etsenpluari jarraikiz,  
jakin dezagun zure nahia egiten, eta ez gizonena.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**



**Urtarrilaren**

Oroimena

**21 Santa AINES, birjina eta martirra**

*Aines Erromatar gazteak 12 eta 15 urte artean zituen, bere burua hiltzerat eskaini zuelarik fedearengatik Dioklezienek jazaraldi denboran (305an). San Anbroxiok aipatzen duen gertakari honek erakusten du Erromako Elizak Ainesen Oroimenarentzat duen amultsutasunaren arrazoina.*

**Meza : Martirrena (Birjina martir bat) (887)  
edo Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
ahulenak hautatzen dituzu  
munduko indarren lotsarazteko :  
Egizu, Aines martir dohatsuaren besta ospaturik,  
harek bezala azkar atxik dezagun fedea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urtarrilaren****22 Jondoni BIXINTXO, diakonoa eta martirra**

*Bixintxo, Zaragozako diakrea, (Espainiako) Balentzian hilarazi zuten Balerio bere apezpikuarekin 304 edo 305ean, oinazaturik. Erromako Laurendi bezala, Bixintxo Elizako zerbitzuaren etsenplu betea da : apezpikuaren ministro sakrifizioaren ofrendatzat eta gizaldearen gobernuarentzat, diakreak segitu behar du ere lekuko gisa azken oreneraino.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (880-881)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
ixur, otoi, gure bihotzetaratz zure Izpiritua :  
Bixintxo martir sainduari  
gorputzeko oinazeak jasanarazi ziozkan  
maitasun indartsuaz bete gaitzen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

## Urtarrilaren

Oroimena

24 **San FRANTSES SALESEKOA,**  
**apezpiku eta Eliz erakaslea**

*San Frantses Salesekoa (1567-1622) oroz gainerik artzaina izan zen. Misionest, eta «Annecy» hirian biziz Ginebrako apezpiku, Bisitazionearen sortzailea Jeanne-Françoise de Chantal-ekin, batean hitzez bestean izkirioz, Protestantekin teologia aipatuz, laikoen heinean bizi izpiritutsua emanaz, handi eta xumeak artoski segituko ditu.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891) edo Erakasleena (901-902)**

## OTOITZA

Arimen salbatzeko, Jauna, nahi izan duzu  
 Frantses apezpiku dohatsua  
 denetan denen zerbitzari izaitea :  
 Egizu, harek bezala, zure maitasun gozoa  
 beti ager dezagun gure haurrideen zerbitzuan.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

ESK. GAINEKO  
 OTOITZA

Orain eskaintzen dauzugun  
 opari salbagarri hunen bidez, Jauna,  
 pitz bedi gure bihotzetan Izpiritu Sainduaren sua :  
 Frantses sainduaren gogo ezitia garretan zaukan sua.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## AZKEN OTOITZA

Jainko guziahalduna,  
 hartu dugun sakramenduaren bidez egizu,  
 Frantses dohatsuaren maitasun gozoa  
 guk ere lur huntan izanik,  
 haren ospea ere ardiets dezagun zeruetan.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Urtarrilaren

Besta

## 25 JONDONI PAULO, APOSTOLUAREN KONBERTITZEA

*Damaseko bidean Tarseko Saulek bi aurkikuntza egiten ditu : Nazareteko Jesus Jainkoaren Benedikatua da, Bazkoz Piztua dena, eta bere anaiekin bat egiten du. Pauloren bizi guzia argitasun horretaz markatua izanen da.*

**SARTZEA** Nik sinestea badakit nori eman dutan  
*Ik. 2 Tm 1, 12 ; 4, 8* Eta fida naiz zuzentzaile Jaun zuzen hartan,  
 Badu ahala nik emanaren beiratzeko  
 Jaunaren azken eguneko.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
 mundu guzia argitu duzu Jondoni Pauloren hitzez :  
 Haren onerat itzultzea egun ospatzen dugunaz geroz,  
 egizu, hari jarraikiz zureganat goazelarik,  
 zure egiaren lekuko ta aitorle  
 izan gaitezen munduarentzat.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Misterio sainduak ospatzen ditugularik, Jauna,  
**OTOITZA** Izpirituak ixur dezala gutarat fedearen argia :  
 horrek baitzuen beti argitu Jondoni Paulo apostolua  
 zure aintza ezagutarazteko.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

**KOMINIONEA** Jainko Semearen sinestean bizi naiz, harek bainau maitatu  
*Ga 2, 20* eta harek baitu bere burua neretzat eman.

**AZKEN OTOITZA** Jainko gure Jauna, hartu dugun sakramendu hunek  
 azkar dezala gure baitan maitasunaren garra :  
 Su horrek beroturik, bere gain hartu zuen  
 Jondoni Paulo apostoluak Eliza guzien arrangura.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)

**Urtarrilaren**

Oroimena

**26 San TIMOTEO eta TITO, apezpikuak**

*Timoteo eta Tito Jondoni Pauloren bidelagun leialak izan ziren Lukekin betan. Lehena, ama judu batek hazirik, Paulok bataiatu zuen eta bere misionetan segitu zuen hunek Efesako Elizaren buru izendatu arte. Tito aldiz, Antiokian berekin hartu zuen bere misionea hasi bezain laster. Kretako ebanjelizazioa haren gain utzi zion.*

**SARTZEA** Zabal Jaunaren ospea atzerrietan,  
*Sal 95, 3-4* haren mirariak herri guzietan !

**OTOITZA** Jainko Jauna, Timoteo eta Tito sailduak  
apostoluen bertutez edertu dituzu :  
biak bitarteko ditugula, egizu,  
mundu huntan zuzen eta jainkotiar bizirik,  
zeruko herrirat hel gaitzen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAINEKO** Onar, Jauna, Timoteo eta Tito sailduen besta ospatzeko  
**OTOITZA** zure herriak ekarri dauzkizun oparigaiak ;  
egizu gure bihotz zintzoagatik  
zuzetzat atsegingarri izan gaitzen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Jaunak erran zien : « Zoazte mundu guzian gaindi,  
*Mk 16, 15 ; Mt 28,20* oihuka ezazue Berriona kreazone guziari :  
ni zuekin naiz egun oroz munduaren azkeneraino.»

**AZKEN OTOITZA** Jainko gure Jauna, arta handiz erakatsi eta zaindu zuten  
Timoteo eta Tito sailduak  
Apostoluek iragarri zioten fedea ;  
egizu hartu dugun sakramenduak  
indar gaitzan sineste hortan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Urtarrilaren****27 Santa ANGELA MERICI, birjina**

*Angela Mericik (1470-1540) (Lombardiako) Brescian Urtsulinen ordenua sortu zuen nesken hezkuntzarentzat eta misionentzat. Etxean mugatuak eta beti otoitzean izaiteko orde, bere laguneri zuhurtzizko eta karitatezko gizarte harremanak bilatzeko ordenua eman zien.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)  
edo Sainduena (Gazte moldatzaile) (919)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
zure urrikalmenduaren esku ezar gaitzala beti  
Angela birjina sainduaren otoitzak :  
haren maitasunezko eta zuhurtziazko urratseri jarraikiz,  
zure erakaspak begira ditzagun,  
eta gure bizi-moldean aitor.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urtarrilaren****Oroimena****28 San TOMAS AKINAKOA, apez eta Eliz erakaslea**

*Tomas Akinakoak (1225-1274) dominikanoen ideala osoki bete du : so egon eta so egoite horren fruitua besteri jakinarazi. Filosofo eta teologo, erakasle, Tomasek gogoeta anitz egin ditu, anitz erakatsi, anitz izkiriatu. Bainan, oroz gainera gogoetatsu, anitz otoitz egin du eta Argitasun garbirat heltzeko diziplina bortitz bati jarraiki da.*

**Meza : Meza Erakasleena (901-902) edo Artzainena (Artzain bat) (894)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Tomas dohatsua miresgarri egin duzu  
saindutasunerako karrak  
eta erakaspak sainduen amodioaz :  
emaguzu harek erakatsi zuena ikas dezagun,  
eta egin zuenari jarraikiak izan gaitezten.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urtarrilaren**

Oroimena

**31 San JOANES BOSCO, apeza**

*Turineko apez, Joanes Boscok (1815-1888) bere bizi guzia hiri hortako gazteria herrikoari eskaini dio, bainan bere begirada Piamonte eskualdea baino urrunago hedatzen zen. Hortakotz sortu zituen Salesianoen kongregazionea eta Maria Laguntzailearena, gazteriaren zerbitzuari kontsakratuak zirenak Europan gaindi Su-Lurra urruneraino.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)  
edo Sainduena (Gazte moldatzaile) (919)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Joanes Bosco apez saindua  
gazteen aita eta erakasle egin zenuen :  
Egizu, maitasun berarenugar berak sutan ezarririk,  
arimak bilatzerat  
eta zu bakarrik zerbitzatzerat lehia gaitezen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

## OTSAILEKO SAINDUAK

Otsailaren

Besta

2

### JAUNAREN ESKAINTZEA GANDERAILU

*Jaunaren aurkezpena Tenpluan, Kristo bere populuari presentatzea, Zimeon zaharraren bidez, Mariaren erritu garbiketa, Ganderailu eta argiaren besta : hauek dira Eguberri ondotik berrogeigarren egunean gizakieri Jainko Hitza gorputz eginaren Agerpenaren besta hunen gaiak.*

### XIRIOEN BENEDIKATZEA ETA PROZESIONEA

*Lehen moldea*

1. Jendea bildua da prozesinoa abiatuko den lekuan.
2. Apeza heldu da mezako jantzietan.
3. Argiak piztean, kantu hau eman, edo beste bat.

Gure Jainko Jaun boteretsua heldu zaigu :  
Zerbitzarien begiak ditu argituko. (Alleluia)

4. Apezak mezako agurra egin eta, dei hau edo beste bat berak moldatua erran dezake.

Haurride maiteak, berrogei egun du,  
Jaunaren sortzea bozkariotan ospatu dugula.  
Egun aldiz, Jesus tenplora eraman zuten eguna dugu :  
hortan iduri zuen Legea betetzeaz besterik etzuela egiten,  
bainan egiaz sinesdunen herriari biderat heldu zitzaion.  
Izpiritu Sainduak ekarririk,  
han zauden tenploan Ana eta Zimeon dohatsuak,  
eta Izpiritu berak argiturik,  
haur ttipi hartan Jauna ezagutu zuten,  
eta pozik aitormen egin zioten.  
Gu ere, Izpiritu Sainduak bildurik,  
goazen Jaunaren aldareraino, Kristoren bidera.  
Ogiaren zatitzean aurkituko dugu eta ezagutuko,  
bere aintzan agertuko zaigun eguna arte.

## 5. Argien benedikatzea.

Egin dezagun otoitz :

**J**ainko Jauna, argi guzien iturri eta egilea,  
 egun erakutsi diozu Zimeon zintzoari  
 jendalden argitzaile den Argia :  
 Umilki eskatzen dauzugu,  
 zure herriaren otoitzak entzunik,  
 xirio hauek saindu egin ditzazun zure ✠ benedizioez.  
 Hemen bilduak gaude zure izenaren goresteko  
 xirio hauek eskutan :  
 egizu, bide onetik ibili-eta, hel gaitezen  
 behinere itzaliko ez den argira.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

edo

**J**ainko Jauna, egiazko argia,  
 betiereko argiaren egilea eta zabaltzailea,  
 ixur ezazu fededunen bihotzetarat betiko argiaren  
 distira:  
 eliza huntan argi hauen distirak  
 edertzen gaituen guziak  
 zure aintzaren argiraino hel gaitezen.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Ur benedikatuarekin ihinzta.

## 6. Apezak bere xirio piztua hartu eta :

Abia gaitezen bakean Kristoren biderat.

## 7. Prozesioean kantu hau edo beste bat eman daiteke.

## Antifona 1

*Leloa* : Herri guzien Jainkoratzeko zer argia,  
 Izraelentzat zer loria.

*Zimeon-en kantika (Lk 2, 29-32)*

29 Orain zure hau, Jaun zerukoa, utz hiltzera,  
 zure hitzaren arabera.



- 30 Nere begiek baitute orain ikusia,  
salbamenduko goiz argia.
- 31 Hura baituzu erakutsiko agerian,  
jende guzien aitzinean.
- 32 Herri guzien Jainkoratzeko zer argia,  
Izraelentzat zer loria !  
Ospe Aitari gizon egin den Semeari,  
bai Izpiritu Sainduari.  
Lehen bezala heieri ospe orain ere,  
hala dadila betiere.

### Antifona 2

Apain ezazu zure etxea, Sion,  
eta egin ongietorri Kristo zure Erregeari ;  
besarka Maria, zeruko atea baita ;  
berak dakar argi berria den Errege loriosa.  
Birjina hor dago,  
egunsentia aitzin sortu duen Semea besoetan ;  
Simeonek eskuetan harturik, herrieri aldarrikatu zien,  
hura dela biziaren eta heriotzearen Jauna,  
munduaren Salbatzailea.

8. Elizan sartzean, sartzeko kantua eman daiteke, edo bestea segi.  
Aldareari musu eman eta, «Aintza» kantatzen da. Gero mezako otoitza.

### *Bigarren moldea*

9. Jendea elizan dago xirioak eskuan, edo elizako atean bildua.
10. Apeza heldu da, xirioak pizten dira, «Herri guzien» (ikus 7) kantatuz edo beste zerbait.
11. Apezaren deia eta otoitza : ikus 4 eta 5.  
Gero aldarerat prozesioa : 7 eta 8.

## MEZA

## SARTZEA

*Sal 48 [47], 10-11*

Otoizten dugu zure betiko bihotz ona  
 Zure tenploan, Jainko Jauna.  
 Zure izena bezala, Jauna, zuk omena :  
 Zoin munduz mundu dabilana  
 Menderen mende zuk eskuina,  
 Zuzentasunez duzu dena.

«Aintza zeruetan» erraiten da

## OTOITZA

Jainko guziahaldun betierekoa,  
 zure Seme bakarra egun tenplorat *ekarria*  
 eta eskainia izan da gurea bezalako gorputzean :  
 apalik eskatzen dauzugu,  
 gu ere, bihotza garbi, zure aitzinerat ager *gaitezen*.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege *bizi* baita,  
*gizaldi* eta *gizaldi* guzietan.

Besta hau igandez ospatzen delarik «Sinesten dut» erraiten da

## ESK. GAIN.

## OTOITZA

Atsegin dakizula, Jauna,  
 Elizak pozik egiten dauzun *eskaintza* :  
 zuk nahi izan *baituzu*,  
 zure Seme maitea, Bildots garbi eskainia izan dakizun  
 munduaren *bizirako*.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

## PREFAZIOA

*Jaunaren eskaintzearen misterioa*

Jauna zuekin. *Ṛ.* Eta zure izpirituarekin.  
 Gora bihotzak. *Ṛ.* Jaunari dauzkagu.  
 Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari. *Ṛ.* Egoki da eta zuzen.

**B**ai, egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
 non-nahi eta beti zuri eskerrak emaita,  
 Jauna, Aita guziz saildu,  
 Jainko guziahaldun betierekoari.  
 Egund tenploan eskainia izan da

zurekin batean betierekoa duzun Semea,  
Izraelen ospea eta herrien argia dela  
Izpiritu Sainduak erakutsia.

Horrengatik, bozkariotan  
zuk igorri Salbatzailearen biderat gozelarik,  
aingeru eta saindu guziekin goستن zaitugu,  
beti eta beti diogula :

*Saindu ...*

#### KOMINIONEA

*Lk 2, 30-31*

Nere begiek baitute orain ikusia / Salbamenduko goiz-argia.  
Hura baituzu erakutsiko agerian / Jende guzien aitzinean.

**Esker onezko otoitzetan, parte bereziak**

#### AZKEN OTOITZA

Zimeonen esperantza bete duzun Jauna,  
emaguzu kominione huni esker zure graziaren *betea* :  
harek etzuen herioa ikusi, Kristo besoetan hartu arte ;  
guk ere, Jaunaren biderat joanez,  
betiereko bizia ardiets dezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

#### BENEDIZIONE NAGUSIA

Jainkoak benedika zaitzatela  
eta bere aitzinean beti saindu eta garbi egin ;  
eman diezazuela nasaiki bere aintzaren aberastasuna,  
argi zaitzatela egiaren hitzaz,  
salbameneko Ebanjelioa erakatsi eta,  
haurride-maitasunez bete zaitzatela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
**℞.** Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak **✠** eta Izpiritu Sainduak.  
**℞.** Amen.

## Otsailaren

### 3 San BLADI, apezpiku eta martirra

*San Bladiren kultua, Armeniako Sebasteko apezpiku eta martirra (320 inguruan), Ekialdean garatu zen XI. mendetik goiti berak eginikako mirakuilueri esker, ohiturak dionaz. Eliza frango bere gerizapean emanak izan dira.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (880-881)  
edo Artzainena (Apezpiku bat) (891)**

#### OTOITZA

Entzun, Jauna, zure herriaren galdea,  
Bladi martir dohatsuaren otoitza lagun :  
Emaguzu lur huntan bizi baketsu bat,  
eta betierekoaren ardiesteko bidea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

### Egun berean San ANZGARIO, apezpikua

*Anzgario edo Ozkari (801-865 artean), Korbiako fraidea, Sakzorat igorria izan zen 826 urte inguruan. Dinamarkan, Schleswigan eta Suedian Ebanjelioaren sartzea antolatu zuen. Aita Sainduak Hanburgoko (821an) eta Bremeneko (847an) apezpiku egin zuten eta Eskandinaviako herrialdeak eman zizkioten.*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (898-900)  
edo (Apezpiku bat) (891)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna, Anzgario apezpiku saildua igorri duzu,  
herrialde askori Ebanjelioaren argia eremaiteko :  
Emaguzu, haren bitartez,  
beti zure egiaren argitan ibil gaitezen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Otsailaren****Oroimena****5 Santa AGATA, birjina eta martirra**

*Santa Agata Ziziliano gazte bat da Katanen hil zena Kristorentzat Deziaren jazarraldian (251an). Bere herritarrek beti hunentzat otoitz egin dute konfiantza osoan, partikulazki Etnaren errupzio denboretan, eta bere kultoa Ekialdean eta Mendebaldean hedatu da.*

**Meza : Martirrena (Birjina martir bat) (887)  
edo Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)**

**OTOITZA**

Zure barkamendua, Jauna, ardiets diezagula  
Agata birjina eta martir sainduak :  
beti zure gogoko izan baituzu  
bai bere birjintasunaren ederrez,  
bai martirioan erakutsi duen indarraz.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Otsailaren****Oroimena****6 San PAULO MIKI eta LAGUNAK,  
Japonian martirrak**

*1597ko 5an, Nagasakin (Japonian) hogeita sei giristino gurutzefikatuak izan ziren. Horietan baziren europear misionestak, jesuitak eta frantsiskanoak, baita ere japoniar eliz gizonak, Paul Mikiren gisa eta hamazazpi laiko : katexima egileak, itzultzaileak, medikuak eta haurrak ere. Denek irri egiten zuten eta batzu kantuz ari ziren.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

**OTOITZA**

Saindu guzien indarra zaitugun Jainkoa,  
Paulo Miki eta haren lagun martir dohatsuak  
egiazko bizirat deitu dituzu gurutzearen bidetik :  
Haien bitartez egizu,  
heriotzeraino begira dezagun gure fedea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Otsailaren**

Oroimena

**7 San AMANDO**

*Amando Akitanian sortua omen zen. Lehenik fraide izan zen monasterio batean, eta gero bidetan gaindi misionest abiatu zen, Galia iparraldetik Akitaniaraino. Apezpiku hautatua, hiru urte egon zen bakarrik Maestrichten. Zonbait monasterio ideki zituen, heietan bat Elnonekoa (St-Amand-les-Eaux), han hil zen 679an.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (896)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,**

**Amando dohatsuaren bidez pagano herriak  
ilunbetarik egiaren argirat ekarri dituzu :  
emaguzu, haren bitartez, azkar irautea  
bai fedean, bai harek predikatu zuen  
Ebanjelioaren esperantzan.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Otsailaren****8 San HIERONIMO EMILIANO**

*Hogeita bortz urtetan konbertitua, Hieronimo Emiliano (1486-1537) Beneziar sendagileak bere bizi osoa behartsuentzat, bereziki eri eta umezurtzentzat eraman du. Lagunak jarraiki zitzaizkion. Horrela sortu zen Somasquen, Bergameko ondoan, Xumeen Zerbitzatzaileen jendartea. Izurrite batean hil zen.*

**Meza : Sainduena (Gazte moldatzaile) (919)**

**OTOITZA**

**Jainko, urrikalmenduaren Aita,  
Hieronimo saindua eman zenien  
umexurtxeri aita eta begirale :**

**Haren bitartez egizu leialki begira dezagun  
zure seme izena eta izana emaiten daukun izpiritua.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean****Santa JOSEFINA BAKHITA, birjina**

*Bakhita (1868-1947 inguruan) dohatsuak, bere izenak dion bezala, bederatzi urte zituen bahitua izan zelarik. Bortzetan saldua, Soudanen esklabo bizia eraman zuen bere azken nagusiak, Italiarat eraman eta, askatu arte. Han, Jainkoa ezagutu zuen, bataiatua izan, eta Kanoziar Seroretan sartu zen. Esklabotasuna biziturik, Jainko bakar baten zerbitzuko ezartzen da, konfiantzaz, bihotz on eta barkamenduzko etsenplu bilakatuz.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)**

**OTOITZA**

Jainko Jauna, zuk eraman zenuen Josefina saindua  
 esklabotza zapaltzailetik  
 Kristoren emazte izaitaren duintasunerat ;  
 emaguzu, haren idurira,  
 Kristo gure Jaun gurutzitzatuari  
 maitasun sendoz jarraitzea,  
 eta urrikaltzu izanez, maitasunean irautea.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Otsailaren****Oroimena****10****Santa ESKOLAZTIKA, birjina**

*Eskolaztika San Benedikto, Mendebaldeko fraideen buruaren arreba zen. Bere anaiak monasterio famatua sortu zuen Kazino mendi pean bizi kontsakratu bat iragan du Eskolaztikak, eta bere anaia baino aitzintsean hil zen († 547an). Hortakotz Beneditano serorek Eskolaztika ohoratzen dute beren Ama izpiritual gisa.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)  
 edo Sainduena (Serora batentzat) (915)**

**OTOITZA**

Eskolaztika birjina dohatsua  
 ospatzen dugun egun huntan, egizu, Jauna,  
 harek bezala, maitasun garbiz maita zaitzagun,  
 guretzat duzun maitasunaren fruitu gozoak  
 ardiets ditzagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Otsailaren****11****LURDEKO MARIA BIRJINA DOHATSUA**

1858ko urtarrilaren 11tik Uztailaren 16a artea iragan ziren asteetan, Lourdesen den Mazabieleko harpeak jendeketa handiak ikusten ditu. Bernadetari agertu zitzaion Jainkoaren Ama Guziz Garbia otoiztuz, girstinoeri, Maria dela medio, Eliza berriaren irudia agertzen zaie, Jerusalem berriaren aitzin-itxura, herri guziera idekia dena.

**SARTZEA***Ap 21, 2*

Hiri saindua, Jerusalem berria,  
ikusi nuen jausten zerutik, Jainkoaganik,  
ezkonberria bere senarrarentzat bezala apaindua.

**OTOITZA**

Jainko urrikaltsua, emaguzu laguntza gure ahulezian :  
Jaungoikoaren Ama nota gabea ospatzen dugularik,  
haren otoitzari esker,  
bekatuaren heriotzetik pitz gaitzen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Birjina nota gabearen Oroimena ospatzean, Jauna,  
goresmen sakrifizoa eskaintzen dauzugu ;  
Izan dadila zuretzat atsegingarri,  
eta gure gorputz arimentzat sendagarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Maria Birjina dohatsuarena I (440) edo II (441)**

**KOMINIONEA***Ik. Sal 64, 10*

Zuk duzu lurra zaintzen, urez asetzen eta aberasten;  
Zuk duzu urtea ontasunez mukurutzen

**AZKEN OTOITZA**

Jainko gure Jauna, zeruko ogiaz ase gaituzu.  
Pozez ospatzen dugun eukaristia hau  
izan dadila guretzat batasunaren ezagutgarri  
eta amodioaren lokarri.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.



**Otsailaren****Besta****14 San ZIRILO, fraide, eta METODIO, apezpikua**

*Zirilo eta Metodio bi anaiak Morabiarat igorri zituen Konstantinoplako patriarkak Kristoren berri emateko. 868an, Erromarat joan ziren, eginak zituzten obren berri Aita Sainduari emaitera. Konstantino han hil zen Zirilo fraide izenpean (869an). Metodio aldiz, Sirmiumeko artzapezpiku ordenatua izan eta, Slaboen ebanjelizatzerat joan zen († 885an). Joani Paulo II aita sainduak Europako patroi saindu izendatu zituen.*

**SARTZEA**

Ospa ditzagun Jainkoaren adixkide hauek :  
Zirilo eta Metodio, anaiak ;  
Jaunaren Hitza eta Egia goraiatu dutelako.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Zirilo eta Metodio anaia dohatsuen bidez,  
argi egin diezu Ezlaboniako jendeeri :  
Emaiezu gure bihotzeri  
zure erakaspeneren hitza aditzea,  
eta egin gaitzazu herri bat  
egiazko fede beraren aitormenean bildua.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Begi onez begira, Jauna,  
Zirilo eta Metodio sainduen oroitzapenean  
zu Jaun handiari, eskaintzen dauzkizugun emaitzak,  
eta egizu izan daitezen maitasunean  
zurekin adiskidetu gizadi berriaren ezaugarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**KOMINIONEA***Ik. Mk 16, 20*

Alde guzietarat joan ziren berrionaren oihukatzerak.  
Jauna heiekin ari zen, egiten zituzten mirakuluzko seinaleen bidez  
mezua finkatzen zuela.

**AZKEN OTOITZA** Jainko Jauna, herri guzien Aita,  
 ogi eta Izpiritu bakar baten bidez,  
 betiereko besta apairuan  
 partaide izaiterat deitzen gaituzu ;  
 Zirilo eta Metodio sailduen besta huntan,  
 egizu, bihotz onez,  
 zure seme-alaben herri osoa fedean bat izan dadin  
 eta elgarrekin zuzentasunaren  
 eta bakearen erreinua eraiki dezaten.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Otsailaren

### 17 ZAZPI ZERBITAK

*1233 inguruan, Florentziako zazpi merkatari Monte Senariora erretiratu ziren bakartasunean anaitasunezko bizi bat eramaiteko xumetasunean eta penitentzian Jesusen Pasionearen kontenplazionean, Mariaren gerizapean. Servites edo "Mariaren zerbitzariak" deituak dira.*

**Meza : Sainduena (Fraidentzat) (913)**

**OTOITZA** Emaguzu, otoi, Jauna,  
 zazpi anaia sailduen kartsutasuna :  
 gar horri esker baitzuten  
 Jainkoaren Ama bihotz bihotzez maitatu,  
 eta zure herria zureganat ekarri.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Otsailaren****18 Santa BERNADETA SOUBIROUS, birjina**

*Bernadeta Soubirous (1844-1879), Lurdeko ikusmendun xumea zen, bainan ere, bere hamahiru azken urteetan, Neverseko serora ixil eta xume, «deusetako on ez zena», gogoan zaukala beti Mariak errana zion hau : « zoriona ez dauzut mundu huntan hitzemaiten, bainan bestean ».*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)**

**OTOITZA**

**Jauna, umilen adiskidea eta goratzailea,  
Santa Bernadetari eman dizkiozu  
harrigarriko pazientzia eta karitatea :  
egizu, haren otoitzeri esker eta haren urratseri jarraikiz,  
lanoki aitzina gaitezen fedean,  
egun batez zure ikusteko zeruan.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Otsailaren****21 San PIARRES DAMIEN, apezpiku eta Eliz erakaslea**

*Piarres Damien, Ravenne-n sortua (1007an), Font-Avellane-n ermitau bizia iraganen du, Aita Sainduen laguntzaile bilakatu aitzin Elizaren erreformatzeko. Ostie-n kardinal-apezpiku hautatu zuten (1057an), eta Italiako, Frantziako eta Alemaniako legazio anitzen buru izan zen. Borroka bizi bat eraman zuen elizgizonek beren duintasuna berreskura zezaten eta Elizak bere askatasuna († 1072an).*

**Meza : Erakasleena (901-902) edo Artzainena (Apezpiku bat) (896)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahalduna, emaguzu  
Piarres apezpiku dohatsuak erran eta egineri  
jarraik gaitezen :  
Kristo denetan maiteena dugula,  
eta beti zure Elizaren zerbitzari girela,  
betiereko argiaren zorionerat hel gaitezen.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Otsailaren**

Besta

**22 JONDONI PETRIREN ALKIA, apostolua**

*Apezpiku baten prediku alkia, bere katedralean dagoena, bere erakasle larderiaren seinalea da, apez nagusi eta artzainarena. Jondoni Petriren prediku alkiak, Kristok bere apostoluaren gomendio utzi misionea oroitarazten dauku. Petri bere anaien fedearen arduradun segurra da ; Petriren fedea Jainkoak bere Elizaren eraikitzeko hautatu harroka da.*

**SARTZEA***Lk 22, 32*

Jaunak erran zion Zimun Petriri :

«Nik otoitz eginen dut zuretzat, zure fedea ez dezan huts egin.  
Zuk aldiz, noizbait itzuli-eta, finka zatzu zure anaiak.»

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

**Jainko guziahalduna, emaguzu,  
Apostoluen sinestearen oinarri gainean  
sendo jarri gaituzunak, ez gaitzan deusek ikara.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Begi onez ikus, Jauna,  
zure Elizaren otoitza eta eskaintza :  
Petri sainduak erakutsi sinestearen betea daukalarik,  
hura artzain, betiko zoriona ardiets dezan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Apostoluen prefazioa I (444)****KOMINIOEA***Ik. Mt 16, 16.18*

Petrik erran zion Jesusi :

«Zu, Kristo zira, Jainko biziaren Semea.»

Jesusek ihardetsi zion : «Zu zira Petri,

eta harri horren gainean jarriko dut ene Eliza.»

**AZKEN OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Petri apostolu sainduaren besta ospatzean,  
Kristoren gorputz odolak  
janari eta edari eman dauzkiguzu :  
Egizu orain hartu dugun sakramendu salbagarri hunek  
batasuna eta bakea eman diezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)**

**Otsailaren****Oroimena****23****San POLIKARPO, apezpiku eta martirra**

*Jondoni Joaniren dizipulu gisa, Polikarpo apezpikua apostoluen denborako azken lekukoa da. Laurogeita sei urtetan, 155ko otsailaren 23an, sura kondenaturik hil zen, Smirneko antzoki erdian (Asia Ttikian), populu guziaren aitzinean. Jainkoa eskertu zuen « martirren heinekora izaitea merezitu baitzuen eta Kristoren kalizan parte hartu baitzuen ».*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (880-881)  
edo Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Diren guzien Jainkoa,  
Polikarpo apezpiku saildua  
zure martirren artean ezarri duzu :  
Emaguzu, haren bitartez,  
Kristoren kalizan, harek bezala, parte harturik,  
Izpiritu Sainduz,  
betiereko bizirat pitz gaitezen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

## MARTXOKO SAINDUAK

### Martxoaren

#### 1 San LEON, apezpiku eta martirra

*Normandian sortua, San Leon Erroman apezpiku ordenatua izan zen, eta Reimseko artzapezpiku izendatua. Bainan laster Aita sainduak igorri zuen euskaldunen konbertitzerat, Lapurdum (Baionan)en apezpiku ; hor hil zen Vikingek burua mozturik IX garren mende bukaeran. Baionako patroin bakarra da.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)  
edo Martirrena (Martir bat) (880-881)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna, Leon apezpiku martirra predikari zela,  
gure arbasoak fedegabearen ilunbetarik  
Ebanjelioaren argi miresgarrirat deitu zinituen.  
Egizu, haren otoitzen bitartez,  
Jesu Kristo gure Jaunaren grazian eta ezagutzan  
beti aitzinerat egin dezagun.  
Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

### Martxoaren

#### 4 San KASIMIR

*Kasimir (1458-1484), Lituaniako dukearen eta Poloniako erregearen semea, 26 urtetan zendu zen. Adimendu handiko eta bihotz oneko gizona, baita ere oroz gainetik penitentzia eta otoitzari osoki emana zen printze gaztea. Eukaristian den Kristori eta Maria Birjinaren otoitzari jarraikia zen.*

**Meza : Sainduena (Saindu bat) (911-912)**

#### OTOITZA

Jainko guziahalduna, zu zerbitzatzea errege izaitea da :  
emaguzu, Kasimir dohatsua bitarteko dugula,  
beti zure zerbitzari saindu eta leial izan gaitzen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Martxoaren****Oroimena****7 Santa PERPETUA eta FELIXI, martirrak**

*Perpetua bere bataiorateko bidean arrastatua izan zen 22 urtetan, haur ttipi baten ama zelarik. Felixi esperantzetan zen eta presondegian zelarik alaba mundurat eman zuen. Bainan ez bata ez bestea ez zen flakatu 303ko martxoaren 07an Kartagoko anfiteatroan sartu zirelarik. Eskuz esku aitzinatu ziren martiriorat.*

**SARTZEA** Bozkaria zeruan Kristori jarraiki diren sainduen arimak ;  
haren amodioz ixuri dute beren odola :  
harekin poztu daitezela sekulako.

**OTOITZA** Jainko Jauna, zure maitasunak sustaturik,  
Perpetua eta Felixi martir dohatsuek  
etsaien beldurrik gabe herioa garaitu zuten :  
egizu, haien otoitzen bitartez,  
gero ta gehiago maita zaitzagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Jauna, Perpetua eta Felixi sainduen  
**OTOITZA** zeruko garaipena gogoratzean,  
zure egintza miragarriak gorai patzen ditugu ;  
holako laguntzaile ospetsuak izaiteak  
bozkaria gaitzala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

**KOMINIONEA** Bizi gireno, beti heriotzerat garamatzate Jesusengatik,  
*2 Ko 4, 11* gure izaite hilkor huntan Jesusen bizia ere ager dadin.

**AZKEN OTOITZA** Zerutiar atseginak hartu ditugu, Jauna,  
sakramendu hau ospatuz  
eta Perpetua eta Felixi sainduak goretsiz ;  
apalik eskatzen dauzugu,  
zuri esker eta zu leial zerbitzatzeko ospatu dugun  
sakramendu hunen ondorioak har ditzagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Martxoaren****8 San JOANES Jainkoarena, fraidea**

*Joanes Jainkoarena (1495-1550), sortzez portugesa, Espainian den Granadan finkatu zen gaztetasun arriskutsu bat iragan ondoan. Ospitale eskasarengatik griñatua, eriak bere etxean biltzen eta artatzen hasi zen, beren eguneroko hazkurriaren eske ibiliz. Horrela sortu zen gaur egun beti bere urratseri jarraikia den Joanes Jainkoarena fraide ordena.*

**Meza : Sainduena (Fraide batentzat) (914)  
edo (Karitatezko obretan) (918)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Joanes sainduari bihotz urrikaltsua eman diozu :  
egizu, maitasun egintzak beterik,  
hautetsien artean gerta gaitezen, zure Erreinuan.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Martxoaren****9 Santa FRANTSISKA ERROMANA, serora**

*Erromatarra sortzez, Frantsiska Ponziani (1384-1440) lehenik espos lagun arraroa eta bere haurren hazteko ama paregabea izan zen. Bere bizian, otoitzak eta behartsuen zerbitzuak toki handia zaukaten. Senarra zendu zitzaionlarik, Beneditano bilakatu zen, nahi zuten emazteak bere inguruan biltzen zituela*

**Meza : Sainduen (Emazte saindu) (920-921) edo (Serora batentzat) (915)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Frantsiska dohatsuaren baitan eman daukuzu  
ezkonduen eta komentukoen bizitzearen etsenplu ederra :  
egizu, beti zure zerbitzari leial izan gaitezen,  
jakin dezagun gure biziko gora behera guzietan  
zu ikusten eta zuri jarraikitzen.  
Zure Seme ...**

**Martxoaren****15 Santa LUISA Marillac-ekoa**

**ikus Maiatzaren 9an : 708 orrialdian**



**Martxoaren****17 San PATRIZIO, apezpikua**

*Patrizio 385. urte inguruan sortu zen Britainia Handian. Bere bizia Irlandaren ebanjelizatzeari eman zuen. Fede, zuhurtzia eta zentzu handiko gizona baitzen, bere misionea Keltoen gizarte eta politika baldintzeri egokitu zuen: apezpiku ordenatu eta, Eliza sendoki ugarte guzian jarri zuen († 461 urte inguruan).*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (898-900)  
edo (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Patrizio apezpiku saindua hautatu duzu,  
Irlandako jendeari zure aintza ezagutarazteko :  
haren otoitz eta merezimenduen bitartez, egizu,  
kristau izaiteko zoriona dutenek ager ditzoten  
zure maitasunaren miragarriak gizon-emazte guzieri.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Martxoaren****18 San ZIRIL Jerusalemekoa, apezpiku eta Eliz erakaslea**

*San Ziril Jerusalemekoa apezpikuak († 386 edo 387) nahigabe frango jasan zituen Kristo Jainkoaren baitako fedea defenditzeko. Hiruetan desterratua izan zen. Bataio ikasbideak utzi ditu, eta hauek erakusten dute 4. mendeko bigarren partean, helduak nola prestatzen ziren bataioari.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Ziril apezpiku sainduaren bidez  
zure Elizari barnago ezagutarazi dizkiozu  
salbamenduko misterioak : haren bitartez  
emaguzu guk ere zure Semea ezagut dezagun  
haren bizia nasaikiago ardiesteko gisan.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Martxoaren**

Bestaburua

**19****San JOSEP, Maria Birjinaren senarra**

*Maria Birjinaren senar San Josep izan da « Jesusen begirale aita baten gisa ». Bainan Jainkoak nahi izan du Nazareteko Familia sainduaren buruak Kristoren gorputza den Elizan lan bera eraman zezan. Maria Elizaren Ama bada, Josep hunen Gerizatzailea da.*

**SARTZEA***Ik. Lk 12, 42*

Hau etxe-gizon jarraikia, bai eta dena zuhurtzia :  
Hau baitu Jaunak sehien buru ezarria.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

Jainko guziahalduna,  
mende berrien hastapenean,  
salbamenduko misterioen zaintzale leial  
egin duzu Josep *saindua*.  
Haren bitartez, egizu orai  
Eliza misterio horien betetzerat beti lehia dadin.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Jauna, Josep *saindua*  
Maria Birjinaganik sortu zure Seme bakarraren  
zerbitzari leial izan zen *bezala*,  
egizu bihotza garbi ager *gaitezen*  
zure aldarearen zerbitzurako.  
Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

**PREFAZIOA***San Josepen egitekoa*

Jauna zuekin.

**Ṛ.** Eta zure izpirituarekin.

Gora bihotzak.

**Ṛ.** Jaunari dauzkagu.

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

**Ṛ.** Egoki da eta zuzen.

**B**ai egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saildu,  
Jainko guziahaldun betierekoari.

Eta zu benedikatzea eta govestea,  
Josepe dohatsua ospatzen dugun egun huntan.

Hura bai gizon zuzena,  
Jainkoaren Ama Birjinari senartzat zuk emana.

Hura bai zerbitzari leial eta zentzuduna,  
Familia sailduaren buru ezarria,  
aita bezala zaintzeko zure Seme bakarra,  
Izpiritu Sailduaren egitez sortua,  
Jesu Kristo gure Jauna.

Haren bitartez dute  
aingeruek zure handitasuna gorai patzen,  
zerutiar izpiritu eta botereek zure ospea adoratzen,  
goiko indar eta serafin dohatsuek  
zuri ahuspez agur egiten,  
eta alegrantzia berak ditu zerutiar guziak inarrostean.

Onar, Jauna, haien goresmenekin  
guk ere bat egin ditzagun gure kantuek :  
*Saildu ...*

**KOMINIONEA***Mt 25, 21*

Ederki sehi on eta leiala :  
sar zaite zure nagusiaren bozkarioan.

**AZKEN OTOITZA**

Aldareko janari sailduaz  
hazi duzu, Jauna, zure familia,  
Josepe dohatsua pozik ospatzen duen egun huntan :  
zain ezazu beti zure gerizan  
eta begira haren baitan zuk eman *dohainak*.  
Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)**

**Martxoaren****23****San TORIBIO MONGROVEJOKOA, apezpikua**

*Nehork ez du Toribio Mongrovejokoak (1538-1606) baino gehiago obratu Amerika latinan Eliza jartzeko. Limarat artzapezpiku heldu orduko, pausurik gabe ibiltzen hasi zen seminarioak sortuz, ospitaleak eta elizak eraikiz, biltzarrak eginez. Beti oinez zabilan etsitu gabe, barurik eta otoitzean.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zure Eliza hedatu duzu  
Toribio apezpiku dohatsuaren apostolu-lanez,  
eta egiaren alderako maitasunaz :  
egizu zuri eskainia dagon herria  
gero-ta sinesdunago eta sainduago izan dadin.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Martxoaren****Bestaburua****25****JAUNAREN ANONZIAZIONEA**

*Eguberri baino bederatzi hilabete lehenago, Jainko Semearen inkarnazioa ospatzen dugu, San Lukek egoera kondatzen dauku Maria Birjinari Aingeruak berri ona ekartzen dion kontakizunean. Gaurko Liturgia salmo egilearen hitzak argitzen du Kristok munduan sartzean Hebrearreri diotela : « Huna, ene Jainkoa ; zure nahia betetzerat heldu naiz. »*

**Besta hau Aste Sainduan gertatzen denean, Bazkoaldiko II. astelehenera aldatzen da.**

**SARTZEA***Heb 10, 5.7*

Jaunak munduan sartzerakoan, hauxe dio :  
Huna, heldu naiz, Jainkoa, zure nahiaren egiteko.

**«Aintza zeruetan» erraiten da**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, nahi izan duzu  
zure Hitzak Maria Birjinaren sabelean gorputz hartzea :  
Hura, gure Salbatzaile, Jainko eta gizon,  
ezagutzen dugunaz geroz,  
egizu, haren jainkotasunean parte izan dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

«Sinesten dut» erraiten da. «Eta Izpiritu Sainduaren egitez... gizon egin zen» hitzak erraiten, belaunikatzen dira denak.

ESK. GAIN.  
OTOITZA

Jainko guziahalduna,  
onar, otoi, zure Elizaren eskaintza :  
baitaki zure Hitza gizon egin den egunean  
izan duela bere hastapena,  
emaiozu, besta huntan,  
Kristoren misterioak pozik ospatzea  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

PREFAZIOA

*Gizakundearen misterioa*

Jauna zuekin.

℞. Eta zure izpirituarekin.

Gora bihotzak.

℞. Jaunari dauzkagu.

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℞. Egoki da eta zuzen.

**B**ai, egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saildu,  
Jainko guziahaldun betierekoari,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gizakiengatik eta gizakien artean,  
Izpiritu Sainduaren egitez sortu beharra zen Hura,  
Maria Birjinak, zeruko mezulariari entzunik,  
fedez onartu zuen,  
eta bere sabel garbian maitasunez ekarri.

Hola egiazki beteko ziren Izraeli eman agintzak,  
eta gaindika beteko ere herrialdeen esperantza.

Haren bitartez,  
zure aintza adoratzeko du aingeruen taldeak,  
beti pozez elgarretaraturik zure aitzinean.

Onar, Jauna, haien goresmenekin  
guk ere bat egin dezagun gure kantua : *Saindu ...*

Esker Onezko Otoitza : parte berezia

**KOMINIONEA** Huna : Birjina amaturen da, eta seme bat sortuko du,  
*Is 7, 14* «Emanuel», «Jauna gurekin» deituko dutena.

**AZKEN OTOITZA** Finka, Jauna, gure bihotzetan  
 egiazko fedearen misterioak :  
 Birjinaren Semea egiazki Jainko eta gizon dela  
 aitortzen dugunaz geroz,  
 haren piztearen indarrak salba gaitzala  
 eta betiereko zorionerat eraman.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (648, 17)**

## Martxoaren

Oroimena

### 27 LOUIS EDOUARD CESTAC dohatsua, apeza

*1801 ean Baionan sortua, Louis Edouard Cestac apez ordenatua izan zen 1825eko Abendoaren 17an. Birjina Mariak sustaturik eta lagundurik, prostituzioan galduak ziren neskato gazteak laguntzen, eskolatzen, eta ebanjelizatzeari lotu zen. Gazten formakuntza eta erakaskuntzako, Mariaren Zerbitzarien Kongregazionea eraiki zuen (Angeluko serorak), eta otoitz elkarte bat ere, Bernardinak. Angelun hil zen 1868ko Martxoaren 27an.*

**Meza: Artzainena (Artzain bat) (894)**

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
 Luis-Edouard Cestac dohatsuari eman diozu  
 zure Semearen iduriko izaitea,  
 Birjina Mariaren laguntzarekin,  
 behartsuerei Berri Ona iragartzen zienean :  
 Emaguzu fedearentzat bere kartsutasuna  
 eta gure haurrideentzat amodio bera,  
 hark maitatua maitatzeko,  
 eta hark erakatsia bizitzeko.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

## APIRILEKO SAINDUAK

### Apirilaren

#### 2 San FRANTSES PAOLAKOA, ermitaua

*Kalabreko Paolan sortua (1416an), Frantsesek ermitau biziaren deia gazterik entzun zuen, eta bakartasunean erretiratu zen. Bainan jendaldeak hurbildu zitzaizkion eta bere inguruan gero eta ermita gehiago izan zen. Xumeen ordenua hortik landa sortu zen (1493an). Frantses Frantzian zendu zen Plessis-lez-Tours-en, Louis XI. Erregearen konfiantzak deiturik (1507an).*

**Meza : Sainduena (Fraide batentzat) (914)**

**Bihotz apalen goratzaile ziren Jainkoa,  
Paolako Frantses dohatsuari sainduen ospea eman diozu:  
egizu, haren merezimenduen bidez eta harek bezala  
apaleri agindu saria ardiets dezagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

### Apirilaren

#### 4 San ISIDRO, apezpiku eta Eliz erakaslea

*Sevillako San Isidro (560-636) Espainiako erakasle handia da. Leandro bere anaiaren segida harturik Sevillako apezpiku gisa (601an), bisigot erresuman Eliza antolatzen arizan zen, batez ere Kontzilioak eramanez. Erakastea oroz gainetik gustukoa zuen. Bilduak zituen jakintza guziak eskola liburu gisan baliatuak izan dira belaunaldi anitzez.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892) edo Erakasleena (901-902)**

**Entzun, Jauna, gure otoitzak,  
Isidro sainduaren besta egunean :  
zure Elizak zaintzaile izan dezala,  
zeruko gauzen erakasle duen bezala.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Apirilaren****5 San BIXENTE FERRIER, apeza**

*San Domingoren egiazko seme gisa, Bixente Ferrier oroz gainera predikatzailer famatua izan zen. Espainiako Balentzian sortu (1350an) eta Vannes herrian (1419an) hil artean, Frantzia, Italia, Suitzan gaindi geldi geldia ibili zen jendeketa handiak konbertitu nahiz, bere garaiko zorigaitz, gerla eta hausturak seinalatzen zuketan Kristoren itzultzearen esperantzan.*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (899-900)**

**Jainko Jauna,  
Bixente dohatsua hautatu duzu Ebanjelioaren zerbitzari :  
Emaguzu zeruetan errege ikus dezagun  
lur huntan, juje etortzekoa dela erakutsi daukun  
Jesu Kristo gure Jauna.  
Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Apirilaren****Oroimena****7 San JOANES BATISTA SALAKOA, apeza**

*San Joanes Batista Salakoa (1651-1719) aitzindaria izan zen erakaskuntza herrikoi bat miserian ziren haurrei eskainiz. Reims, Paris, Rouen hirietan sortuak izan dira apez hunek pentsatu lehen fondazioneak, Eskola girstinoetako fraideak deituak, bere inguruan zituela erakasle batzu (1684an). Zahar denboran, bere anaiek nahigabeak jasanarazi zizkioten.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)  
edo Sainduena (Gazte moldatzaile) (919)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Joanes Batista saindua hautatu duzu  
gazteria kristau-legean hazteko :  
zure Elizan sorraraz itzazu erakasle zintzoak  
gazteak gizon eta girstino moldatzen  
bihotz bihotzez ariko direnak.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**



**Apirilaren****11 San ESTANISLAS, apezpiku eta martirra**

*Estanislas (1030-1079) Krakoviako apezpiku bilakatu zen (Polonian) Tomas Becketen martirioaren ondotik (1071an). Handik istantean Gregorio VIIa Petriren prediku alkira heldu zen. Estanislasek ere, Elizaren askatasunaren aldeko borroka eraman behar izan zuen, printze autokrata eta galdu bat eskumikatu. Hunek hilarazi zuen.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (880-881)  
edo Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zu goresteko,  
Estanislas apezpiku saindua gaixtoen ezpataz hil zen :  
Egizu, guk ere, fedean sendo heriotzeraino iraun  
dezagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Apirilaren****13 San MARTIN Ia, aita saindu eta martirra**

*Martin 1.a azken aita saindu martirra da (649-654). Inperadoreak galdeginik arrastatua izan zen Kristo egiazko Jainko eta egiazko gizon Jainkoaren bi borondateen baitako fedea defenditu baitzuen. Konstantinoplarat igorria izan zen (653an ), presondegiratua, hiltzera kondenatua, denen bistan bere kargutik kendua, eta azkenik Chersonera (Sébastopol) desterratua, han hil zen miseria osoan (656an).*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (880-881, 884)  
edo Artzainena (Aita saindu) (889)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahalduna, zuk ez duzu utzi  
Martin aita saindu eta martir dohatsua  
ez mehatxuek ikaratzerat, ez oinazeek garaitzerat :  
emaguzu arimako indar ezin hautsia,  
mundu huntako neke guziak jasan ditzagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Apirilaren****16 Santa ENGRAZI**

*Santa Engrazik martirioa jasan zuen Diokletien inperadorearen denboran. Prudentziok, V. mendean, laudatzen du bertsu eder batzuekin. Xuberon, haren izenari kontsokratua da izen hortako eliza erromaniko famatu bat, Konpostelako bidean. Bere erlikia bat ikus daiteke Mitikilako elizan. Euskal Herrian, asko dira izen hori duten emazteak.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)**

**OTOITZA**

Zure ahala miresgarria da, Jauna,  
emazte xume batzueri eman diezu  
martirioaren bidez nagusitzea ;  
Zure bihotz onean, emaguzu  
Santa Engraziren ospean sartzea ospatzen dugunak  
haren etsenpluari jarraikiz zureganat aitzina gaitezen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Apirilaren****21 San ANSELMO, apezpiku eta Eliz erakaslea**

*Anselmo (1033-1109) Aoste ibarrean sortu zen, Normandiako Bec Helouin abadian fraide izan zen, eta Cantorberiko artzapezpiku, hoguei urte Tomas Becketen martirioaren ondotik. Bere bizi osoan Jainkoaren, Izaki perfektuaren, zuhurtziaren eta fedearen argitasunaren bila kartsuki ibili da. Bainan, kontenplazioko gizon horrek jakin zuen ere Elizaren askatasunaren alde borrokatzen.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
zuk eman diozu Anselmo apezpiku dohatsuari  
zure zuhurtziaren misterioak bilatzea eta erakustea :  
Egizu fedea lagun dezan gure adimendua  
gure bihotzak aurki dezan  
sinesteko manatu daukuzun egia.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## Apirilaren

### 23 San JURGI, martirra

*San Jurgiren baitako kultua Lyddan (Lod), Tel-Avivetik hurbil, IV. mendean agertzen da. Kondairak herensugearen suntsitzaile egin du San Mixelen lehiakide. Horrengatik da hain herrikoia bilakatu partikulazki Grezian, Errusian eta Ingalaterran.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)**

#### OTOITZA

Zure ahal handia goretsiz, Jauna,  
 ahuspez eskatzen dauzugu :  
 Jurgi sailduak lagun gaitzala gure ahulezian,  
 Jesusi bere Pasionean jarraikitzeke izan zuen indarraraz.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

### Egun berean San ADALBERT Pragekoa, apezpiku eta martirra

*956an Bohemian sortua, Adalbert, Magdebourgen ikasketak egin ondoan, Pragako apezpiku ordenatua izan eta, Eliza erreformatzera entseiatzen da. Beneditano monasterio batean erretiratzen da bainan Pragarat itzultzen delarik arrunt gaizki hartzen dute bere jarraitzaileek. Orduan Poloniako iparraldera ebanjelioaren zabaltzera joanen da eta martirioa ezagutuko du 997an.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)  
 edo Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna,  
 martirioaren korona eman diozu Adalbert apezpikuari,  
 arimen grinaz bihotza sutan zaukalakotz ;  
 Egizu haren otoitzari esker,  
 artaldea jarraik dadin bere artzaineri,  
 eta artzainak beren artaldeari.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Apirilaren****24 San FIDEL Sigmaringoa, apez eta martirra**

*Marc Roy (1578-1622) Colmaren abokatu izan zen Fribourg-en-Brisgau-ko Kaputxino bilakatu arte, Aita Fidel Sigmaringengo izenpean. Bihotz-zabaltasun handiko fraide, predikatzaile herrikoi, Fedearen Hedatzearen Kongregazioneak Suitzan den Grisons-eko Protestantenganat igorri zuen, bainan handik fite xehatu zuten.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)  
edo Artzainena (Artzain bat) (894-895)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
martirren korona eman diozu Fidel dohatsuari,  
zure maitasunez sutan egiazko fedea zabaltzen ari zela :  
Emaguzu, haren bitartez, maitasunean finkaturik,  
harekin batean ezagut dezagun  
Kristoren piztearen indarra.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Apirilaren****Besta****25 San MARK, ebanjelista**

*Marken familia Jerusalemeko giristinoen gizaldekoka zen. Lehenik Paulo segitu zuen bere misionean eta gero Petriri hurbildu zitzaion, hunek « seme » deitzen zuela. Ohituraren arabera, Markek bere Ebanjelioan Petrik Erromako giristinoeri eginikako predikuak bildu ditu eta gero Alexandriako Eliza sortu.*

**SARTZEA***Mk 16,15*

Zoazte mundu guzian barna, eta Ebanjelioa  
predika iezaiezu kreatura guzieri.

**«Aintza zeruetan» erraiten da**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Berri Onaren predikatzeko grazia  
eman diozu Mark ebanjelista dohatsuari :  
Egizu haren erakaspina balia dakigun,  
Kristoren urratseri zintzoki jarraikitzeke.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.** Mark sailduaren ohoretan eskaintzen dauzugu, Jauna,  
**OTOITZA** goresmen oparia, eta apalik eskatzen :  
 zure Elizak beti zabal dezan zure Berri Ona.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Apostoluen prefazioa II (445)**

**KOMINIONEA** Huna zuekin naizela egun oroz,  
*Mt 28, 20* mendeek dirauteno, dio Jaunak.

**AZKEN OTOITZA** Jainko guziahalduna, zure aldaretik hartu dugun  
 sakramenduak saildu egin gaitzala,  
 eta Mark dohatsuak zabaldu zuen  
 Ebanjelioaren fedean indartsu.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)**

## Apirilaren

### 28 San PIARRES XANEL, apez eta martirra

*Piarres Xanel (1803-1841), Belley diozesako fraide marista, Ozeaniarat igorria izan zen Ebanjelioa zabaltzeko. Zailtasun frango jasan zituen paganoenganik baita ere misionest metodistenganik. Futuna erregearen semea konbertiarazi zuen bainan subiranoak eroturik hilarazi zuen.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)**  
**edo Artzainena (Misionestentzat) (899-900)**

Jainko Jauna, zure Eliza urrunerat hedatzeko,  
 martirren korona eman diozu Piarres Xanel sailduari :  
 Bazko-pozaren denbora huntan, egizu  
 Kristo hil eta piztuaren misterioak ospa ditzagun,  
 bizi berriaren lekuko ta aitorle izaiteko gisan.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Egun berean San LUIS MARIE GRIGNION Montfortekoa, apeza**

*Bere ideia berriengatik gudukatua izana, Luis Marie Grignonek (1673-1716) urrun igorria izaita misionest galdegiten du Erromari. Parropietako misionen predikari izendatuko du Aita Sainduak. Frantziako mendebaldean, Jesusen jendeketak Maria dela medio kartsuki gidatzen ditu. Zuhurtziaren alabak sortzen ditu eta apez jendarte bat. Bere izkirio sakratuetan ere ohargarria da.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Kristoren salbamendu eta maitasunaren bidetik  
eta Maria Birjina lagun, eraman nahi izan zinituen  
Luis Maria sainduaren urratsak ;  
egizu, haren etsenpluari jarraikiz,  
eta zure maitasunari begira,  
saia gaitezen aspertu gabe zure Eliza eraikitzen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**edo :**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
zure Seme Jesu Kristori osoki eskainia bizitzeko grazia  
eman zenion Luis Maria apez sainduari,  
eta horren lekuko eta erakasle egin zenuen  
Jesusen Ama sainduaren eskutik ;  
egizu, guk ere, izpirituzko bide berari jarraikiz,  
zure erregetza munduan zabal dezagun beti.  
Zure Seme ...**

**Apirilaren****Besta****29**

**Santa KATALINA Sienekoa,  
birjina eta Eliz erakaslea, Europako zaindaria**

*Katalina Sienekoa (1347-1380) bere bizian Kristo gurutzeari so egoitearen gutziaren eta Elizaren zerbitzuaren artean partekatua izan da. San Domingoren izpiritua bere barnean errotik sartua zuela, bere amultsutasunezko indarrereri esker, Aita Saindua Avignonetik Erromarat ekarri zuen eta bekatoroseri odol libratzailearen mintzoa entzunarazi.*

**SARTZEA** Hau da birjina beti zuhurki zabilana,  
Eta zentzudun birjinetarik izan dena.  
Argi piztuarekin Kristori biderat joan zaiona.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Jainko Jauna, zure maitasunaren sua  
eman diozu Katalina sainduari,  
Jesusen Pasionea gogoan erabiltzen zuela,  
eta Eliza zerbitzatzen ;  
hura bitarteko, egiguzu,  
Kristoren misterioan bat egin-eta,  
haren aintza agertzean bozkaria gaitezen beti.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Onar, Jauna, Katalina sainduaren besta egunean  
**OTOITZA** eskaintzen dauzugun opari salbagarria :  
haren erakaspenean argiturik,  
kartsukiago eskerrak eman ditzaizkizugun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Argian ibilki balin bagira, Jainkoa argian den bezala,  
*Ik. 1 Jn 1, 7* elgarrekin bat egiten dugu,  
eta Jesu Kristo, haren Semearen odolak  
bekatu guzietarik garbitzen gaitu.

**AZKEN OTOITZA** Zeruko mahaietan hartu dugun sakramenduak  
eman diezagula, Jauna, betiereko bizia :  
Katalina sainduaren gorputzeko bizia ere  
indartu zuen bezala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)**

**Apirilaren****30 San PIO V.a, aita saildua**

*Bere Aita-Saindugo sei urte denboran (1566-1572), Pie V. Aita Sainduak egin ahalak egin zituen Trentoko Kontzilioko dekretu erreformatzaileak usaian sarrarazten. Kontzilioko katexima ezagutarazi zuen baita Brebiarioa eta Meza liburu erromatarra ere. Bururatzeko Arrosarioa erraiteko moldea adierazi zuen eta hunen zabaltzaile egin zen.*

**Meza : Artzainena (Aita saildu) (889)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
 Pio aita-saildu dohatsua eman zenion zure Elizari  
 fedearen zaintzeko eta liturgiaren edertzeko :  
 Hura bitarteko dugula, egiguzu,  
 fede biziz eta egiazko maitasunez beterik,  
 parte har dezagun zure misterioetan.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.**



## MAIATZEKO SAINDUAK

### Maiatzaren

#### 1 San JOSEP, langilea

*Galileako herri ttipi batean eskulangile, Josep, Mariaren espos laguna eta Jesusi eskulana erakutsi ziona, Elizak ezarri du bakoitzarentzat, bere eguneroko erantzukizunetan, bide erakusle. Lana, denen onetan, izerdi eta buru hausteekin batera, zorion iturri ere da, Kreatzaileari hurbiltzen duelakotz ; hori da ikasten Nazareteko eskolan.*

#### SARTZEA

*Sal 128 [127], 1-2*

Dohatsu bai zu Jaunaren beldur bazaudena,  
Haren bidetan zabiltzana.  
Zure eskuen lanetik duzu jan-edana,  
Eskutan duzu zoriona.

#### OTOITZA

Gauza guzien Egile ziren Jainkoa,  
zuk ezarri diozu gizakiari lanerako legea :  
emaguzu, otoi, Josep dohatsuak bezala,  
eta harek lagundurik,  
bete ditzagun zuk ezarri eginbideak,  
eta ardiets zuk hitzeman saria.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

#### ESK. GAIN.

#### OTOITZA

Urrikalmendu iturri ziren Jainko Jauna,  
ikus, otoi, Josep sainduaren besta egunean  
ekarri dauzkizugun emaitzak :  
zuri eskaintzen dauzugun hau izan bekigu laguntza.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

#### San Josepen prefazioa (439)

#### KOMINIONEA

*Kol 3, 17*

Egin guziak, solas eta obra,  
denak egizkizue Jesus Jaunaren izenean.

#### AZKEN OTOITZA

Jauna, zeruko gozoa eman daukuzu janari :  
orain apalik eskatzen dauzugu,  
Josep dohatsua bezala izan gaitezen  
gure bihotzetan ezarri duzun maitasunaren lekuko  
eta egun batez betiereko bakearen jabe.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Maiatzaren**

Oroimena

**2 San ATANASIO, apezpiku eta Eliz erakaslea**

*Alexandriako apezpiku 328tik 373rat, Atanasio helburu nagusi batekin dabil : Kristo Jainko dela sinetsaraztea, Nizeoko kontzilioak finkatu bezala, askok hori zalantzan ezartzen baitzuten. Apezpikuen uzkurtasunek, poliziaren xauxunkeriek, bortz desterraldik, ez zuten lotsarazi ordea, Jesus Jainko gizon egina baitan xertaturik baitzegoen haren bihotz paregabea.*

**SARTZEA***Ik. Si 15, 5*

Jaunak, batzarraren erdian hitz egiteko gaitasuna eman dio Atanasio sainduari, adimendua eta zuhurtziaz argituz, alleluia.

**OTOITZA**

Jainko guziahaldun betierekoa,  
Atanasio apezpiku saindua hautatu duzu,  
zure Semearen jainkotasuna aitortzeko eta erakasteko :  
Emaguzu, haren erakaspen eta laguntzeri esker,  
zu gero ta gehiago ezagutzea eta maitatzea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Onar, Jauna, Atanasio dohatsuaren bestakari egiten dauzugun eskaintza :  
zure egiaren aitortzeak salbamendurat eraman ditzala haren fedea osorik begiratzen dutenak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***1 Ko 3, 11*

Nehork ez dezake lekuan den oinarriaz besterik ezar ;  
eta oinarri hori Jesu Kristo da.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko guziahalduna, zuri otoitzez gaude :  
Atanasio sainduak bezala,  
Jesus egiazki Jainko dela aitortzen dugunaz geroz,  
egizu zure Seme bakarraren jainkotasunak  
eman diezagun, sakramendu hunen bidez,  
bizi ta indar betikotz.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Maiatzaren**

Besta

**3 San FILIPE ta JAKOBE, apostoluak**

*Jakes deituaz, ez dakigu deus, bakarrik Alfeoren semea zela eta Hamabietarik bat. Filipe, Betsaidekoa zen Petri eta Andres bezala eta, haiekin Joanes Batistaren dizipulu ere izana zen lehentxago. Azken afarian, Filipek zion galdatu Jesusi : “Jauna, erakutsaguzu Aita ?”. Galdera horrek ihardespen hau eragin zuen : “Filipe, ni ikusten nauenak, Aita ere ikusten du.”*

**SARTZEA** Hauk dira gizon sailduak,  
Jainkoak bere maitasunean hautatuak,  
eman baitiote betiereko ospea, alleluia.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Jainko Jauna, urte oroz pozten gaituzu  
Filipe ta Jakobe zure apostoluen besta egunaz :  
haien otoitzari esker, emaguzu,  
zure Semearen Pasione ta Piztean bat izaita,  
betierean zu ikusterat hel gaitezen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Onar, Jauna, Filipe ta Jakobe apostoluen bestakari  
**OTOITZA** egiten dauzugun eskaintza :  
emaguzu bihotz garbi ta zintzoz zu zerbitzatzea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

**KOMINIONEA** Jauna, erakutsaguzu Aita, eta aski zaigu.  
*Jn 14, 8-9* Filipe, ni ikusten nauenak, Aita ikusten du, alleluia.

**AZKEN OTOITZA** Hartu dugun sakramenduaz,  
garbi, Jauna, gure gogo-bihotzak :  
Filipe ta Jakobe apostoluek bezala  
zure Semearen baitan zu ikusirik,  
betiereko bizia ardiets dezagun heiekin batean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)

**Maiatzaren****9 Santa LUISA Marillac-ekoa**

*Marillakeko Luisa, 1591an Parisen sortua, ezkondua izana eta 1625ean alargundua, etengabe karitate obretan arizan zen. San Bixintxo Paulorekin, Karitatearen Neskatoen serora elkarte eraiki zuen, Bixintxo Paulokoaren Serorak beste izenarekin ezagutua.*

**SARTZEA**

*2 Ko 5, 14-15*

Alabainan, Kristoren maitasunak hertsatzen gaitu,  
dakigularik Kristo denentzat hil dela,  
bizi direnak ez daitezen berentzat bizi,  
baizik haientzat hil eta piztu den harentzat.

**edo**

*Job 30,25 ; 31,18*

Ez ote dut nigar egin zorigaitzean zirenekin,  
ez ote naiz behartsuez urrikaldu?  
Urrikiak aita bezala ukan nau ttipi-ttipia nintzenetik.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, maitasunaren iturri eta saria,  
zure Seme gizon eginaren bidez  
zure herriari eman diozu amodioaren manu berria ;  
Emaguzu, Santa Luisaren etsenpluari jarraikiz,  
beti maitasunez beteak izaita gure bizian,  
benedikatuetan izaiteko zure erresuman.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Beha, Jauna, gure opari xumea  
Santa Luisaren bestan eskaitzen dauzuguna :  
Misterio huntan parte hartzeak  
ager diezagula Salbatzailearen maitasuna.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**PREFAZIOA**

*Karitatearen Neskatoen prefazioa*

**Jauna zuekin.**

**℟̣. Eta zure izpirituarekin.**

**Gora bihotzak.**

**℟̣. Jaunari dauzkagu.**

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

**R̄.** Egoki da eta zuzen.

**B**ai egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
Aita guziz saindu, Jainko guziahaldun betierekoa,  
zuri goresmenak kantatzea  
eta Luisa dohatsuan  
zure maitasun miresgarria ospatzea.

Zuk erakatsi diozu behartsueri  
bere laguntza eskaintzen,  
eta hola munduarentzat,  
zure maitasunaren lekuko izaiten.

Bozkariozko besta huntan,  
bere familiakoak sustatzen dituzu  
amodio agintza horri jarraikitza,  
justizia eta maitasun erreinuaren hedatza,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Zeruko saindu guziekin,  
eskerrak bihurtzen dauzkizugu,  
poz betean (erranez) kantari : *Saindu ...*

**KOMINIONEA**

*Jn 15, 9*

Aitak maite nauen bezala, nik ere maite zaituztet;  
egon zaitezte nere maitasunean.

**edo**

*Mt 25, 34.36.40*

Zatozte, nere Aitak benedikatuak:  
eri nintzen, eta zuek ene ikusten izan zirezte;  
Egiaz diotzuet : nere haurrideak diren ttipien hauetarik bati  
egin diozuen aldi guziz, nihauri dautazue egin.

**AZKEN OTOITZA**

Gure maitasunak, Jauna,  
apairu huntan kausi dezala beti sostengu,  
Santa Luisaren etsenpluari jarraikiz,  
maitasunak hazi gure fedea  
egun guzitako bizian ager dadin.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Maiatzaren****12 San NEREO eta AKILE, martirrak**

*Dioklezianoren armadan soldadu ziren Nereo eta Akile. Damase apezpikuak dioenaz, ez ziren oraino giristinuak pertsekuzio handia hedatu zelarik ; kristau martirren bertuteak hunkiturik ziren Jesu Kristoren dizipulu bilakatu. Lepoa moztu zieten, Erroman, dirudienez, 304ean.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (882-883)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahalduna,  
badakigu zure lekuko ta aitorle kartsu izan direla  
Nereo ta Akile martir sainduak :  
egizu, sendi dezagun  
gure alde ditugula zure aitzinean.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean San PANKRAZ, martirra**

*Pankrazek martirioa jasan zuen Erroman, menturaz Nereo eta Akileren urte berean eta beharbada egun berean. Ohiturak dioenaz, hamalau urte zituen hil zutelarik. Pankrazek, Ainesek bezala, bere gaztetasuna gozatzea baino lehen heriotzea hautatu zuen bere fedeari eta Kristori leial egoiteko.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)**

**OTOITZA**

**Bozkaria bedi, Jauna, zure Eliza,  
Pankraz martir sainduaren otoitzetan fidatzen dena :  
hura bitarteko, iraun dezala  
beti leial, eta bakean sendo.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren****13 FATIMAKO MARIA BIRJINA DOHATSUA**

*Portugaleko herri ttipi horretan, 1917ko maiatzaren hamahiruan Andredena Maria agertu zen lehen aldikotz hiru haurreri : Luzia, Jazinto eta Frantziskori. Maria, hilabetero agertuko zaie ondoko urriaren hamahirua arte ; haren erakaspena, besteak beste : Aitaren behako amultsua ttipi-ttipiei lehen-lehenik, oroitaraziz aldi berean munduari otoitz eta penitentzia egitearen beharra bake bide bezala.*

**Meza : Maria Birjina dohatsuarena (864-871)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
zure Semearen Ama, gure Ama ere egin zenuen ;  
emaguzu, munduaren salbamenerako penitentzian  
eta otoitzean irautea,  
gero eta gehiago berma gaitzen  
Kristoren erregetza eraikitzen.  
Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean San ANDRES-HUBERT FOURNET**

*Poitiers hirian sortu apeza, Andres-Hubert Fournet (1753-1834)ek basa ministeritzaren lanjerrak ezagutu zituen Iraultza garaian, eta Espainian desterruaren garratza. Bazterrak lanotu zirelarik, St Pierre-de-Maillen erretor, Jeanne-Elixabet sainduarekin eraiki zuen Gurutzearen Neskatoen kongregazionea (Uztaritzeko serorak), erakaskuntzan, pobre eta erien zerbitzuan artzeko.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Andres-Hubert sainduaren bidez,  
zure Elizan sortarazi duzu  
arimen salbatzeko lan egiten duen Serora elkarte bat,  
Gurutzea duena seinale ;  
Egizu, haren etsenpluari jarraikiz eta amodioz beterik,  
beti eta denetan haren ospe saindua bila dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren**

Besta

**14 San MATIAS apostolua**

*Matias Jesusi jarraiki zitzaion bataiotik eta zerurat altxatu zen arte. Horra zertako haren izena proposatua izan zen Judas galduaren ordaintzeko Hamabien taldea berrosatzerakoan. Horrelaxe, hilen artetik piztu Jaunaren lekuko izatea tokatu zitzaion.*

**SARTZEA***Jn 15, 16*

Ez nauzue, zuek ni hautatu,  
bainan nik zaituztet zuek hautatu eta ezarri,  
joan zaitezten, eta fruitu ekar dezazuen,  
eta zuen fruituak iraun dezan, alleluia.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

Jainko Jauna, zure apostoluen taldean  
sartu zenuen Matias dohatsua :  
emaguzu, haren bitartez, zure hautetsien artean sartzea,  
zure maitasunak hortarat deitzen gaituenaz geroz.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Onar, Jauna, Matias sainduaren besta egunean  
zure Elizak egiten dauzun eskaintza,  
hunen bidez aurki dezagun zure graziaren indarra.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

**KOMINIONEA***Jn 15, 12*

Hau da ene manamendua : elgar maita ezazue,  
nik maitatu zaituztedan bezala, dio Jaunak.

**AZKEN OTOITZA**

Bete gaitzazu, Jauna, beti zure dohainez :  
Matias apostolu dohatsua bitarteko dugula,  
sainduen ondoregoa eman diezaguzun argitan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)



**Maiatzaren**

Oroimena

**15 San MIXEL GARIKOITZ**

1797an Ibarren sortua, Mixel Garikoitz apez ordenatua izan zen 1823ko Abendoaren 20ean Baionako katedralean. Kanbon bikari egon ondoan, diozesako semenarioaren buru izendatua izan zen Betarramen. Hor apez elkarte bat eraiki zuen, Jesusen Bihotz-Sakratuaren Apezak deitua dena, prediku eta arimen zerbitzuko ; hor hil zen 1863eko maiatzaren 14ean, Salbatorez.

**SARTZEA**

Erran dut : «Huna heldu naiz ni,  
zure nahia baitut bizian egin nahi.  
Nere Jainkoa, finkatua naiz xede hortan,  
zure legea barna dut nere bibotzean. (Alleluia).

**OTOITZA**

Aita guziz saildua,  
zure nahia bihotz bihotzez eta gogo berroz egiteko grazia  
eman zenion Mixel Garikoitz apez sailduari :  
emaguzu semetzako izpiritua,  
gu ere haren idurira Kristori jarraik gaitzen.  
Zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean,  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.  
OTOITZA**

Jesus Jauna,  
zure bihotzaren maitasuna sakramendu huntan  
erakutsi diozu Mixel Garikoitz sailduari :  
zurekin bat egin gaitzazu maitasun lokarriez  
gure buruak Aitari eskaint diezazkiogun zurekin batean.  
Errege baitzira gizaldi eta gizaldietan.

**PREFAZIOA**

*Mixel Garikoitz sailduaren prefazioa*

Jauna zuekin.

℞. Eta zure izpirituarekin.

Gora bihotzak.

℞. Jaunari dauzkagu.

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℞. Egoki da eta zuzen.

**B**ai, egoki da eta zuzen,  
non nahi eta beti zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saildu,  
Jainko guzialdun betierekoari.

Zu benedikatzzen zaitugu, eta zu goresten,  
Mixel Garikoitz saildua ospatzen dugun egun huntan.

Hura bai gizon ezti eta umila ,  
hura zerbitzari leial eta zentzuduna,  
zure nahiari beti jarraikia,  
arimen salbatzeari osoki emana,  
bihotza zabal eta gogoa suhar,  
Jesu Kristo gure Jaunaren osperako.

Horrengatik, saildu eta aingeru guziekin,  
goresten zaitugu  
beti eta beti diogula :

*Saildu ...*

**KOMINIONEA** Nere zeruko Aitak nahian dabilana  
hura dut anaia, hura arreba eta ama. (Alleluia).

**AZKEN OTOITZA** Zure maitasunaren sakramendu hunek, Jauna,  
pitz dezala gure baitan maitasunaren garra,  
Mixel Garikoitz saildua  
arimen salbatzeko sutan zaukan gar bera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Maiatzaren****18 San JOANI I.a, aita saindu eta martirra**

*Joani Lehenak (523-526) jasan behar ukan zituen Eliza katolikoaren kontrako pertsekuzioak, Teodoriko errege arianoagandik, Ravenne hiritik kudeatzen zuela honek Italiako erresuma. Lehenik igorri zuen Joani Konstantinoplarat ezinezko eginkizunarekin, eta handik itzultzean, preso ezarri zuen Ravennen eta hor goseak hiltzerat utzi (526).*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)  
edo Artzainena (Aita saindu) (889)**

**OTOITZA**

**Fededunen saria ziren Jainkoa, Joani aita-sainduaren martirioaz sagaratu duzu egun hau :**

**entzun, otoi, zure herriaren galdeak, eta emaguzu, haren merezimenduak ospatzen ditugularik, harek bezala azkar iraun dezagun sinestean.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren****19 San YVES, apez**

*Yves Hélyory (1253-1303), xume eta zapalduen abokata, Tréguier (Bretania) ko diozesako apez zen. Rennes diozesako juje zerbitzioa egin zuen, eta gero Tredez eta Louannekeko erretor. Pobreen artean pobre, xuxentasun eta pazientzia handiaz gain, maitasun handikoa zen. Bere atea beti nornahiri idekia zaukan.*

**Meza : Sainduena (Karitatezko obretan) (918)  
edo Artzainena (Artzain bat) (894)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zuzen eta ongi guzien iturria, San Yves egin duzu bere haurrideen juje eta pobreen adiskide suhar :**

**emaguzu, haren bitartez, zuzentasuna kartsuki bilatzea, eta zuk bezala gizon-emazte guziak maitatzea.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren****20 San BERNADIN Sienekoa, apeza**

*Sieneko Bernadin frantziskotarrak (1380-1444) Bizente Ferrier dominikano predikatzailaren segida hartuz-edo, jende xehearen argitzaile bezala, dei eginez otoi begiak atxikitzeke mundu nahasi eta bortitz honetaz goraxago. Milanetik Erromarat, hiriz hiri zebilan predikatuz Jainkoaren amodio neurrigabea bai eta goretsiz Jesusen izena gaitz guzien begirale bezala.*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (899-900)  
edo Sainduena (Fraidentzat) (914)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Jesusen izen sainduaren amodio miresgarria  
ezarri duzu Bernadin dohatsuaren bihotzean :  
Egizu, haren merezimendu ta otoitzeri esker,  
zure maitasunak beti sutan atxik ditzan gure bihotzak.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren****21 San KRISTOBAL MAGALLANES, apeza,  
eta LAGUNAK, Mexikan martirrak**

*Mexikon sortua 1869an, Kristobal Magallanes apez kementsuak ez ditu bakarrik uzten giristinoak pertsekuzioak gogor joko duelarik 1915etik goiti. Bere parropiako ateak irekitzen ditu apezgaien formakuntza segitzeko eta gerizatzeko. Kristobal eta bere lagunak martirioa onartuko dute, 1927an, goraki barkatuz beren hiltzaileei.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (882-883)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
San Kristobal apeza, eta haren lagunak  
Kristo Erregearen jarraikitzaile leial egin zinituen  
martirioraino ;  
emaguzu, haien otoitzari esker,  
egiazko fedearen aitormenean iraunez,  
zure maitasunaren agintzak beti betetzea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren****22 Santa RITA Casciako, serora**

*Egoera etsigarrien saindua bezala ezaguna da Rita (1381-1457). Ezkondurik gizon bortitz batekin, bereak jasan zituen bainan lortu zuen haren Jainkoari buruz itzultzea. Bere senarra eta bi seme galdu ondoan, sartu zen “Casciako Agustina” komentuan (Italia). Bizimolde oso mistikoaren bidea harturik, pairamenen erdian ere beretik segituko du, beti bihotz handia erakutsiz.*

**Meza : Sainduena (Serora batentzat) (915)**

**OTOITZA**

**Emaguzu, Jauna,  
Rita sainduari ausarkian eman zenion  
gurutzearen jakintza eta indarra,  
nahigabeetan Kristoren pasionean parte hartuz,  
haren bazko-misterioan barnagotik esku har dezagun.  
Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren****25 San BEDA, apez eta Eliz erakaslea**

*Beda beneditarrak (673-735) bizi guzia iragan zuen Jarrow-ko abadetxean (Ingalaterra). Bedak segitu zuen beneditanoen bide saindua : “Otoitz eta lan egin”. Bere eginkizun nagusia, burulana : Ingalaterraren eta martirren historia eta Biblia sakon azterturik hartariko aipamen jakingarriak zabaltzea, ikerlan guzien artetik otoitza ahantzi gabe.*

**Meza : Erakasleena (901-902) edo Sainduena (Fraide batentzat) (914)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Beda dohatsuaren jakitateaz  
argitzen duzu zure Eliza :  
emaiezu zure zerbitzarieri  
haren erakaspener argia eta merezimenduen laguntza.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean San GREGORIO VII.a, aita saindua**

*Hildebrand fraidea, aita saindu izanen da (1073-1085), Gregorio VII izena harturik eta Erdi Aro guzia gorenean iraganen du. Argi zeuzkan bere denborako beharrak zoin ziren, eta ausartzia handiz jokatu da Eliza feudal boteretik urruntzeko eta apezen diziiplina berrezartzeko. Inperadore erromano germanikoari ihardukiko dio boteretik kenduz eskumikatu ondoan (1077).*

**Meza : Artzainena (Aita saindu) (889-890)**

**OTOITZA**

**Emaiozu, Jauna, zure Elizari  
indarrezko izpiritua eta zuzentasun-gosea  
Gregorio aita-saindu dohatsuari bezala :  
gaizki dena baztertu-eta,  
zuzen dena egin dezan egiazko maitasunean.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean Santa MARIA MADALENA Pazzikoa, birjina**

*Florantinako Maria Madalena serora karmelita (1566-1607), Jaunak deitu zuen maila goreneko gogo esperientzia mistikoetarat, gorputz eta izpiritu heziketa gogorrenen ildotik. Bainan xumeki biziz, pobrezia, garbitasun eta obedientziaz, bidez bide joan zen Jainkoari buruz berekin eramaki zituela ingurukoak ere.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)  
edo Sainduena (Serora batentzat) (915)**

**OTOITZA**

**Birjintasuna maite duzun Jainkoa,  
zeruko dohainez bete duzu  
Pazziko Maria Madalena dohatsua,  
zure maitasunaren suak hartua :  
Haren besta egun huntan egizu, hura bezala  
garbiak izan gaitezen, eta maitasunez beteak.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren**

Oroimena

**26 San FILIPE NERI, apeza**

*Filipe Neri (1515-1595), sortzez florentinoa bainan erromano bilakatuak jakin zuen bozkarioz betetzen Jesusen zoriontasun eginbidetsuak bezain esperantzaz beteak. Ikusi beharko zen apez hori, Ostia sainduaren aitzinean, libura saindutan murgildua, eta aldi berean, gazte, presoner, erien zerbitzuko jarria. Ez da harritzeko sortu zuen “Oratoire du Divin Amour” taldeak arrakasta gaitza izan bazuen.*

**SARTZEA***Erm 5, 5*

Jainkoak bere maitasuna bihotzerat ixuri baitauku,  
berak eman Izpiritu Sainduaren bidez.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, zure zerbitzari leialak  
saindutasunerat altxatzen ari zira beti :  
egizu Izpiritu Sainduak bero gaitzan gu ere,  
Filipe dohatsuaren bihotza  
harrigarriki berotu zuen su berean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Goresmen oparia eskainiz, Jauna,  
otoitz egiten dauzugu :  
Filipe dohatsuak bezala, beti pozik lan egin dezagun  
zu goosten eta aldeko laguna zerbitzatzen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***Jn 15, 9*

Aitak maite nauen bezala, nik ere maite zaituztet;  
egon zaitezte nere maitasunean.

**AZKEN OTOITZA**

Zeruko gozoa eman daukuzu janari, Jauna :  
egizu, Filipe dohatsuaren otoitza lagun,  
egiazko biziaren iturrirat beti lehia gaitzen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Maiatzaren****27 San AGUSTIN Cantorbery-koa, apezpikua**

*Aita saindu Gregorio Handiak igorri zuen Agustin, fraide erromano andana batekin, Ingalaterrarat Ebanjelioa hedatzeko berriki han sartuak ziren Saxoien artean (597). Hartu zuen misioa oso arrakastatsua izan zen. Agustin, Cantorberyko apezpiku egin zuten eta hango Eliza antolaturik, kristautasuna hedatu zuen jendaira horren ohitura zaharrak begiratzuz ahal zen bezainbatean.*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (899-900)  
edo (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Ingalaterrako jendeeri Ebanjelioaren argia eman diezu  
Cantorbery-ko Agustin sainduaren hitzaldien bidez :  
Egizu, haren lanek  
beti fruitu eman dezaten zure Elizan.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Maiatzaren****29 San PAUL VI.a, aita saindua**

*Paul VI (Giovanni Battista Montini) 1897 ko Buruilaren 26an sortu zen Concesio (Brescia) Italian. Apez ordenatu eta, bigarren gerla denboran, judu eta iheslariak lagundu zituen. Milaneko arkapezpiku zelararik, Jean XXIII ren segida hartu zuen 1963an. Anitz lan egin zuen : Vatikanoko II kontzilioaren bukatzea, giristinoen batasuna, liturgiaren berritzea giristinoek parte gehiago har zezaten. 1978an hil zen, eta sinpleki ehortzia izan, bere biziaren arabera.*

**Meza : Artzainena (Aita saindu) (889-890)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zure Eliza gidatzeko kargua eman zenion  
Ebanjelioaren apostolu kartsu,  
Paulo aita saindu dohatsuari ;  
egizu, otoi, haren erakaspenez argiturik,  
zure langile izan gaitez, zure  
maitasunaren zibilizazioa munduan zabalduz.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**



**Maiatzaren****Oroimena****30 Santa JOANA ARKEKOA, birjina**

*Joana, Domremykoa (Lorena) sortu zen 1412an eta delako bere "Bozak" entzun zituenetik, beti haieri jarraiki zaie, hori baitzitzaien Jainkoaren deiari ihardestea. Izan zedin Orleans libratu zuelarik (1429), urte berean errege sakraturik Reims-en, ala berdin Rouen hirian bizirik erre zutenean, beti otoiztuko duen sokorri bakarra, su garren erdian ere : Jesus, Jesus !*

**SARTZEA***Jd 13, 17-18*

Lauda dezagun Jainko Jauna,  
Hari zaudenak bazterrerat ez ditu utzi.  
Urrikalmendu-hitzak oro ditu begiratu.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Joana saindua hautatu duzu  
bere herria etsaietarik zain zezan :  
Emaguzu, hura ararteko,  
zuzentasunaren alde lan egitea, eta bakean bizitzea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Onar, Jauna, Joana sainduaren bestakari,  
opari salbagarriaren eskaintza garbia :  
Egizu, oroz gaintetik eta orotan maita zaitzagun,  
zure aintzaren goresteko bizi gaitezen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Sainduen prefazioa I (446) edo II (447)**

**KOMINIONEA***Sal 22, 4*

Heriotzeko gaupean barna joanik ere,  
Nik ez beldurrik, zu hor baitzare, Jesus Jauna.

**AZKEN OTOITZA**

**Jauna, zeruko ogiaz azkartu gaituzu :  
hortan baitzuen hoinbeste aldiz  
Joana sainduak kausitu argi eta indar :  
Janari salbagarri hunek lagun gaitzala, otoi,  
gure haurrideen zerbitzari izaiten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

## Maiatzaren

Besta

## 31 MARIA BIRJINA DOHATSUAREN BISITAZIONEA

*Maria, Jesusez haurdun izanen zela jakin orduko, Elisabet kusiaren ikusterat doa, bozkarioz betea, aingeruak errana baitio haur beharretan dagoela hura ere. Bisitazioa deitzen dugun gertakari loriagarria : batak Salbatzailea dakar ; besteak Salbatzaileari bidea irekiko diona. Oi une bozkario sortzaile ezin errana : Mariaren arima kantuz Jainkoari !*

## SARTZEA

Jainkozaleak, etor, entzun nere arimak Jaunari zer zor dion.

*Sal 66 [65], 16*

«Aintza zeruetan» erraiten da

## OTOITZA

Jainko guziahaldun betierekoa,  
Elixabetenganat joiteko gogoia eman zenion  
Maria Birjina dohatsuari,  
zure Semea bere sabelean *zaukala* :  
Egizu Izpirituaren deiari jarraik gaitezen,  
guk ere, Maria sainduarekin batean,  
beti goretz zaitzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## ESK. GAIN.

## OTOITZA

Gogotik onartu duzu, Jauna,  
zure Semearen amak Elixabeti erakutsi zion amodioa :  
atsegin bekizu ere  
gure salbamendurako eskaintzen dugun sakrifizioa.  
Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

Prefazioa : Maria Birjina dohatsuarena II (441)

## KOMINIOEA

*Lk 1, 48-49*

Mendeek neri : Dohatsua. Zoin handi nitan Jainko Jaun guziz  
indartsua Haren izena zoin saindua.

## AZKEN OTOITZA

Zure Elizak goretz zaitzala, Jauna,  
fededunentzat egiten dituzun miragarriengatik :  
Joanes Batistak, Kristo ezagutu-eta,  
bozkarioz jauzi egin zuen *bezala*,  
sakramendu huntan pozik har dezagula  
beti bizi den Kristo bera.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

Benedizione nagusia erabil daiteke (648, 17)

**Mendekoste ondoko astelehena**

Oroimena

**MARIA BIRJINA DOHATSUA, ELIZAREN AMA**

1964ko hazaroaren 21ean, Paulo VI.ak, Kontzilioaren hirugarren saioa bukatzerako mintzaldian, gorarik ezarri zuen “Maria Birjina Elizaren Ama”, erran nahi baita Jainkoaren populu guziaren Ama, kristau guziena, kontsokratuak barne. Frantses aita sainduak gehitu du legezko eginez egun horren ospakizuna.

**SARTZEA***Ik. Eg 1, 14*

Dizipuluak, Jesusen ama Mariarekin gogoz bat, otoitzari jarraikiak bizi ziren.

**OTOITZA**

Jainko Aita urrikaltsua,  
zure Semeak, gurutzean josia zelarik,  
Maria Birjina dohatsua, bere Ama,  
gure Ama ere egin zuen ;  
egizu, haren maitasunaren laguntzaz, zure Eliza,  
gero eta emankorragoa izanik,  
poztu dadila bere seme-alaben saindutasunaz  
eta erakar ditzala bere altzora  
mundu zabaleko herrialde guziak.  
Zure Seme ...

**ESK. GAINEKO****OTOITZA**

Onar, Jauna, gure eskaintzak,  
eta bihur itzazu salbameneko sakramendu,  
hunuen indarrez, Elizaren Ama den Maria Birjinaren  
maitasunean sutu gaitezen ;  
eta egizu, salbamen-lanean,  
harekin untsa loturik ar gaitezen,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Maria Birjina dohatsuaren III (442)****KOMINIONEA***Ik. Jn 2, 1.11*

Ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen ama ;  
orduan egin zuen Jesusek bere lehen ezaugarria,  
bere aintza agertu zuen, eta dizipuluek haren baitan sinetsi zuten.  
**edo :**

*Ik. Jn 19, 26-27*

Jesusek, gurutzean josirik zagola,  
maite zuen ikasleari erran zion : Horra hor zure ama !

**AZKEN OTOITZA**

Erospenaren eta biziaren ageria harturik,  
ahuspez eskatzen dauzugu, Jauna :  
zure Elizak, Ama duen Maria dohatsuak lagunduta,

Ebanjelioa iragar diezaiela herrialde guziera  
eta mundu osoa bete dezala zure Izpituaren indarrak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Mendekoste ondoko III. larunbatean**

Oroimena

## **MARIA BIRJINA DOHATSUAREN BIHOTZ GUZIZ GARBIA**

*Mariaren Bihotz Guziz Garbiaren bestak gonbidatzen gaitu Jainko Semearen egoitza sakratua izan denaren eta haren arima notagabekoaren misterioan sartzerat. Jaunari egin dion ongi etorriagatik, Maria dago, Elizaren Ama, Izpituaren tenplo, kristau bakoitzarentzat eredugarri.*

### **SARTZEA**

*Sal 13 [12], 6*

Salbamenduaz oroitzean bozkario dut bihotzean.  
Neretzat anitz egin baitu, Jaunari diot beti kantu.

### **OTOITZA**

Jainko Jauna, Maria Birjina dohatsuaren bihotzean  
moldatu duzu Izpitu Sainduari doakion egoitza :  
egin gaitzazu, Maria Birjinaren bitartez,  
zure aintzaren etxe.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Izpitu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

### **ESK. GAIN.**

### **OTOITZA**

Ikus, Jauna, zure fededunen otoitz eta eskaintzak;  
Maria Birjina dohatsua, Jainkoaren ama  
ospatzen dugun huntan :  
zuretzat atsegingarri izan daitezela,  
eta ekar diezagutela zure urrikalmenduaren laguntza.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Maria Birjina dohatsuarena I (440) edo II (441)**

### **KOMINIONEA**

*Lk 2, 19*

Mariak horiek oro begiratzen zituen, bere bihotzean zerabiltzala.

### **AZKEN OTOITZA**

Salbamenduko sakramendua hartu dugu, Jauna,  
zure Semearen ama goresten dugun huntan :  
egizu, zure graziaren beteaz poztu gaitzen,  
eta salbamendua beti nasaikiago ardiets dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## EKAINEKO SAINDUAK

## Ekainaren

## Oroimena

## 1 San JUSTIN, martirra

*Justin Samariako Napluse herrikoa da. Katoliko egin zen eta filosofia eskola bat ireki zuen Erroman. 150a alderat, idatzi zuen liburu bat juduekilako eztabaidetaz. Antonin inperadoreari "Giristinoen Goraipamena" igorriko dio. Kide batek salatuz, goraki aitortu zuen bere fedearen epailearen aitzinean bainan hiltzerat kondenatu zuten beste sei kristauekin batera (165 alderat).*

**SARTZEA** Kondatu dautet fedegabeek ixtorio :  
*Sal 119 [118], 85.46* Horiek oro zure legea ez balio.  
 Zure legea aipatzen nuen erregeri :  
 Nork egin ote beldur neri ?

**OTOITZA** Jainko Jauna, Gurutzearen erokerian  
 erakutsi zenion Justin martir dohatsuari  
 Jesu Kristoren ezagutza paregabea :  
 emaguzu, haren bitartez,  
 gure inguruko sineste makurrak bazterturik,  
 fede azkarra ardiets dezagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Egizu, Jauna, behar bezala hurbil gaitezen  
**OTOITZA** Justin dohatsuak beldurrik gabe  
 zaindu zuen sakramendu huntarat.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Zuen artean ez dut deus jakin nahi izan,  
*ikus 1 Ko 2, 2* deus, Jesus baizik, bai eta Jesus gurutzean.

**AZKEN OTOITZA** Zeruko janariak azkarturik, Jauna,  
 umilki eskatzen dauzugu :  
 Justin sainduak erakutsi bezala,  
 hartu ditugun graziengatik  
 beti esker-emaile izan gaitezen.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Ekainaren

### 2 San MARTZELINO eta PIARRES, martirrak

*Martzelino eta Petri hil zituzten Erroman Diokletizianoren pertsekuzio kari (304 edo 305). Geroxago, burua moztu zien borregoak, Damase aita sainduari, jakinarazi zion nola bieri galdatu izan zitzaizen berek beren hil hobia zilatzea eta nola lan hori bete zuten lau lorietan.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (882-883)**

#### OTOITZA

Martzelino eta Piarres martir sainduak egin dauzuten aitormenaz, Jauna, inguratzen gaituzu eta zaintzen : Egizu, heieri jarraikiz, aitzinerat egin dezagun, eta haien otoitzek azkar gaitzaten.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

### Egun berean San POTHIN, apezpikua, Santa BLANDINA, birjina, eta LAGUNAK

*San Pothin eta Santa Blandina dauzkagu berrogeita zortzi martirren aitzindari (horietan 22 emazteki) Lyon-en hilen dituztenak 177an. Pothin, apezpiku zahartuari leher eginarazi zioten presondegian. Blandina "ttipi eta ahula" "Kristoz jantzi zen", horrelaxe jo zuen beste munduko atea, eztei antzoki baterat gonbidatua izan balitz bezala.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna, zuri esker izan dira gure erresuman lehen fededun San Pothin, Santa Blandina eta haien lagunak, bai eta herioraino beren fedearen aitorle : emaguzu, otoi, zu beti gehiago ezagutzea, hek bezala erakuts dezagun gure obra oneri esker zure amodioaren indarra.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Ekainaren****Oroimena****3 San XARLES LUANGA eta LAGUNAK,  
Ugandan martirrak**

*Ugandako 22 martirrekin iduri du berriz itzultze bat gertatzen dela lehen mendeetako martirren aro beltzetarat. Asko, berriki kristautuak ziren. Haietarik lau Karlos Luangak bataiatuak zituen doi-doia martirrizatuak izan aitzin. 1886an, Namugongo-n bizirik erre zituzten, gehienak 16 eta 24 urte artekoak ziren. Kizito, gazteenak, hamahiru urte bakarrik.*

**SARTZEA**

*cf. Zuh 3, 6-7.9*

Urrea arragoan bezala garbitu ditu, eta erre-oparia bezala onartu. Konduen emaiteko garaian distiratuko dute. Onginahi eta urrikalmendu bere fededunentzat eta axola bere hautetsientzat.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, martirren odola kristau-hazi egin duzu :  
egizu Karlos Luangak eta haren lagunek  
beren odolaz ondu duten zure Elizak  
beti uzta nasaia eman dezan.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Har izazu, Jauna, gure eskaintzak eta galdeak :  
martir sailduak, zuri esker, nahiago izan zuten hil,  
bekatu egin baino ;  
Egin gaitzazu gu ere aldare huntan  
zure zerbitzari zintzo.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**KOMINIOEA**

*Ps 115, 15*

Mingarri zaio Jaunari bere fededunen heriotzea.

**AZKEN OTOITZA**

**Zure sakramendua hartu dugu, Jauna,  
martir sailduen garaipena ospatuz :  
sakramendu huntan aurkitu zuten beren oinazeak  
jasaiteko indarra ; guk ere hortan aurki dezagula  
gaurko nekeen erdian fede ta maitasun iraunkorra.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Ekainaren****4 Santa KLOTILDA**

*Klotildaren izena agertzen da beti Klovis-en konbertsioa aipu delarik. Ez da hain ezagutua frankoen errege horri eman zizkiola bortz haur eta herstura latzenak jasan zituela bere bizian. Alargundu zelarik (511), ikusi zuen bere seme bat beste anaia baten haurrak sarraskitzen. Atsegabez hebaindua, Tours hirirat erretiratu zen eta han zendu 545ean.*

**Meza : Sainduena (Emazte saindu) (920-921)**

**OTOITZA**

**Beha iezaiozu, Jauna, Frantziako zure jendeari :  
Santa Klotildaren otoitzaren bidez eman zenion fedea,  
emaiozu orain haren bitartez  
zure zerbitzuan leialki jarraikitzea.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Ekainaren****Oroimena****5 San BONIFAZIO, apezpiku eta martirra**

*Winfred fraide ingelesa, zoinari Gregorio II.ak Bonifazio izena eman baitzion, Germaniako apostolu izan zen, frankoen Eliza berregiten zuela. Aita sainduak apezpikuturik (722), herrialde guzian gaindi bermatu zen, diozesak finkatuz eta monasterioak eraikiz, hala nola Fuldakoa. 754an, Dokkum-en (Holanda), bera eta bere berrogeita hamabi lagunak sarraskitu zituzten.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)  
edo Artzainena (Misionestentzat) (899-900)**

**OTOITZA**

**Bonifazio martir saindua gure alde jar dadila, Jauna :  
ahoz erakatsi eta odolaz aitortu zuen sinestea  
guk zintzo atxik dezagun, eta gure egintzetan ager.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**



**Ekainaren****6 San NORBERTO, apezpikua**

*Norberto (1080-1134) Xanten-go kalonje izan zen lehenik (Renania) ; gero, bizimolde kristauago baterat itzuli zen lagun batzuekin. Laon hiriari hurbil (Frantzia), Premontre herrian finkatu zen eta han eraiki Kalonge talde bat (1120). Handik laster artzapezpiku izendatu zuten Magdeburg-en eta Alemaniako Elizaren berrantolatzerari ekin zion.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)  
edo Sainduena (Fraidentzat) (914)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Norberto apezpiku saildua  
otoitzeko gizon eta egiazko artzain egin duzu  
zure Elizaren zerbitzurako :**

**haren bitartez egizu,  
fededunen artaldeak izan ditzan beti  
zure gogoko artzainak eta janari salbagarriak.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Ekainaren****9 San EFRENO, diakonoa eta Eliz erakaslea**

*Efreno diakonoari, Nisibe-ko teologia ikastetxe baten erantzukizuna eman zioten (Turkia). Persiarrak sartu zirenean (363), Edesse-n gorde behar izan zuen bere ikasleekin eta han hil zen (373). Bizia zeraman Jainkoaganat begiramenez betea, ezin gogorkiango heziz bere burua. Beti bere barneko su lirikoa dario ari baitzen, "Izpiritu Sainduaren harpa" izenordea eman zioten.*

**Meza : Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

**Ixur, Jauna, gure bihotzetarart Izpiritu Saildua :  
harek eman zion argi Efren sailduari  
zure misterioak kantu ederrez goresteko,  
eta indar, zu bakarrik zerbitzatzeko.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Ekainaren**

Oroimena

**11 San BARNABE, apostolua**

*Barnabe Ziprekoaren ezagutzak egiten dira Apostoluen Ekintzak irakurriz. Mendekoste ondoan, Jerusalemeko kristau taldean dago. Gero Antiokian, Tarsiako Saul presentatzen duela anaien artean. Elkarrekin joanen dira Asia Hurbilerat Berri ona hedatzeko, baina elkar ezin aditu baten ondotik Barnabe itzuliko da Xiprerat. Lan garrantzitsua egin zuen Eliza misiolaria indartzeko.*

**SARTZEA***Ik. Eg 11, 24*

Dohatsu Apostoluen taldean sartzea  
merezitu zuen gizon saildua :  
gizon ona zen, Izpiritu Sainduz eta fedez betea.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Barnabe saildua, fedez eta Izpiritu Sainduz betea,  
zuk berexarazi zenuen  
paganoeri emaitako salbamenduaren berri ona :  
egizu beldurrik gabe predikatu zuen Ebanjelioa  
orain ere zintzoki zabaldua izan dadin hitzez eta obraz.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Zure benedizioneaz, Jauna, saildu egizu gure eskaintza :  
eta horren bidez pitz gu baitan zure maitasunaren sua,  
su horrek piztu baitzuen Barnabe saildua  
paganoeri Ebanjelioaren argia eremaiterat.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)**

**KOMINIONEA***Jn 15, 15*

Ez dauzuet gehiago, zerbitzari erraiten, zerbitzariak  
ez baitaki Nagusia zer ari den ; adiskide erraiten dauzuet  
ene Aitarenganik ikasi guziak ezagutarazi baitauzkizuet.

**AZKEN OTOITZA**

**Betiereko biziaren ageria harturik, Jauna,  
apalik eskatzen dauzugu :  
Barnabe apostolu dohatsuaren ohoretan  
orain misterio huntan ospatu duguna,  
egun batez argi betean har dezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Ekainaren****Oroimena****13 San ANTONIO Paduakoa, apez eta Eliz erakaslea**

*Antonio Lisboan sortu zen (Portugal), 1195a inguruan. 1221ean, Asisen da San Frantsesekin, haren bizimoldea gustatu baitzitzaion. Predikari paregabea, Frantziarar igorri zuten, kataroen erlijioa karraskan zabaltzen ari zelarrik. Brive-la-Gaillarde hirian komentu bat eraiki zuen. Italiarar itzulirik, Padua-n zendu zen, Garizuma predikatu ondoan (1231).*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
zure herriari eman diozu Paduko Antonio saindua  
Ebanjelioaren predikari eta behar-orduetan ongi-egile :  
egizu, hura lagun, giristino bizi-moldeari jarraikirik,  
gaitz guzietan sendi dezagun zure laguntza.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Ekainaren****19 San ERROMUALDO, abadea**

*951n sortua, gaztaro barreiatu baten ondotik, Erromualdo fraide egin zen Ravenne-n; bainan eremitauenganat hurbildu nahi izan zuen. Kamaldoli-n jarri aitzin (Apenins, Italia), luzaz bilatu zuen bere bidea. Zendu 1027 alderat. Kamaldolitar kontsokratuek, hiru bizimoduren artean hauta dezakete : beneditarren bizi ber-bera eraman, bakarka hetsirik egon, edo bierarteko bide bat hautemanen.*

**Meza : Sainduena (Abade bat) (913)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Erromualdo sainduaren bidez  
ermitau bizi-molde berri bat sortu zenuen zure Elizan :  
egizu, gure buruari uko eginez eta Kristori jarraikiz,  
ardiets dezagun zerurat igaiteko zoriona.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Ekainaren**

Oroimena

**21 San LUIS GONZAGAKOA, fraidea**

*Gonzagako Luis (1568-1591) zendu zen hogeita hiru urtetan, bizkarren eraman zuen lepradun batek kutsatu baitzuen. Bizi laburra bezain erdugarria haatik : Mantue ondoko Kastiglionekeo jauregian (Italia), halaber Erromako Jesuiten nobiziado zelarik, beti garbitasuna eta zuzentasuna bilatuz. Bertute horiek erdietsi zituen bere burua menperatuz lehia heroikoz, goiko maitasun iturritik xurgatuz.*

**SARTZEA**

Eskuak eta bihotza garbi dabilana

*Ik. Sal 24 [23], 4.3*Iganen da bai Jainko Jaunaren mendiraino,  
Dagon tokian goiteko.**OTOITZA**

Zeruko dohainen emaile ziren Jauna,  
Gonzagako Luis gaztea baitan bat egin dituzu  
bihotzeko garbitasuna eta penitentziazko bizitza :  
Egizu, haren otoitz eta merezimenduez,  
garbitasunean ez bada,  
penitentzian bederen haren iduriko izan gaitezen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN**

Egizu, Jauna, eztei-jauntzitan, Luis dohatsua bezala,  
jar gaitezen zure mahai sainduan :  
sakramendu hunek graziaz aberats egin gaitzan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**OTOITZA****KOMINIONEA**

Eman diote zeru-ogi,

*Sal 78 [77], 24-25*

Aingeru-ogi dute gizonek jan nasaiki.

**AZKEN OTOITZA**

Aingeruen ogiaz hazten gaituzuneri emaguzu, Jauna,  
bizitze garbiaz zu zerbitzatzea,  
eta egun ohoratzen dugun sainduaren idurira,  
beti eskerrak emaiten irautea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Ekainaren****22 San PAULINO Nola-koa, apezpikua**

*Paulino kontsula (355-431) eta Teresa bere emaztea, eremu handien jabe ziren Akitanian, Espainian eta Italia hegoaldean. Gristinoturik (393), utzi zituzten ontasunak eta Nola deitu hirian jarri ziren (Napolitik hurbil, Italia) eta han Paulino apezpiku egin zuten (409). Horko Eliza kudeatu behar zuen hogeita bi urtez, zioela : “Neure lurreko ontasun guziez, ordaintzen nuen zeru esperantza”.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Paulino apezpiku dohatsua,  
arimen alderako arta sainduan  
eta behartsuen alderako amodioan  
miresgarri egin duzu :**

**Emaguzu haren merezimenduak ospatuz,  
maitasunean haren iduriko izan gaitzen.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

---

**Egun berean San JOANI FISHER, apezpikua,  
eta TOMAS MORE, martirrak**

*Joani Fisher (1469-1535) Rochester-eko apezpikua eta Tomas More (1477-1535) Ingalaterrako kanzilerra, Henrike VIII.ak hiltzerat kondenatu zituen, haren dibortzioa batetik eta bestetik erregeren nagusigoa Ingalaterrako Elizaren gainean ez onartzeagatik. Bi sainduak kultura handikoak eta kristau sutsuak ziren. Joani apezpikua, eztabaidatzaile bikaina zen ; More kanzilerra berriz, ezkondua eta aita familiakoa, idazle famatu eta jakintza handiaren jabea. Biek beren martirioa onartu zuten grazia bat bezala.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zuk hala nahiz,  
martirren aitormena da egiazko fedearen betea :  
Joani Fisher eta Tomas Moren bitartez emaguzu,  
ahoz aitortzen dugun fedea  
egintzetan ere agertzeko indarra.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Ekainaren**

Bestaburua

**24 Jondoni JOANI BATISTAREN SORTZEA**

*Elizak, zoriontsu, ospatzen du Joanes Batistaren sortzea, Argiari (Salbatzaileari), hots, Aro Berriari bidea ideki behar ziona. Jesusek berak azpimarratu du Joanes Batistaren maila parerik gabea : “Egiaz diotsuet : emazteagandik sortuetan Joanes Bataiatzailea baino handiagorik ez da.” (Mt 11,11).*

**Bezpera-arratseko meza****SARTZEA***Lk 1, 15.14*

Hau, handi izanen da Jaunaren aitzinean,  
Izpiritu Sainduaz betea bere amaren sabeladanik,  
eta anitzak haren sortzeaz bozkariatuko dira.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

Egizu, Jainko guziahalduna,  
zure familia salbamenduko bidetik joan dadin :  
Kristoren bide-egile, Jondoni Joaniren deiari jarraikiz,  
bakean aurki dezan harek aitzinetik erakutsi zuen  
zure Seme, Jesu Kristo gure Jauna,  
Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Begi onez ikus, Jauna, zure herriak  
Jondoni Joani Bataiatzailearen besta egunean  
egiten dauzun eskaintza :  
sakramendu huntan ospatzen duguna,  
bete dezagula gure bizitzean, zure zerbitzari izanez.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazio berezia, ondoko mezan.

Esker Onezko otoitzetan : parte bereziak.

**KOMINIONEA***Lk 1, 68*

Jainko Jaunari eskerrak eta laudorio :  
Izraeli eskua zabal jausten zaio.

**AZKEN OTOITZA** Zeruko mahaitik jan dugunak, Jauna, lagun gaitzala  
 Joani Batista dohatsuaren otoitz indartsuak :  
 harek erakutsi baitzaigun Kristo,  
 gure bekatuak kenduko zituen Bildotsa,  
 harek ere gure alde otoitz egin diezaiola  
 zure Seme, Jesu Kristo gure Jaunari  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.  
*Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)*

## Eguneko meza

**SARTZEA** Gizon bat izan da Jainkoak igorria : izena zuen Joanes.  
*Ik. Jn 1, 6-7 ; Lk 1, 17* Lekuko etorria zen, argiaren lekuko izan zadin,  
 Jaunari apailatzeko populu bat hari dagona.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Jainko Jauna, nahi izan duzu  
 Joani Batista dohatsuak zure herria prestatzea  
 Kristo Jaunaren etortzerako :  
 Emaiozu zure familiari bihotzeko bozkarioaren dohaina,  
 eta gida itzazu fededun guzien gogoak  
 salbamendurako eta bakerako *bidean*.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

**ESK. GAIN. OTOITZA** Zure aldarean ezarri ditugu, Jauna, emaitza hauek  
 Jondoni Joaniren sort-eguna behar bezala ospatzeko :  
 harek, aitzinetik erran zuen  
 etortzekoa zela munduaren Salbatzailea,  
 bai eta erakutsi ere etorria zela,  
 zure Seme, Jesu Kristo gure Jauna,  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

**PREFAZIOA** *Bidegilearen egitekoa*

**B**ai, egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saindu,  
Jainko guziahaldun betierekoari,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Haren bide-egile den Joani Batista,  
amen semeetan handiena denaren baitan,  
zure miragarriak goresten ditugu.

Sortu aitzin, pozez jauzi egin zuen,  
gizon-emazte guzien Salbatzailea etorri zitzaionean ;  
sortzean bozkario handi bat ekarri zuen,  
eta berak bakarrik, profeta guzien artean,  
erakutsi Kristo, Jainkoaren Bildotsa.

Hola saindutu beharrak ziren uretan,  
bataiatu zuen bataioaren Egilea,  
eta bere odola ixuriz,  
aitormenik ederrena eman zion Kristo Jaunari.

Horrengatik, zeruko indar guziekin  
lurrean beti goresten zaitugu,  
zuri, Jainko guziz handiari gelditu gabe kantatuz :  
Saindu ...

**Esker Onezko otoitzetan : parte bereziak**

**KOMINIONEA** Hilen gaupean ilun daudenen goiz-iguzki,  
*Ik. Lk 1, 78* Gure Jainkoa jautsia zaigu dena bihotz.

**AZKEN OTOITZA** Zeruko Bildotsaren mahai*an*  
indar-berritu gaituz*u*, Jauna :  
Zure Elizak, Jondoni Joani Batistaren sortzea  
ospatzen duen egun huntan, ezagut *dezala*,  
etortzekoa *zela* harek erakutsi zion zure Semea,  
sortze berria ekarri dion Jesu Kristo gure Jauna,  
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (504, 21)**



**Ekainaren****27 San ZIRIL Alexandriakoa,  
apezpiku eta Eliz erakaslea**

*San Ziril Alexandriakoaren bizia (370-444) lotua da oroz gainetik Efesoko kontzilioari, han Nestorio kondenatu baitzuen ez ziolakotz Mariari “Jainkoaren Ama” izendapena onartzen (431). Ziril ez da gizon erabilerraz haietarik bainan hari doakion deitura geldituko da : “Mariaren sortze misteriozkoaren kantatzaile lirikoa”.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Ziril Alexandriko apezpiku sailduari  
ezin garaituzko indarra eman zenion  
Maria Birjina guziz dohatsua  
Jainkoaren ama dela argi erakusteko : Emaguzu,  
egiazki Jainkoaren ama dela sinesten dugunak,  
salba gaitzan Jesu Kristo zure Seme gizon eginak.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Ekainaren****Oroimena****28 San IRENEO, apezpiku eta martirra**

*Ireneo (130-200 alderat) Smyrne-koa zena, Lyon-eko apezpiku egin zuten San Pothinen martirioaren ondotik (177). Egiazko Artzain, artaldeaz grinatua zebilen, Galian Berri ona zabaltzeaz osoki arduratua, bainan fedea bere osotasunean begiraturuz. Bere idazkietan Jainkoaren goratasuna eta nagusitasuna argi eta garbi dauzka, halaber gizonaren eginbideak eta Elizaren misterioa.*

**SARTZEA***Ik. MI 2, 6*

Egiazko irakaspena zuen ahoan; haren ezpainetan ez zen gezurrik aurkitu. Leial eta zuzen jokatu zuen Jaunarekin, jende asko gaixakeriatik urruntzen zituela.

**OTOITZA** Jainko Jauna, Ireneo martir dohatsuari eman zenion egiaren erakustea eta Elizaren bakea finkatzea : berri ezazu, haren bitartez, gure fedea ta maitasuna, indar guziez lehia gaitezen beti gizakien arteko batasunaren egiterat.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN. OTOITZA** Ireneo sainduaren besta ospatzen dugula, Jauna, pozik eskaintzen dauzugu sakrifizio hau : Eman diezazula zuri goresmen, eta guri egiaren maitasun, garbi atxik dezagun Elizaren fedea, eta sendo haren batasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Nerekin bat egon zaitezte, ni zuekin bezala., dio Jaunak.  
*Jn 15, 4-5* Nerekin bat egoiten denak, ni harekin bezala, fruitu anitz emanen du.

**AZKEN OTOITZA** Jaun urrikaltsua, kominione hunen bidez, handi ezazu gu baitan fedea : fede hori heriotzeraino begiratzeak Ireneo apezpiku sainduari ospea eman zion bezala zinez fede berari jarraikitzeak ardiets diezagula guri saindu izaitea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Ekainaren

Bestaburua

### 29 Jondoni PETRI eta PAULO, apostoluak

*Petri eta Paulo Elizaren sortzaile, zutabe, zurkaitz ; bi ikuspide bainan elkar osatzen dutenak miresgarriki. Desberdinki egin zituzten Jaunaren ezagutzak eta hori senti daiteke eraman duten misiolari bizian. Bainan biek berdin muintaraino barna dauzkate fedea eta Kristoren amodioa. Petrik erranen du : "Jauna, denak badakizkizu eta badakizu maite zaitudala." Paulok oihartzunez bezala : "Alabaina, neretzat bizitzea Kristo da." Biek odola isuriko dute : Petrik Erroman, 64a inguruan eta Paulok 67an.*

## Bezpera-arratseko meza

### SARTZEA

Petri apostoluak eta Paulo, paganoen erakasleak daukute zure Legea erakatsi, Jauna.

«Aintza zeruetan» erraiten da

### OTOITZA

Petri ta Paulo apostolu dohatsuen otoitzak lagun gaitzala, Jauna :  
haien bidez eman zenizkion Elizari zure graziaren lehen dohainak, hek berek orain ardiets diezagutela salbatzeko behar dugun laguntza.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

### ESK. GAIN. OTOITZA

Aldarerat ekarri dauzugu, Jauna, gure eskaintza, Petri ta Paulo apostolu sailduen besta ospatzean ; guhaurek ez dugula deus merezi, dakigunaz geroz, bozkario handiagoa emaiten dauku zure bihotz onetik datorkigun salbamenduak. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazio berezia, ondoko mezan.

### KOMINIONEA

*Jn 21, 15.17*

Joanesen seme ziren Zimun,  
Horiek baino geiago maite ote nauzu ?  
Jauna, zuk denak badakizu,  
Badakizu ba, Jauna, nik maite zaitudala.

### AZKEN OTOITZA

Apostoluen erakaspenez argitu dituzu, Jauna, zure fededunak :  
zure sakramenduak, otoi, indar-berritu gaitzala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 18)

## Jondoni PETRI eta PAULO apostoluak

Bestaburua

### Eguneko meza

#### SARTZEA

Eskerrak eman ditzagun Petri ta Paulo dohatsuen besta huntan. Beren odola ixuriz, Eliza landatu dute, Jaunaren kaliza edan, eta haren adiskide egin dira.

«Aintza zeruetan» erraiten da

#### OTOITZA

Jainko Jauna,  
bozkariozko besta saindu hau eman daukuzu  
Petri ta Paulo apostolu sainduen ohoratzeko :  
Emaiozu zure Elizari,  
haienganik fedearen lehen berria izan zuen *bezala*,  
beti haien erakaspenari zintzoki jarraikitzea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

#### ESK. GAIN. OTOITZA

Zure apostoluen otoitzak, Jauna,  
lagun dezala ekarri dauzugun *eskaintza* :  
eta ardiets diezagula argi ta indar  
sakrifizio hunen *eskaintzeko*.

Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

#### PREFAZIOA

*Petriren eta Pauloren egiteko bikoitza Elizan*

[kantuz : 615]

**B**ai egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saindu,  
Jainko guziahaldun betierekoari.

Zuri esker ditugu egun goresten  
Petri ta Paulo zure apostoluak :

Bat, fedearen lehen aitorlea,  
bestea fede beraren argitzailea.

Petri, Izraeldarrak bilduz lehenik, Eliza eraiki zuena,  
Paulo, salbamenduko berri ona  
paganoeri ezagutarazi ziena.

Biek, bakoitzak bere graziaren arabera,  
lan egin dute Kristoren familia bakarra biltzeko,  
biak orain ospe berean bilduak ditugu,  
gure goresmenen hartzeko.

Beraz, saindu eta aingeru guziekin batean  
goresten zaitugu, beti eta beti diogula : *Saindu ...*

**KOMINIONEA***Ik. Mt 16, 16.18*

Petrik erran zion Jesusi : «Zu zira Kristo, Jainko biziaren Semea.»  
Jesusek orduan : «Zu zira Petri,  
eta harri horren gainean jarriko dut ene Eliza.»

**AZKEN OTOITZA**

Sakramendu hunen bidez indar-berritu gaituzuneri,  
Jauna, emaguzu,  
lehen girstinoak bezala bizi gaitezen *Elizan* :  
ogiaren zatitzean eta apostoluen erakaspenetan *iraunez*,  
bihotz bat eta arima *bat* izan gaitezen,  
zure maitasunean sendo.  
Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

**Benedizione nagusia erabil daiteke**

**BENEDIZIONE NAGUSIA**

Benedika zaitzatela  
Petriren aitormen salbagarrian finkatu  
eta haren bidez Elizaren fede sendoan  
oinarritu zaituzten Jainko guziahaldunak.

**℟.** Amen.

Paulo dohatsuaren hitzaldiez argitu zaituztenak  
erakuts diezazuela anaiak Kristorenganat ekartzen,  
harek egin zuen bezala.

**℟.** Amen.

Petrik giltzez, Paulok hitzez, eta biek beren otoitzez, eraman gaitzatela batek gurutzeaz eta besteak ezpataz irabazi zuten zerura.

**R.** Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

**R.** Amen.

## Ekainaren

30

### ERROMAKO LEHEN MARTIRRAK

*Atzo, Jondoni Petri eta Paulo handizki ospatu ondoan, egun omentzen dira, 64an, Neron inperadoreak, Erroman, sarraskitu zituen giristinoak. Aitzakiaz, Erromako sutearen hobendun eginik, gaurko Batikanoko baratzean gertatu zen odol isurtze deitoragarria. Tazite-k dioenaz sekulakoak suntsitu zituzten. Oraingo ustez, Petri ere orduan erahil zuten.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna, martirren odolaz edertu dituzu  
Erromako elizaren hastapen miresgarriak :  
egizu, heriotzeko orduan izan zuten maitasun-garrak  
ardiets diezagun ezin hautsizko indarra  
eta garaipenaren bozkarioa.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## UZTAILEKO SAINDUAK

## Uztailaren

Besta

## 3 San TOMAS apostolua

*Hiru ebanjelio sinoptikoek kondatzen dute San Tomas Jesusen Hamabietarik zela. Laugarrenak hobeki ezagutarazten digu. Azken afarian Tomasek ohar bizi bat egiten diolarik, Jesusek ihardesten dio : « Ni naiz bidea, egia, bizia » Jesusen piztearen berri emaiten diotelarik, nola sinesgogor dagon, Arrapiztuak bere sahetseko zauri irekia erakusten diolarik : « Nire Jaun eta Jainkoa ! » oihuztatzen dio.*

## SARTZEA

Zu zaitut Jainko, kantuz nago,

*Ik. Sal 118 [117], 28.21* Zu salbatzaile, zuri esker on, laudorio.

«Aintza zeruetan» erraiten da

## OTOITZA

Jainko guziahalduna, pozik ospatzen dugularik  
Tomas apostolu dohatsuaren besta,  
egizu haren laguntzak beti azkar gaitzan,  
eta zure bizia izan dezagun,  
harek Jaun eta Jainko aitortu zuen Jesu Kristoren  
izenean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## ESK. GAIN.

## OTOITZA

Zure zerbitzariak zor dauzugun goresmena  
bihurtzen dauzugu, Jauna, eta apalik eskatzen :  
gure baitan zain ditzazun zure dohainak,  
Tomas dohatsuaren besta egunean  
eskaintzen dauzugun goresmen-opariaren bidez.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

## KOMINIONEA

Zure eskua emazu hor, ikus itze-ziloak :  
ez izan sinesgogor, bainan bai sinesdun.

*Ik. Jn 20, 27*

## AZKEN OTOITZA

Jauna, zure Seme bakarraren gorputza  
hartu dugu egiazki sakramendu huntan :

Tomas apostolu sailduarekin batean  
gure Jaun eta Jainko sinesten duguna,  
gure bizitze guziaz ere aitor dezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)**

## Uztailaren

### 4 Santa ELIXABET Portugalekoa

*Aragoiko Elixabet (1271-1336) Andere espos dohakabea izan zen, bere senar atseginzaleak, Portugaleko Denis erregeak, eskarniatua. Alaba eta suhia galdu zituen. Ikusi behar izan zuen semea aita erregeari jazartzen. Atsegabeen artean, otoitzez eta baruraldiz saiatzen zen bakea egiten. Alargundurik frantziskotarrean heren-ordenan sartu zen.*

**Meza : Sainduena (Karitatezko obretan) (918)**

#### OTOITZA

Bakearen iturri eta maitasunaren pizgarri ziren Jainkoa,  
Elixabet sailduari eman zenion  
hasarre zirenen baketzeko ahala :  
emaguzu, haren bitartez, bakearentzat lan egitea,  
Jainkoaren seme izena merezi dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## Uztailaren

### 5 San ANTONIO MARIA ZAKARIA, apeza

*San Antonio María Zaccaria (1502-1539) Lonbardiako Cremona hiriko apez izan zen. Jondoni Paulok ireki ildo apostolkoa segitzeko, apezak bildu zituen bere inguruan, Milanen. Fraideak izan gabe, erregela baten arabera bizi ziren, elgarren artean loturik, boto batzuen bidez. Nola San Barnabe parropiako elizako zerbitzuko ziren, geroago Barnabetarrak deitu zituzten.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)  
edo Sainduena (Gazte moldatzaile) (919)**

#### OTOITZA

Emaguzu, Jauna, Paulo apostoluari bezala,  
Jesu Kristoren ezagutza paregabea :  
hortan eskolaturik predikatu baitzuen beti  
Antonio Maria Zakariak salbamenduko hitza Elizan.  
Zure Seme ...



## Uztailaren

### 6 Santa MARIA GORETTI, birjina eta martirra

*Erroma hegoaldeko Agro Pontino eskualdean sortu zen, familia behartsu batetan. Hamabi urte baizik ez zituen, auzoko gazte baten eskabideak bastertu izan behar zituelarik. Ukatzearekin, mutikoak, jaidurak eroturik, neska jo zuen puntzoi ukaldika. Biharamunean zendu zen, erahiltzailea barkaturik «Jesusen amoreagatik» (1902). 1950an saindu egina izan zen ama xaharraren eta erahiltzailearen aurrean*

**Meza : Martirrena (Birjina martir bat) (887)  
edo Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna,  
bihotza garbi egiten baituzu eta garbi maite,  
Maria Goretti gazteari eman diozu  
martir izaiteko grazia, eta sariztatu duzu,  
garbitasuna heriotzeraino begiratu duelakotz.  
Emaguzu, haren bitartez,  
zure manamenduen betetzeko indarra.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## Uztailaren

### 9 San AGUSTIN ZHAO RONG, apeza, eta LAGUNAK, Txinan martirrak

*San Agustin Zhao Rong, apeza eta bere lagunak, martirrak. Agustin (1746-1815) izan zen lehen txinatar apeza martirizatua. Soldado zelarik giristinoen kontrako jazarraldien testigu eta eragile izan zen. Haien lekukotasunak hunkiturik, 30 urtetan bataiatua izan zen, eta bost urte berantago apeztua. Haren kuraia eta gaitasunaren gaitik lurralde zailenen ebanjelizatzerak bidali zuten. Arrastatua izan zen eta presondegian hil zen ahiduraren ahiduraz.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna, Agustinen eta Txinako lagun martir  
sainduen fede-aitormenaren bidez,  
molde miresgarrian sendotu zenuen zure Eliza ;  
egizu, zure herriak Zuganik ukan misioneari leial izanez,  
lor dezala, bai bere askatasuna handitzea,  
bai munduaren aitzinean egiaren lekuko izaita.  
Zure Seme ...

**Uztailaren**

Besta

**11 San BENITO, abadea, Europako patroina**

*San Benoat (Benedikto), Nursian, 480 inguruan sortua . Erroman zeramazkin ikasketak gelditu zituen, ermitau gisa bizitzera joateko, Subiaco-ko harpe zilo batetara. Laster Subiaco utzirik, Monte Cassinora joan zen eta abadia famatua hor berean sortu. Hor zuen ere beneditar ordenaren erregela idatzi. Honenbestez deitua da Mendebaldeko fraideen aita-lehena. 547 inguruan zendu zen. Paulo VI Aita Sainduak, 1964an, Europako patroin aldarrikatu zuen.*

**SARTZEA**

Gizon agurgarri bat izan zen, Benoat, graziaz eta izenaz benedikatua; Bere etxea eta burasoen ontasunak utzi eta, Jainkoaren nahia bakarrik gogoan, saindutasunean bizi nahi izan zuen.

«Aintza zeruetan» erraiten da.

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
Benito saindua erakasle miresgarri egin duzu,  
zure zerbitzari izaiten ikasi nahi dutenentzat :  
egizu, zu gauza guziak baino maiteago izanez,  
bihotza zabal ibil gaitezen zure manamenduen bidetan.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.  
OTOITZA**

Begi onez ikus, Jauna, Benito sainduaren besta egunean egiten dauzugun eskaintza :  
emaguzu, hura bezala, zure bila bakarrik ibiliz,  
ardiets dezagun zure zerbitzuan batasun eta bake.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Sainduena I (446)**

**KOMINIONEA**  
*Ik. Lk 12, 42*

Huna etxegizon leial eta zentzuduna,  
nagusiak bere sehien buru ezarri duena  
ogi bihi neurria tenorez emaiteko.

**AZKEN OTOITZA** Betiereko biziaren ageria harturik, Jauna,  
 umilki otoitz egiten dauzugu :  
 Benito sainduaren erakspeneri jarraikiz,  
 zu zaitzagun otoitzean zerbitza,  
 eta gure anaiak maitasun kartsuz maita.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)**

## Uztailaren

Oroimena

13

San HENRI

*Bavarian sortu zen, 973an. Erroman, 1014ean, mendebaldeko enperadore izendatu zuten. Henri II. 1024 urtean zendu zen, Bambergan (Alemania). Berak eraikitako katedralean ehortzi zuten. Cunegonda, haren Luxenburgtar emazte printzesarekin, monasteriozko bizia eramán zuten. Lurtar karguak ahantzi gabe, bizkorki lan egin zuen Germania eta Italiako Eliza erreformatzeko. Berak eskaturik zuen Benedikto VIII.-k «Credo»-a sartu erromatar mezan.*

**Meza : Sainduena (Saindu bat) (911-912)**

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
 Henri saindua zure grazia nasaiez bete duzu  
 eta lur huntako errege-alkitik zeruko ospetat altxatu :  
 egizu, haren bitartez, munduko gauza aldakorren artetik  
 bihotza garbi joan gaitezen zureganat.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

## Uztailaren

### 14 San KAMILO LELLIS, apeza

*Kamilok (1550-1614) bizitza nahasia eraman zuen, Erromako sendagaitzen hospitalean sartu aitzin. Bazter utziak ziren erien ikusteak hunkitu zuen eta erizain egin zen. Inguruko lagun batzuekin bildurik, 1582an, "Erien zerbitzari" bilakatu ziren. Apeztu eta Kamilok bere bizitza iragan zuen Jesu Kristoren sufrimenduzko kide gisa.*

**Meza : Sainduena (Karitatezko obretan) (918)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna, erienganako maitasun miragarritz  
apaindu duzu Kamilo apez saindua :  
ixur iezaguzu, haren merezimendueri esker,  
zure maitasun izpiritua, gure haurridetan zu zerbitzaturik,  
heriotzeko orduan zureganat joan gaitezen bake osoan.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

### Egun berean JOANES MAIORGA dohatsua eta bere lagunak

*Donibane Grazin sortu zen. (- 1570an zendua). Jesusen konpainian sartu zen, misionest izaiteko gogoarekin. Calvinistek erahil zuten Kanarias ugarte inguruetan, beste jesuitar adana batekin India Berrietarat (Ameriketara) zoatzilarik. Uztailaren 15an ohoratzen du Elizak. Bainan Baionako Diozesak uztailaren 14an eskaintzen dio ospakizun berezia.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)**

#### OTOITZA

Egizu, Jauna,  
ardiets dezagun gure otoitzen fruitu pozgarria,  
Joanes Maiorga eta haren lagun martir sainduen  
urteko besta eginez,  
heiek bezala atxik dezagun azkar gure fedea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Uztailaren****Oroimena****15****San BONABENTURA, apezpiku eta Eliz erakaslea**

*San Frantzisko Asiskoaren dizipulu izanagatik sainduaren biografia idatzi zuen. Anaia Txikien Ordenako Ministro orokor zelarik anaidia berregituratu zuen. Bognoreako Bonaventura (1221-1274) barnatasun handiko teologoa izan zen. San Agustinen pentsamenduaren ildoari jarrakiz "Arimaren ibilbidea Jainkoari buruz" aztertu eta irakatsi zuen. Albanoko apezpiku eta kardinale egin zuten. Lyonen, kontzilioan bertan, zendu zen*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)  
edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahalduna,  
Bonabentura apezpiku sainduaren besta egun huntan,  
emaguzu, haren erakaspen ederrez balia gaitezen,  
eta haren maitasun kartsuari beti jarraik.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Uztailaren****16****KARMEL MENDIKO MARIA BIRJINA DOHATSUA**

*Aspaldiko garaietako Elias profetari lotua da Karmel mendiko orroitzapena. XIII. Mendean, gizon batzuk, profeta bezain sutsuak, Jainkozko biziaren lehiak harturik, ermitau bizimodua hasi zuten. Gero elkartu ziren erregela amankomun baten pean (1209). Hau izan zen Karmel ordenaren iturburua. Mariaren, Nazaretoko birjinaren*

**Meza : Maria Birjina dohatsuarena (864-871)**

**OTOITZA**

**Maria dohatsu beti birjinaren otoitzak  
lagun gaitzala, Jauna,  
eta haren bitartez hel gaitzela  
egiazko mendia den Kristo gure Jaunarenganat.  
Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Uztailaren****20 San APOLINAR, apezpiku eta martirra**

*Bigarren mende bukaeran apezpiku egin zuten eta Ravenarat bidali, fedea predikatzeko. Bere irakaskuntzaren kontra oldartu zitzaizkion lekuko paganoak. Preso sartu zuten, torturatu eta desterratu bizpahiru aldiz. Desterru bakoitza baliatu zuen Kristoren aberastasun mugagabearen berri emaitako. Azkenean, Ravenarat itzultzerakoan, erahila izan zen eta horrela martir gisa ohoratua da.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (880-881)  
edo Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Gida itzazu zure fededunak, Jauna,  
betiko salbamenaren bidetik,  
Apolinar apezpiku sainduak  
bere erakaspenez eta martirioaz erakatsi bezala ;  
egizu, haren otoitzari esker zure agintzetan zintzo  
iraunez, aintzazko korona lor dezagula harekin batean.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Uztailaren****21 San LAURENDI Brindisikoa, apez eta Eliz erakaslea**

*Veronako kaputxinoa. Ez zen bakarrik kulturaz gizon paregabea, egitatez ere handia izan zen. San Frantziskoren egiazko semeatarik, sinplea eta atsegina. Europa erdiguneko Eliza Katolikoaren erreformatzen ari izan zen artoski lanean. Hungarian, Turkoen kontrako gurutzadaren arima izan zen (1601).*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
zure izena goresteko eta gizakiak salbatzeko,  
eman diozu Brindisiko Laurendi sainduari  
zuhurtziazko eta indarrezko izpiritua :  
Emaguzu guri ere, izpiritu bera,  
zer egin jakin dezagun, eta jakin ondoan bete.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

## Uztailaren

Besta

## 22 Santa MARIA MADALENA

*Maria Madalena, bekataria, Jesusek barkaturik, haren zerbitzuko eman zen suharki. Apostoluak ihes egin zutelarik, Jesusen kurutzearen oinetan egon zen : Maria Jesusen amarekin, dizipulu maitatuarekin eta emazte zenbaitekin. Jesus agertu zitzaion Bazko goizean. Lehena izan zen Jesusek dizipuluari bidali ziena bere piztearen berri emaiteko. Honen gaitik San Agustinek deitu du "Apostoluen apostolua".*

## SARTZEA

*Jn 20, 17*

Jaunak erran zion Maria Madalenari :  
 Zoazi zure anaieri erraiterat :  
 Banoa ene Aitaren eta zuen Aitarenganat,  
 ene Jainkoaren eta zuen Jainkoarenganat.

«Aintza zeruetan» erraiten da

## OTOITZA

Jainko Jauna, zure Seme bakarrak  
 nehori baino lehen Maria Madalenari eman zion  
 Bazko-pozaren berria zabaltzeko *manua* :  
 Egiguzu, haren otoitz eta etsenpluen bitartez,  
 Kristo hiletarik piztuaren berri *emaita*,  
 eta bera zure aintzan errege *ikustea*.  
*Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean*  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

## ESK. GAIN.

## OTOITZA

Onar, Jauna, gure eskaintzak,  
 Maria Madalena dohatsuaren *besta* huntan :  
 zure Semeak ere bihotz onez hartu zuen  
 Madalenak amodioz egin *ziona*.  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

## PREFAZIOA

*Apostoluen Apostolu*

Jauna zuekin.

℞. Eta zure izpirituarekin.

Gora bihotzak.

℞. Jaunari dauzkagu.

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℞. Egoki da eta zuzen.

**E**goki da, bai, eta zuzen, on eta salbagarri,  
 guk zu, Aita guziahalduna,  
 gauza guzietan goratzea,  
 eta aitortzea zure urrikia  
 zure ahalmenaren parekoa dela,  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hura baratzean agertu zitzaion Maria Madalenari.  
 Hunek maite zuen Jesus hemengo bizitzaldian,  
 gurutzean hiltzen ikusia zuen,  
 hilobiratua zegoenean haren bila joan zen,  
 eta hilen artetik berpiztua adoratzen  
 lehenbizikoa izan zen.

Jesusek, piztu zelarik,  
 apostoluen aurrean apostolu-eginkizuna emanaz  
 ohoratu zuen,  
 bizi berriaren berri ona  
 munduko azken mugetaraino hel zadin.

Horrengatik, guk ere,  
 aingeru eta saindu guziekin batean,  
 goresten zaitugu, Jauna, poz betean [erranez] kantari :  
*Saindu ...*

**KOMINIONEA***2 Ko 5, 14-15*

Kristoren amodioak ez dauku bakerik uzten,  
 bizi direnak ez daitezen gehiago bizi berentzat,  
 bainan bai haiendako hil eta piztu denarentzat.

**AZKEN OTOITZA**

Kominione hunek, Jauna,  
 ixur beza gutarat zure amodioa,  
 Maria Madalena Kristo bere Jaunari  
 lotu zuen amodio *handia*.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)**



## Uztailaren

Besta

## 23 Santa BRIJITA, serora, Europako zaindaria

*Brigita (1303-1373) Suediar aristokraziakoa zen. Senar giristino suhar batekin ezkondu zen. Zortzi haur eman zizkion. Senarra hil zitzaionean Jesu Kristoren pasionearen errebelazioaren errezebitzen hasi zen. Errebelazio horiekin guziz bat egiten zuela. Bere azken hogeita hiru urteak Erroman iragan zituen, otoitzean eta gabezian.*

## SARTZEA

Poztu gaitezen denak Jauna baitan,  
Santa Brigitaren sorteguna ospatzean :  
egun handi huntan pozten dira aingeruak,  
eta Jainkoaren Semea goستن دute.

«Aintza zeruetan» erraiten da.

## OTOITZA

Jainko Jauna,  
zuk bizitzako bide desberdinetan barna  
eraman zenuen Santa Brigita,  
eta zure Semearen pasionea gogoan erabiliz,  
Gurutzearen ezagutza erakatsi zenion molde harrigarrian ;  
egizu, zure deiari leialki jarraikiz,  
zu bila zaitzagun gauza guzietan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## ESK. GAIN.

## OTOITZA

Jainko bihotz ona,  
gizaki zaharra desegin nahi izan duzu  
Santa Brigitaren baitan  
eta gizaki berria sortu, zure idurira ;  
haren merezimendueri esker,  
berri gaitzazu hura berritu zenuen bezala,  
atsegin izanen zaizun eukaristi oparia eskain  
diezazugun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Sainduena II (447)**

## KOMINIONEA

Sal 45 [44], 8

Zuzena maitatu duzu, gaizkia hastiatu, horrengatik Jainkoak,  
zure Jainkoak, bozkario-olioz gantzutu zaitu.  
lagunen artetik hautatu.

**AZKEN OTOITZA** Jainko guziahalduna,  
sakramendu hunek indarberriturik,  
egizu, Santa Brigita etsenplutzat hartuz,  
guk, zure zerbitzariak,  
Zu gauza guzien gaineratik bila zaitzagun ,  
eta mundu huntan bizi girenak  
oraidanik gizaki berri izan gaitezten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)**

## Uztailaren

### 24 San SARBELIO MAKHLÛF, apeza

*Libandar Maronita Ordenako fraidea zen (1828-1898) Libaneko saindu herrikoienetarik da. Apez eta ermitau bizi izan zuen, eukaristiak hazia, barur aldietan eta penitentzian jardun. Gizon xinple eta zohargia zen. Gorputz eta arima frango sendatzen zuelako, famatua bilakatu zen, giristino ez zirenen artean ere.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)  
edo Sainduena (Fraide batentzat) (914)**

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
basamortuko borroka berezira deitu zenuen  
Sarbelio apez saindua  
eta molde guzietako jainkozaletasuna eman zenion ;  
emaguzu, gure Jaunaren pasionean parte hartuz,  
zeruko erreinuan saindu horrekin bat egin dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## Uztailaren

**Besta**

### 25 Jondoni JAKOBE, apostolua

*Jakobe, Zebederen semea, Joaniren anaia, Petri eta Andresen laguna zen. Genezareteko aintzirako arrantzaleak ziren. Joanes Batistaren deia entzuna zuten. Gero Jesusi jarraiki zitzaizkion dizipulu gisa. Jakobe Jesusen itxuraldatzearen eta agoniaren lekuko izan zen Petri eta Joani gaztearekin batera. Herodes Agripparen aginduz lepoa moztu zioten. (43an edo 44ean)*

**SARTZEA** Galileako itsas-hegian zoalarik, Jesusek ikusi zituen  
*Ik. Mt 4, 18.21 ;*  
*Mk 3, 17* Jakobe Zebederen semea, eta haren anaia Joani,  
 sare antolatzen ari, eta deitu zituen.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Jainko guziahaldun betierekoa,  
 Jondoni Jakobe izan da Ebanjelioarengatik  
 bere odola ixuri duen lehen apostolua :  
 emaiozu, otoi, zure Elizari  
 haren aitormenez indarra eta haren bitartez laguntza.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Garbi gaitzazu, Jauna,  
**OTOITZA** zure Semearen Pasioneko bataioaz :  
 Kristoren kaliza edateko lehena izan zen  
 Jakobe apostoluaren besta egunean  
 sakrifizio atsegingarria eskain diezazugun.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

**KOMINIONEA** Jaunaren kaliza edan zuten,  
*Ik. Mt 20, 23* eta Jainkoaren adiskide eginak izan ziren.

**AZKEN OTOITZA** Lagun gaitzazu, Jauna,  
 Jondoni Jakobe apostoluaren bitartez :  
 haren besta ospatzean  
 hartu baititugu zure dohain sainduak.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)

## Uztailaren

Oroimena

26

**San JOAKIN eta Santa ANA,  
Maria Birjina dohatsuaren burasoak**

*Joakin eta Ana, Maria, Jainkoaren amaren burasoak, ezagunak zaizkigu Judu-kristau tradizioari esker. Tradizio honen iturburua bigarren mendeko lehen partean bilatu behar da. Andredena Mariaren debozioaren distirarekin batera handitu zen Ana sainduaren gurtza. Joakin sainduarena askoz berriagoa da. XVII. Mendekoa.*

**SARTZEA***Ik. Si 44, 1.25*

Gorets ditzagun Joakin eta Ana,  
Jainkoaren Amaren burasoak :  
haien bidez etorri zaigu  
herrialde guzietan hitzeman benediziona.

**OTOITZA**

Jauna, gure arbasoen Jainkoa,  
Joakin eta Ana dohatsuak egin zinituen  
zure Semearen ama izanen zenaren aita eta ama :  
Emaguzu, haien otoitzeri esker,  
zure herriari hitzeman salbamendua.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Onar, Jauna, gu zure zerbitzarien eskaintza :  
Abrahami eta haren ondokoeri  
zuk agindu benediziona parte izan dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***Ik. Sal 24 [23], 5*

Dohatsu bihotz garbia :  
Eginen dio Jaun zerukoak ongi hari,  
Emana dio Jaunak sari.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko Jauna,  
zure Semea familia bateko seme egin duzu :  
gizonak, misterio miresgarri baten bidez,  
zure seme sort daitezen :  
zure haurren ogiaz ase gaituzunaz geroz,  
saindu egin gaitzazu zure seme-izpirituaz.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Uztailaren****27****San GALAKTORIO**

*Beneharnume (Leskar) ko apezpiku, IV. mende hastapenean, Agdeko kontzilioan zen 506ean. Mimizanen (Landes) martirisatua izan omen zen 507 inguruan. Bere erlikiak, luzaz Lezkarren egon ondoan, desagertu ziren XVI garren mendeko nahasketetan.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)  
edo Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
Galaktorio sainduari eman diozu  
zuzentasunarengatik heriotzeraino gudukatzea.  
Egizu, haren bitartez,  
neke guziak jasan ditzagun zure amodioz,  
eta zu bakarrik baitzira bizia,  
zureganat indar guziez lehia gaitezen.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Uztailaren****Oroimena****29****Santa MARTA**

*Ebanjelioan, Santa Marta hiru aldiz agertzen da. Maria ahizparekin, Jesusi ongi etorria etxen egiten diotelarik ; anaia Lazaroren berpiztean, bere fedea Jesusi aitortzen diolarik ; eta, sei egun Bazko aitzin, Jesusi eskainia zitzaion bazkarian zerbitzua egiten duelarik.*

**SARTZEA***Lk 10, 38*

Herrixka batean sartu zen Jesus,  
eta Marta deitu emazte batek hartu zuen etxerat.

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
zure Semeak Marta sainduaren etxean izan zuen ostatu :  
haren bitartez egizu,  
gure haurridetan Kristo leialki zerbitzatzuz,  
zerua izan dezagun betiko etxe.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.** Jainko Jauna, Marta sainduaren baitan  
**OTOITZA** miragarri aitortzen zaitugu,  
 eta apalik otoitz egiten dauzugu :  
 haren zerbitzua zuretzat atsegingarri zen bezala,  
 gure eskaintza hau zure gogoko izan dadila.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Martak erran zion Jesusi : Zu zira Kristo,  
 Jainkoaren Semea, mundu huntarat etortzekoa dena.

**AZKEN OTOITZA** Zure Semearen gorputz-odolen hartzeak, Jauna,  
 betiko ez diren gauzatarik bazter gaitzala :  
 Marta saindua bezala, lur huntan  
 zure amodio zintzoan aitzina gaitezen,  
 eta zeruetan zu ikusteaz beti bozkaria.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

---

## Uztailaren

### 30 San PIARRES KRIZOLOGO, apezpiku eta Eliz erakaslea

*Piarres, Ravenako apezpiku izan zen 424etik 431era (Ravena zen enperadorearen egoitza). Artzaina izan zen gehienbat. Prediku anitz egin zuen. Hortarik heldu zaio « Krizologo » izena (Urrezko hitza). Predikari sinplea zen. « Populuari hitz egin behar zaio, zioen, populuaren hitzekin. »*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)  
 edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA** Jainko Jauna, Piarres Krizologo apezpiku saindua  
 gizon egin den zure Hitzaren predikari egin duzu ;  
 Egizu, haren bitartez, zure salbamenduko misterioak  
 beti erabil ditzagun gure bihotzetan,  
 eta leialki ager gure egintzetan.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

## Uztailaren

Oroimena

## 31 San IGNAZIO LOIOLAKOA, apeza

*Sortzez Euskal Herrikoa, Iñigo Loiolakoak (1491-1556) Jesusen Lagundia sortu zuen Parisen 1534ean. Erromatik eramán zuen misionest lanik handiena, Lagundia Europa guzira hedatzeko xedearekin ; ber denboran, Elizari eta Aita Sainduari erakutsiz bere erabateko atxikimendua. Idatzi dituen « Gogo-Jardunek » (latinez : Exercitia spiritualia) ildoá irekitzen dío bizitza Jainkoaren Loria Handienari eman nahi díonari.*

**SARTZEA***Ik. Flp 2, 10-11*

Jesus Jaunaren izenean denak díetela belaunika :  
Zeru-Iurretan, ifernuan, eta goraki mihi guziek díotela :  
Jaunen Jaun dela Jesu Kristo, Jainko Aitaren osperako.

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
zure izenaren aintza gero ta gehiago zabaltzeko,  
eman díozu Elizari Loiolako Ignazio saindua :  
egiguzu, hura lagun eta etsenplu dugula,  
lur huntan gudukaturik,  
harekin parte izan dezagun zeruko zorionean.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Atsegin bekizu, Jauna,  
Ignazio sainduaren besta egunean  
ekarri dauzugun eskaintza :  
Eta saindutasun guziaren iturri  
egin dúzun sakramendu hunek  
gu ere saindu egin gaitzala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***Lk 12, 49*

Su emaiterat etorria naiz lur huntarat :  
Zoin nahi nukén pítz dadien.

**AZKEN OTOITZA**

Zuri eskerrak emanez, Jauna,  
Ignazio sainduaren besta egun huntan  
eskaini dauzugun goresmen-opariak  
eramán gaitzala behin betikotz  
zure aintza neurrigabearen govesterat.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## ABUZTUKO SAINDUAK

### Abuztuaren

Oroimena

#### 1 San ALFONZO-MARI Ligorikoa apezpiku eta Eliz erakaslea

*Alfonzo-Mari ligorikoa (1696-1787) Napolitanoa zen. Ofizioz abokata izanik, apeztu zen eta apezpiku bilakatu. Predikari akigabea, kofesatzaile bihozdua, ez zuen xederik Jesu Kristoren maitasuna aldarrikatzea baizik. Erredentore Guziz Sainduaren kongregazioa sortu zuen 1732an, baserrialdeak giristinotzeko. Haren irakaskuntza moralistak eta idazki izpiritualek oihartzun handia ukan zuten.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892) edo Erakasleena (901-902)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna, beti sortzen dituzu zure Elizan bertuterako etsenplu berriak :  
Alfonzo Mari dohatsua bezala bete gaitzazu gure haurrideen salbatzeko gogo kartsuaz, harekin batean ardiets dezagun zeruko zoriona.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

#### ESK. GAIN. OTOITZA

Jainko guziz ona,  
pitz ezazu gure bihotzetan zure Izpirituaren sua :  
zuk eman baitiozu Alfonso Mari sainduari grazia misterio hauen ospatzeko,  
eta bere burua opari saindu zuri eskaintzeko.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

#### AZKEN OTOITZA

Jauna, zuri esker izan da Alfonso Mari saindua Eukaristiaren predikari eta zerbitzari kartsu :  
Emaguzu guri ere misterio hortan maiz parte hartzea, eta parte hartuz zu beti gorestea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.



**Abuztuaren****2 San EUSEBIO Verceil-koa, apezpikua**

*Vercelliko (Piemonte) Apezpikua 345-371, Eusebiok Ekialdera ihes egin behar izan zuen, Jesu Kristoren Jainkotasunari leial egoiteko, (Nizeako kontzilioan erabakia horrela hartua izanaz geroz). Desterrutik itzultzerakoan (361), berekin lan pastorala partekatzen zuten kleroekin nahi izan zuen komunitatean bizi. Anaidian bizitzeko molde hau lehenetakoa izan zen.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
emaguzu Eusebio apezpiku sailduari bezala  
Kristo Jainko dela aitortzeko indarra :  
horrela begiratuko dugu harek erakatsi fedea,  
eta ardietsiko zure Semearen bizian parte izaita.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean San PIARRES-JULIAN EYMARD, apeza**

*Piarres-Julian Eymard, Mure-d'Isère herrian (Frantzia) sortu zen, 1811ean, Grenobleko diozesan. Izenez lotua da, 1856an sortu zuen, Sakramendu Sailduaren apezten kongregazioari. Eukaristiaren misterioarentzat atxikimendu berezia zaukan. Luzaz bere Jauna, eukaristiaren itxuran estalia, kontenplatu ondoan, 1868ko abuztuaren lean, buruz-buru ikusi zuen.*

**Meza : Sailduena (Fraide batentzat) (914)  
edo Artzainena (Artzain bat) (894-895)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
zure Semearen Gorputz Odolen misterio sailduaren  
maitasun miragarria eman zenion Pedro Julian sailduari ;  
egiguzu, bihotz onez, jainkozko besta-apairu huntan  
harek aurkitu zuen goxotasun bera aurkitzea guk ere.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abuztuaren**

Oroimena

**4 San JOANES-MARIA VIANNEY, apeza**

*Joanes-Maria Vianney (1786-1859), Ars-eko erretora, arimen artzainaren modeloa da. Jainkoaren hitzaren aldarrikapenari, baketzearen ministerioari, otoitzari eta penitentziari alde bat emana izan zen. Noizean behin aurpegia itxuraldatzen zion argia Euskariztiaren maitasunean zaukan iturburua. Eukaristiaren zelebratzaile suharra eta adoratzaile fidela izan zen.*

**SARTZEA***Ga 6, 14*

Nik ez dut Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzeaz baizik harro izan nahi ; Kristo gurutzean hil denaz geroz, mundua hila da neretzat eta ni munduarentzat.

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun urrikaltsua,  
Joanes Mari dohatsua miresgarri egin duzu  
bere apez lanean :**  
Egizu, haren otoitz eta etsenpluen bidez,  
maitasunez bil ditzagun gure haurrideak Kristorenganat,  
eta heiekin batean ardiets betiko zoriona.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
jauts bedi eskaintza hauen gainerat  
zure Izpirituaren betea;**  
Joanes-Maria Vianneyren bitartez,  
emaguzu beti misterio hortarat hurbiltzea  
gorputz eta bihotz garbiarekin.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***Kol 1, 24-25*

Bozkariotan nago orai, zuen alde jasaiten ditutan sofrikarioengatik.  
Gorputzean jasaiten ari naizen atsegabeak  
Kristoren atsegabeeri eransten diozkatet  
haren gorputza den Elizaren alde.

**AZKEN OTOITZA** Zeruko ogiak azkarturik,  
otoitz egiten dautzugu Jauna :  
Janari horri esker, Joanes-Mariak  
herstura guziak ahuldu gabe jasaiten zituen ;  
emaguzu hura bezala, egunez egun  
aitzina joaitea eta zureganat heltzea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Abuztuaren

### 5 MARIA SAINDUA BAZILIKAREN BESTA

*Maria Sainduaren bazilika, Sixto III. Aita Sainduak (432-440) Erroman eraiki zuen, Eskilino munhoan, Jesusen amaren ohoretan. 431ean, Efesoko kontzilioak 'Jainkoaren Ama' izena eman berria zion. Mendebaldean, hau izan da lehen bazilika Maria Sainduaren izenean eraikia.*

**Meza : Maria Birjina dohatsuarena (864-871)**

**OTOITZA** Zure haurren hobenak barka, Jauna,  
eta guharen egitez ez baigintazke zure gogoko izan,  
zure Seme gure Jaunaren Ama lagun, salba gaitzela.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jaingo eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## Abuztuaren

Besta

## 6 JAUNAREN ITXURALDATZEA

*Berrogei egun Kurutze Loriosa aitzin, Jaunaren Itxuraldatzeak orroitarazten digu nola Jesu Kristok dizipuluak prestatu nahi izan zituen kurutzearen eskandaloari. Adierazi nahi digu ere zer den delako « odopzio miresgarria ». Hau da sinesle guziak Jainkoaren haur eta Jesu Kristoren seme eginak direla eta iragartzen du ere Elizaren gorputz osoak egun batez ukanen duen distira.*

## SARTZEA

*Ik. Mt 17, 5*

Hedoi dirdiratsuan agertu zen Izpiritu Saindua, eta aditu Aitaren mintzoa : Hau da nere Seme maitea, huntan baitut nere gozoa ; entzun ezazue.

«Aintza zeruetan» erraiten da

## OTOITZA

Jainko Jauna, zure Semearen itxuraldatzean,  
Mois eta Eli lekuko zirela,  
fedezko misterioak finkatu dituzu,  
bai eta jakinarazi zure seme eginak girela :  
Egizu zure Seme maitearen mintzoa entzun dezagun,  
harekin parte izaiteko zeruko zorionean.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

Besta hau igandez gertatzen denean, «Sinesten dut» erraiten da.

## ESK. GAIN.

## OTOITZA

Saindu egizkizu, Jauna, gure eskaintzak,  
zure Seme itxuraldatuaren misterioaz :  
eta haren argiaren distiraz  
garbi gaitzazu gure bekatuetarik.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## PREFAZIOA

*Itxuraldatzearen misterioa*

**B**ai, egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti, zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saindu,  
Jainko guziahaldun betierekoari,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, gurea bezalako zuen gorputza,  
argi betez jauntzi zuen egunean,  
bere aintza erakutsi zien hautatu zituen lekukoeri.  
Horrela prestatzen zituen bere dizipuluen bihotzak  
Gurutzearen behaztopa garaitzeko ;  
horrela ere agertzen bere baitan,  
bere gorputz duen Elizan argi eginen duen dirdira.

Horrengatik, zeruko indar guziekin,  
lurrean beti goستن zaitugu,  
zuri, Jainko guziz handiari, gelditu gabe kantatuz :  
*Saindu ...*

**KOMINIOEA** Kristo agertuko denean, hura iduri izanen gira,  
*1 Jn 3, 2* hura ikusiko baitugu den bezala.

**AZKEN OTOITZA** Jainko *Jauna*, zure Semearen distira  
agertu zenuen itxuraldatzeko egunean :  
zure eskutik hartu dugun janariak  
egin gaitzala zure Semea *iduri*.  
Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (647, 14)**

## Abuztuaren

**7 San SIXTO II.a, aita saindua, eta LAGUNAK, martirrak**

*258ko abuztuaren 6an, Sixto II Aita sainduari eta lau diakreri lepoa moztu zieten, Kalisto katakunbetan liturgia ospakizun bat egiteagatik ; zeina Valeriano enperadoreak debekatua baitzuen. Laurendi diakrea, bazter eman zuten torturatua izan zedin. Erromako Elizaren historian, gertakari hau pertsekuzio garaietako ospetsuenetarik izan da.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

**OTOITZA** Jainko guziahalduna,  
Izpiritu Sainduaren graziak egin gaitzala  
sinesteko leial eta zuri aitormen egiteko indartsu,  
zukanik baitzuten Sixto dohatsuak eta haren lagunek  
zure Hitzarengatik eta Jesusen aitorle izaitagatik  
beren biziaren emaitako indarra.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

### Egun berean San GAETAN, apeza

*Gaetan Thienekoa (1480-1547) Erromako kuriako apez nagusietarik zen, administrazio lanez aparte, arras otoitzari eta erien zerbitzuari emana zen. Jean-Pierre Caraffa adiskidearekin, geroago Paulo IV izenpean Aita Saindu izanen denarekin, kleroen sozietatea sortu zuen, predikuaeren eta liturgiaren zerbitzuko. Teatinoak deitu zituzten, Jean-Pierre Caraffa apezpiku izan zen diozesaren izenagatik.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)  
edo Sainduena (Fraide batentzat) (914)**

**OTOITZA** Jainko Jauna, zuk eman zenion Gaetan apez sailduari  
bere bizitzean apostoluen iduriko izaitea :  
egizu, haren otoitz eta etsenplueri esker,  
beti zutan ezar dezagun gure esperantza,  
eta gelditu gabe ibil gaitezen zure Erreinuaren bila.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

### Abuztuaren

Oroimena

### 8 San DOMINGO, apeza

*Domingo (1170-1221) elizgizon espainola, lehenbizikorik emazte andana bat bildu zuen Prouille herrian erregela berezi baten pean. Tolosan Predikatzailleen ordena sortu zuen kataro heretikoaren kontra. Nahi izan zuen bere 'semeak' eskale izan zitezen eta irakaspena kontenplaziotik haz zezaten. Ordenaren hiriburua Erroman finkatu zuen, bera Boloñan zendu aitzin.*

*Sartzea*

*Ik. Si 15, 5*

Jaunak, batzarraren erdian hitz egiteko gaitasuna eman dio  
Domingo sailduari, adimendua eta zuhurtziaz argituz, alleluia

**OTOITZA**

Zure Eliza, Jauna, lagun dezatela  
Domingo sailduaren merezimendu eta erakaspeneak :  
eta zure egiaren predikari miresgarri izan zenak  
gure alde otoitz egin dezala.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.**  
**OTOITZA**

Entzun bihotz onez, Jauna,  
Domingo sailduaren bitartez,  
eskaintzen daukizugun otoitzak :  
sakrifizio hunen indarrak azkar ditzala  
fedearen alde gudukatzen ari direnak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA**  
*Ik. Lk 12, 42*

Huna etxegizon leial eta zentzuduna,  
nagusiak bere sehien buru ezarri duena  
ogi bihi neurria tenorez emaiteko.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko gure Jauna, zure sakramenduaz hazi gaituzu,  
Domingo sailduaren besta egun huntan :  
har dezala zure Elizak sakramendu horren fruitu betea,  
osoki zure zerbitzari izanez,  
eta erakaspenez argitzaile izan zuena  
otoitzez laguntzaile izan dezala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Abuztuaren**

**Besta**

**9**

**Santa TERESA-BENEDIKTA GURUTZEKOA**  
**birjina eta martirra, Europako zaindaria**

*Edith Stein, Breslau-n sortu zen, 1891ean. Kristau egin zen lehenik eta gero karmelita, Teresa-Benedikta Gurutzekoa izenarekin. Auschwitz-en zendu zen, sortzez judua izanagatik. Filosofoa, Edmund Husserl fenomenologiaren maisuaren laguntzaile izan zen. 30 urtetan, Santa Teresa Avilakoaren autobiografia irakurtzeak bizibidea eraldatu zion. Koloňako (Alemania) karmeliten komentuan sartu zen. Herbeheretan aterpeturik, 1942an arrastatu zuten. Hiltegiara eramaten duten bildots xumea izan zen, 'Sufritzen duen Zerbitzaria'-ri identifikatuz. Bere serora izenak erran nahi osoa hartzen zuela : kurutzeta eta banedizioa.*

**SARTZEA**  
*Ga 6, 14*

Nik ez dut Jaunaren gurutzeaz baizik harro izan nahi !  
Hari esker mundua gurutzeratua baita neretzat,  
eta ni munduarentzat.

**«Aintza zeruetan» erraiten da.**

**OTOITZA** Jauna, gure arbasoen Jainkoa,  
 zure Seme gurutzizatua ezagutzera  
 eta heriotzeraino haren idurikoa izaitera  
 eraman zenuen Santa Teresa Benedikta martirra ;  
 egizu, haren otoitzari esker, gizon-emazte guziak  
 hel daitezen Kristo salbatzailea ezagutzera,  
 eta Kristoren graziari esker,  
 zure aurpegia betiere ikus dezaten.  
 Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAINEKO OTOITZA** Onar, Jauna, bihotz onez  
 Teresa Benedikta martir sainduaren pesta huntan  
 eskaintzen dauzkizugun emaitzak,  
 eta Testamendu Zaharreko opari desberdinak  
 opari bakarraren bikaintasunera eraman zinituenaz  
 geroz,  
 erreberri ezazu  
 zure Semeak bere odolaz eskaini zauzun opari hura.  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Prefazioa : Sainduena II (447)**

**KOMINIONEA** Ibar beltzetarik iraganik ere,  
*Salm 22, 4* ez dut gaitzaren beldurrik, zu nerekin baitzare.

**AZKEN OTOITZA** Teresa Benedikta martir sainduaren  
 Oroimena ospatzean,  
 egizu, Aita urrikalkorra,  
 gurutzeko zuhaitzaren zerutiar fruituak  
 indar dezala gure bihotza,  
 lur huntan Kristorekin leialki bat eginez,  
 parabisuan izan dezagun  
 bizi-zuhaitzetik parte izaiteko zoriona.  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)**



**Abuztuaren****Besta****10 Jondoni LAURENDI, diakonoa eta martirra**

*Laurendi diakrea 258ko abuztuaren 10ean, Erroman, erahil zuten. Lau egun Sixto II aita sainduaren ondotik. Haren pasioaren kondaketak dio nola suaren oinazeak jasan behar izan zituen, kristau komunitatearen ontasunak beharduneri banatu ondoan. Gorabehera hauei esker Jondoni Laurendi Erromako martirretan famatuena bilakatua da.*

**SARTZEA** Hau da Laurendi saindua,  
bere burua Elizarentzat eman duena ;  
hargatik merezitu izan du martir hiltzea,  
bozkariotan igaiteko Jesu Kristo Jaunarenganat.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Jainko Jauna, zure maitasunaren garrak,  
zure zerbitzari leial eta martir ospetsu  
egin zuen Laurendi saindua :  
egizu maita dezagun harek maite zuena,  
eta bete harek erakatsia.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Onar, Jauna, gure eskaintza  
**OTOITZA** Laurendi dohatsuaren besta egun huntan,  
eta emaguzu guretzat salbagarri izan dadin.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Nork ere zerbitzatu nahi bainau, jarraiki bekit,  
*Jn 12, 26* eta ni non ere bainaiz, han ere izanen da ene zerbitzaria.

**AZKEN OTOITZA** Dohain sainduetz ase gaituzu, Jauna,  
Laurendi sainduaren besta egun huntan :  
eskatzen dauzugu  
meza huntan ospatu dugun salbamendua  
nasaia go ardiets dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)**

**Abuztuaren**

Oroimena

**11 Santa KLARA, birjina**

*Klarak (1193-1253) 18 urte zituen, Aita Frantziskori eskatu ziolarik berak zeraman bizimodua nahi zuela partekatu. Honek etxe andeatu batetan eman zion aterbe, San Damian elizaren ondoan, Asis hiriko ateetan. Ahizpa eta beste andere gazte batzu juntatu zitzaizkion behar gorrian bizitzeko. Hau izan zen frantziskotarren bigarren ordenaren iturburua : Klaratar Dama Behardunena*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)  
edo Sainduena (Serora batentzat) (915)**

**OTOITZA**

**Jainko guziz urrikaltsua,  
Klara dohatsuari pobre izaitea maitarazi diozu :  
emaguzu haren bitartez  
Kristori jarraikitzea pobre izanez,  
zeruetako erreinuan zu ikusterat hel gaitezen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abuztuaren****12 Santa JOANA-FRANTSISKA Chantal-ekoa, serora**

*Lau haurren ama, Jeanne-Françoise (1572-1641), Frémyot de Chantal jaun baroiaren emaztea, hogeita zortzi urtetan alargundu zen. Bere bizitzan, Jainkoaren bidean lagungarri, Frantzisko Saleskoa kurutzatzeko grazia ukan zuen. 1610ean, bereak utzirik, Annecy-n sortu zuen serora Bisitandinen ordena. Hortarik landa, bizi osoa eraman zuen bere erlazio familiaren garatzen.*

**Meza : Sainduena (Serora batentzat) (915-916)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Joana Frantsiska dohatsua  
bere bizi molde guzietan  
saindutasunerako bidetik eraman duzu :  
egizu, haren bitartez, zure deiari zintzoki jarraikiz,  
beti argiaren lekuko ta aitorle izan gaitezen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abuztuaren****13 San PONZIANO, aita saildua, eta HIPOLIT, apez, martirrak**

*Hipolito, erromatar apezak, teologo famatuak, komunitate disidente baten lehendakaritza hartu zuen (217). Maximin enperadorearen pertsekuzione garaian, Sardaniarar desterratua izan zen Ponziano aita sailduarekin (235) Bortxazko lanetarar behartu zituzten. Bata eta bestea Jesu Kristoren martiri hil ziren. Egun huntan haien gorputzen Erromarar tranferitzea ospatzen da.*

**Meza :** Martirrena (Martir batzu) (875-879)  
edo Artzainena (Artzain batzu) (893)

**OTOITZA**

Sainduen indar harrigarriak, Jauna,  
emenda dezala gu baitan zukanako maitasuna,  
eta fedea azkartu gure bihotzetan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Abuztuaren****Oroimena****14 San MAXIMILIANO MARIA KOLBE apez eta martirra**

*Maximiliano Maria Kolbe, Polonian sortu zen. Komentu-frantziskotar fraidegaietan sartu zen eta Erroman apeztu, 1918an. Maria Birjinaren debozioneak sustaturik “Maria Bihotz Guziz Garbiaren Milizia” sortu zuen ; Polonian eta ondoko herrietan zabaldu. 1930ean, Japonian misionest zelarik, kristau fedea hedatzen lehiatu zen, Birjina guziz garbiaren gerizapean. Poloniarar itzultzean, Auschwitz-eko konzentrazio esparruetan tratatu txar frango jasan behar izan zuen. Bere burua sakrifizioz eskaini zuen, 1941ko abuztuaren 14an.*

**SARTZEA**

Zatozte, nere Aitak benedikatuak, dio Jaunak.  
Egiaz diotzuet : nere haurrideak diren ttipien hauetarik bati  
egin diozuen aldi guziz, nihauri dautazue egin.

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
Maximiliano Maria apez kartsu eta martir saildua  
bete zenuen Maria sortzez garbiaren maitasunaz,  
apostolu-zaletasunaz, eta lagun hurkoaren maitasunaz.  
Egizu, haren otoitzari esker, zure aintzarako

lan egin dezagun gizon-emazten zerbitzuan,  
eta zure Semearen iduriko izan gaitezen heriotzeraino.  
Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.**  
**OTOITZA**

Huna zure aitzinean, Jauna, gure emaitzak,  
otoitz egiten dauzugu :  
Maximiliano Maria sainduaren idurira,  
ikas dezagula gure bizia zuri eskaintzen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIOEA**  
*Jn 15, 13*

Nehork ez du maitasun handiagorik,  
bere bizia adiskideen alde emaiten duenak baino, dio Jaunak.

**AZKEN OTOITZA**

Zure Semearen Gorputz Odolez indarberiturik,  
eskatzen dauzugu, Jauna,  
pitz dezazun gu baitan, Maximiliano Maria sainduak  
janari huntan hartu zuen maitasun-sua.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Abuztuaren**

**Bestaburua**

**15**

**MARIA BIRJINA DOHATSUAREN  
ZERURATZEA**

*“Bere lurtar bizitzaren azkenera heltzean Jainkoaren Ama guziz garbia, gorputzez eta arimaz zeruko loriar at goratua izan da.” Pio XII.-k horrela definitzen du Mariaren zeruratzeari doakion fede katolikoa. Mariaren zeruratzea bere Amatasun Jainkotiarretik datorkio, gizadi guziarentzat esperantza berriaren berme eta berpiztearen promesa. Bosgarren mendetik Ekialdean ezaguna, Birjinaren Dormizioa deitzen duten bestaburua, Erroman ospatua izan da zortzigarren mendeaz geroz.*

**BEZPERA-ARRATSEKO MEZA**

**SARTZEA**

Miresgarriak diozkate zutaz, Maria dohatsua,  
egun aingeruak baino gorago altxatua izanik,  
betierean Kristoren ondoan Erregina baitzira.

«Aintza zeruetan» erraiten da

OTOITZA

Jainko Jauna,  
 Maria Birjina dohatsua zure neskato apalari behaturik,  
 zure Seme bakarraren ama izaiteko grazia eman *diozu*,  
 bai eta ere egun huntan ospe paregabearen *korona* :  
 Balia bekigu haren *otoitza*,  
 eta erospeneke misterioaz salbatuak girenak,  
 altxa gaitzazu harekin batean zeruko *osperat*.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

ESK. GAIN.  
 OTOITZA

Onar, Jauna,  
 bakezko ta goresmenezko sakrifizio hau :  
 Jainkoaren Amaren zeruratze egunean  
 eskaintzen *dauzugu*,  
 barkamendurat eraman *gaitzan*,  
 eta beti esker *emaile* egin.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

Prefazio berezia, ondoko mezan.

Esker Onezko otoitzetan : parte bereziak.

KOMINIONEA  
*Ik. Lk 11, 27*

Ama birjina Mariaren sabel dohatsu dohatsua,  
 Betiereko Aitak duen Seme bakarraz amatua.

AZKEN OTOITZA

Jainko gure Jauna,  
 zeruko mahaian parte *harturik*,  
 zure bihotz onari *otoitzez gaude* :  
 Jainkoaren Amaren zeruratzea ospatzen dugunaz geroz,  
 atera gaitzazu gainean ditugun gaitz guzietarik.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

Benedizione nagusia erabil daiteke (648, 17)

## MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA

## EGUNEKO MEZA

## SARTZEA

*Ap 12, 1*

Miragarri bat zoin handia zeru gainean agertu da :  
 Emazteki bat dena iguzkiz apaindua  
 Eta zangoen pean duena ilargia.  
 Buru gainean ere dauzka hamabi izar dirdiraka.

## Edo

Loria gaiten Jauna baitan,  
 Maria gure Ama zerurat altxatzean ;  
 Huntaz baitute gaur aingeruek bozkario  
 Eta denek bat Jainko Semeaz laudorio.

«Aintza zeruetan» erraiten da

## OTOITZA

Jainko guziahaldun betierekoa,  
 zeruko osperat altxatu duzu, gorputz eta arima,  
 Maria Birjina, sortzez garbia, zure Semearen Ama :  
 Emaguzu goiko ontasunen bila beti ibil gaitezen,  
 haren ospean parte hartzea ardiets dezagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

## ESK. GAIN.

## OTOITZA

Igan bedi zureganat, Jauna, gure eskaintza kartsua :  
 eta Maria Birjina guziz dohatsua, zerurat altxatua,  
 ararteko dugula,  
 gure bihotza ere, maitasunez sutan,  
 bizi dadila beti zukanako lehian.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## PREFAZIOA

*Maria zeruratuaren aintza*

Jauna zuekin.

℞. Eta zure izpirituarekin.

Gora bihotzak.

℞. Jaunari dauzkagu.

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℞. Egoki da eta zuzen.

[kantuz : 617]

**B**ai, egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti, zuri eskerrak emaitea,  
Jauna, Aita guziz saildu,  
Jainko guziahaldun betierekoari,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Egun, Maria Birjina, Jainkoaren Ama,  
zerurat altxatua izan da.

Hau dugu bete beterat ari den Elizaren  
hastapena eta iduria ;  
hau du oraino bidean doan zure herriak  
bere esperantza eta poz-iturria.

Ez duzu utzi hilobian usteltzerat  
zure Semea miragarriki sortu duen Amaren gorputza,  
biziaren iturria munduari eman dion gorputz garbia.

Horra zergatik, aingeru-taldeekin batean  
goresten zaitugun, bozkariotan kantatzen dugula :  
*Saildu ...*

Esker onezko otoitza I, II, III : parte bereziak

## KOMINIOEA

*Lk 1, 48-49*

Mendeek neri : «Dohatsua».  
Zoin handi nitan Jainko Jaun guziz indartsua.

**AZKEN OTOITZA** Sakramendu salbagarria hartu dugu, Jauna :  
 Emaguzu,  
 Maria Birjina dohatsua zerurat altxatuaren *bitartez*,  
 hel gaitzen piztearen *osperat*.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

**Benedizione nagusia erabil daiteke :**

**BENEDIZIONE NAGUSIA**

Maria Birjina ama eginik,  
 gizakia bihotz onez salbatu duen Jainkoak  
 eman diezazuela bere benediziona.  
 R̄. Amen.

Biziaren egilea eman dauzuenaren laguntza  
 sendi dezazuela non-nahi eta beti.  
 R̄. Amen.

Eta Mariaren besta sailduki ospatzerat etorri zireztenek  
 eraman dezazuela zuekin  
 goiko bozkarioaren eta zeruko sariaren dohaina.  
 R̄. Amen.

Benedika zaitzate Jaingo guziahaldunak :  
 Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.  
 R̄. Amen.



**Abuztuaren****16 San ESTEBE Hungriakoa**

*Estebe (970-1038) lehen « hungariar errege apostolikoa ». Mila garren urteko Eguberriz, Silvestre II. Aita sailduak igorri errege korona jantzi zuen. Errege handi eta giristino gisa herrialdean gandi Eliza finkatzeko axola zaukan. Diozesak sortu zituen eta saildutegiak eraiki, oraindik hungariarrek gustukoenak dituztenak.*

**Meza : Sailduena (Saildu bat) (911-912)**

**OTOITZA**

**Emaguzu, Jainko Jauna, zure Elizak, Estebe dohatsua,  
lur huntan errege zelarik, hedatzaile izan zuen bezala,  
zaintzaile izan dezan orain zeruan.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abuztuaren****19 San JOANES EUDES, apeza**

*Joanes Eudese (1601-1680) kasik bizi guzia Caen hirian iragan zuen. Emagalduen salbatzeko erakunde baten sortzaile izanik, ondotik seminarioetako apezten formakuntzarako kongregazionea zutik eman zuen. Joanes Eudes lehiatu zen Jesusen bihotz sakratuaren eta Mariaren gurtzaren hedatzen, Jesusen biziaren eta giristinoen arimen erreinuaren hedatzeko xedearekin.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)  
edo Sailduena (Fraide batentzat) (914)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Joanes Eudes apez saildua hautatu duzu  
Jesu Kristoren aberastasun neurrigabea ezagutarazteko :  
Egizu haren etsenplu eta erakaspeneri jarraik gaitezen,  
zu hobeki ezagutzeko,  
eta Ebanjelioaren argitan zintzoki bizitzeko.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abuztuaren**

Oroimena

**20****San BERNAT, abadea eta Eliz erakaslea**

*Bernat (1090-1153) Cîteaux-ko fraidea, geroago Clairvaux abadiaren sortzailea, aita sainduen eta erregeen kontseilaria izan zen. Bigarren kurutzadaren aldeko predikuak hedatu zituen. Bizi kontenplatiboaren egarri sendoa bazuen. Otoitza eta penitentzia lagun, Jainkoaren misterioa ziltzeko gogo bizia zaukan. Teologo mistikoa, Bernatek Jainkoaren maitasuna ezarri zuen bere pentsamenduaren bihotzean.*

**SARTZEA**

Bernat sainduak, Jaunak jakitatez beterik, Jainkoaren populua bere erakaspenez hazi zuen, ur errekek lur idortua bezala.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
zure Elizaren maitez sutan zagon Bernat abade saindua,  
zure etxean su ta argi izan zadin nahi izan duzu :  
Emaguzu haren bitartez, bihotzeko su bera,  
beti argiaren seme bizi gaitezen.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.  
OTOITZA**

**Jainko guziahalduna, batasun ta bakearen sakramendua  
eskaintzen dauzugu Bernat sainduaren besta huntan :  
harek indar guziez zaindu baitzuen  
Elizaren bakea hitzez eta egitez.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**KOMINIONEA***Jn 15, 9*

Aitak maite nauen bezala, nik ere maite zaituztet ;  
egon zaitezte nere maitasunean.

**AZKEN OTOITZA**

**Bernat sainduaren besta egunean  
hartu dugun janariak, Jauna,  
eman dezala gure baitan bere fruitua :  
haren etsenpluek indarturik eta erakaspeneak argiturik,  
zure Hitz gizon eginaren maitasunaz bete gaitezen.**

**Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abuztuaren****Oroimena****21 San PIO X.a, aita saindua**

*Pio X. (1835-1914). Ohargarriena da soiltasun eta bertute handikoa zela. Eliza sendotasunez gobernatu zuen, estatu batzuen laizismo mingarrien kontra. Jakintza teologikoari eta biblikoari buruzko dudamudak radikalki indartzen ari ziren garaian zen. Bere hitzari beti leial egon zen : « Gauzak oro Kristo baitan laburbildu ! » Girstinoak lehiatu zituen liturgian gehiago parte hartzera eta fedearen iturburuetarik bizitzera.*

**Meza : Artzainena (Aita saindu) (889-890)**

**OTOITZA**

Jainko Jauna, sineste katolikoa zaintzeko,  
eta diren guziak Kristo baitan ezartzeko,  
Pio aita-saindu dohatsua bete duzu  
zeruko zuhurtziaz eta apostolu-garraz :  
egizu, haren erakaspén eta etsenplueri jarraikiz,  
betiereko saria ardiets dezagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Ikus begi onez, Jauna, gure eskaintzak :  
eta emaguzu, Pio dohatsuaren erakaspeneri jarraikiz,  
misterio saindu hauek errespeturekin erabil  
eta fede biziz har ditzagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**AZKEN OTOITZA**

Zure mahaian indar-berriturik,  
zuri otoitzez gaude, Jainko gure Jauna,  
Pio sainduaren besta egun huntan :  
egin gaitzazu fedean sendo,  
eta bihotzez bat zure maitasunean.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Abuztuaren**

Oroimena

**22 MARIA BIRJINA DOHATSUA ERREGINA**

*Maria emana zaigu bere Zerutzearen lorian, redenpzioaren kausitze gorenean. «Burrupenik ez daukan Erreinuaren» jabearen ama izanagatik, mendez mende girstinoek ospatzen dute beren Erregina.*

**SARTZEA** Kristoren ondoan dago  
*Ik. Sal 45 [44], 10.14* Maria Birjina gure Erregina,  
 soinean urre garbiena.

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
 gure Ama eta Erregina egin duzu zure Semearen Ama :  
 emaguzu, haren otoitzen bitartez, ardiets dezagun  
 zeruan zure haurreri hitzeman ospea.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Maria Birjina dohatsuaren besta ospatzean,  
**OTOITZA** ekartzen dauzugu, Jauna, gure eskaintza :  
 lagun gaitzala Gurutzean opari garbi eskaini zitzaizun  
 zure Seme gizon eginak.  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Prefazioa : Maria Birjina dohatsuarena I (440) edo II (441)**

**KOMINIONEA** Bai dohatsua zira zu, sinetsi baituzu  
*Lk 1, 45* Jaunaren partez zuri erranak beteko direla.

**AZKEN OTOITZA** Zeruko sakramendua harturik, Jauna,  
 apalik eskatzen dauzugu :  
 Maria Birjina dohatsuaren besta ospatzen dugunek  
 ardiets dezagun betiereko mahaian jartzea.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Abuztuaren****23 San JULIAN Lezkarrekoa**

*Aspaldidanik, Lezkarreko Elizak San Julian ohoratzen du Trevestik etorri zelakoan Biarnoan fedea predikatzerat ; Beneharnume (Lezkar) ko lehen apezpikua izan omen zen V. mende hastapenean.*

**Meza : Artzainena (Eliza eraikitzaile bat) (896)**

**OTOITZA**

Jainko Jauna, fededunen argia eta arimen artzaina,  
Julian apezpiku saildua Elizari eman diozu  
zure artaldea bere hitzaz hazteko,  
eta bere etsenpluz moldatzeko :  
emaguzu, haren bitartez,  
erakatsi duen fedea begiratzea,  
eta erakutsi duen bideari jarraitzea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Egun berean Santa ARROSA Limakoa, birjina**

*Arrosa Limakoa (1586-1617) Mundu Berriko lehen saildua izan da. Burasoen baratzean, erdi hetsirik, domingotarren kontenplazioan eta argi mistikoan bizi izan zen. Elizaren misioaren ahaleginen sustengatzeko, otoitzari eta penitentzia gogorrari emana izan zen, Jesusekilako intimitateak bakarrik emaiten ahal zion bertutearekin.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)**

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
maitasunik aski eman diozu Limako Arrosa sailduari  
denak utzi-ta penitentziazko bizitze latz batean  
zuri bakarrik jarraitzeko :  
Emaguzu, hura bitarteko,  
lur huntan egiazko biziaren bidetarik ibiliz  
zeruan goza dezagun betiereko zoriona.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Abuztuaren**

Besta

**24 San BARTOLOMEA, apostolua**

*Bartolomea, Natanael deitua ere, Kanan sortua zen. Felipek presentatu zion Jesusi, Jordan ibaiaren iparraldean. Apostoluen taldean lehenetarik zen. Mendekostetik lekora, Bartolomearen lan apostolikoaz ez dakigu deus segurik.*

**SARTZEA***Sal 96 [95], 2-3*

Aipa noiz nahi munduari zoin den Jainkoa salbagarri.  
Hura goraipa herriz herri, eman lurrez lur haren berri.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,**  
azkar ezazu gure baitan Bartolomea apostoluak  
zure Semearekin bat egiten zuen fede leiala :  
eta, haren bitartez, zure Eliza izan dadila, otoi,  
jendalde guzientzat salbamenduaren sakramendu.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Bartolomea apostolu dohatsuaren besta egiten dugularik,  
apalik eskatzen dauzugu, Jauna :  
haren bitartez ardiets dezagula zure laguntza,  
haren ohoretan eskaintzen baitauzugu goresmen-oparia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

**KOMINIONEA***Lk 22, 29-30*

Nik badaukat zuentzat erresuma,  
ene Aitak enetzat zeraukan bezala,  
ene mahaian jan eta edan dezazuen ene erresuman.

**AZKEN OTOITZA**

Betiko salbamenduaren ageria hartu dugu, Jauna,  
Bartolomea dohatsuaren besta pozgarri huntan :  
izan bekigu, otoi, gaurko eta geroko biziaren laguntza.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)

**Abuztuaren****25****San LUIS**

*Frantziako erregea Luis IX. (1214-1270) Printze girstinoaren modeloa, ebanjelioaren arabera bizi izan dena. Senar amultsua, aita artatsua, hameka haur girstinoki hazi zituena. Estado buru gisa, bakea eta zuzenbidearen ardura zuen. Fedea xumeki bizi zuen, egunez egun, pobreak zerbitzatuz, frantziskotar baten bozkarioan.*

**SARTZEA***Ps 5, 8 ; 137, 2*

Ni, aldiz, zure maitasun handiari esker zure etxean sartzen naiz,  
zure tenplu saindu alde errespetuz ahuspekatzen,  
eta zure izenari eskerrak emaiten.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Luis dohatsua lur huntako errege-alkitik  
zeruko erreinuaren osperat altxatu duzu :  
emaguzu haren bitartez,  
gure gaurko eginbideak betetzen ditugularik,  
zure betiko erreinua bila dezagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
San Luis miresgarri egin duzu lurrean,  
eta ospez bete ere zeruan :  
Haren idurira zure amodioak sutu gaitzala,  
aldarean biltzen girelarik  
zuri sakrifizio salbagarri hau eskaintzeko.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**KOMINIONEA***Sal 40, 2*

**Dohatsua gizagaixoaz arduratzen dena !  
Onik aterako du Jaunak zorigaitz-egunean.**

**AZKEN OTOITZA Jainko guziz ona, San Luisi eman zenion  
amodio paregabea behartsuentzat.  
Egizu, mahai huntan berriturik,  
jakin dezagun  
harek bezala behartsuenetan  
Jesus bera ezagutzen eta zerbitzatzen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Egun berean San JOSEP Kalasantzekoa, apeza**

*Espanian sortua, Josef Calasanz (1557-1648) Erromarat heldu zen 1592an, eta han eraman zuen bere bizi guzia. Lehenbiziko dohainezko eskolak ireki zituen haur behartsuentzat. Berdenboran apez kongregazio bat sortu zuen erregela baten pean (Eskolapioak), Italian, Alemanian eta Polonian garatu zirenak. Nahigabeak ez zitzaizkion faltatu bainan aurre egin zien kuraiarekin*

**Meza : Sainduena (Gazte moldatzaile) (919)  
edo Artzainena (Artzain bat) (894-895)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, maitasunez eta pazientziaz bete duzu  
(Kalasantzeko) Josep sainduaren bihotza,  
haurren eskolatzeko eta bertutean hazteko :  
Egizu, zuhurtziaren erakasle  
ohoratzen dugun saindu hau bezala,  
beti egiaren zerbitzari izan gaitezen.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abuztuaren****Oroimena****26****San ZEZARIO Arlekoa, apeza**

*Lerinzeko fraidea, eta gero Arleseko apezpiku berrogei urtez (503-543), Cesaire buruzagi agertu zen, Galia hegoaldea eta Espainian gaindi. Jakin izan zuen batetik bere populua Barbaroen erasoetarik beiratzten, eta bestetik prediku bizi eta sinple batzuekin haien gogoa hazten. Beharrez bazakien ere erakasle bezala mintzatzen kudeatu zituen kontzilioetan.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Arleko Zezario sainduari eman diozu  
bihotz eta argi zure Hitzaren erakasteko :  
idek itzazu, otoi, gure gogo bihotzak  
leialki ta kartsuki ekarri daukun Berri Onari.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**



**Egun berean Santa JOANA ELIXABET Bichier des Âges**

*Joana Elixabet Bichier des Âges (1773-1838) Gurutzearen Neskatoen kongregazionea (Uztaritzeko serorak)ren erakitzailea da ; Serora hauek, erien zerbitzuari eta baserriko haurren irakaskuntzari dedikatzen dira. Pie XII-ak Kanonisatu zuen 1947an.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)  
edo Sainduena (Emazte saindu) (920-921)**

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
zeruko dohainez bete duzu Joana Elixabet saindua,  
eta haren bidez zure Eliza familia berri batez aberastu.  
Egizu, otoi, haren besta ohoratu eta,  
haren laguntzaz bozkaria gaitzen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Abuztuaren****Oroimena****27****Santa MONIKA**

*Monika (331-387) San Agustinen ama da. Semea, bide bihurrietan, Egiaren bila zabilan urteetan, Monikaren malkoek, otoitz ixil bat bezala, Jainkoari zoazkion. Semearen konbertsioak zorionez bete zuen, ondorioz ez zuen beste asmorik lur huntan. Ostia hirian, Italian, zendu zen Afrikarat itzultzekotan zelarik.*

**Meza : Sainduena (Emazte saindu) (920-921)**

**OTOITZA**

Atsegabetuen kontsolatzaile Jainkoa,  
begi onez hartu zinituen Monika sainduaren nigarrak  
bere seme Agustinen bide onerat ekartzeko :  
egizu, ama semeen bitartez,  
gure bekatuengatik nigar egin dezagun,  
zure barkamenduaren ardiesteko.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Abuztuaren**

Oroimena

**28 San AGUSTIN, apezpiku eta Eliz erakaslea**

*San Agustinen bizialdiak ongi ezagunak dira. Thagasten sortua (354), Milanen konbertitua (387), Hipponen apezpikutua (395-430). Ohargarrienak dirak haren pentsamenduaren argitasuna eta haren biziarena : osoki Jainkoari emana. Elizaren zerbitzua dena bat zitzaion : Hipponeko giristinoen komunitatea eta Jesu Kristoren gorputza mundu guzian zabaldua.*

**SARTZEA***Ik. Si 15, 5*

Elizan bildu biltzarrean Jaunak du gora mintzarazi,  
Bai zuhurtzia, bai jakitate dio eman,  
Eta ospez du berak jauntzi.

**OTOITZA**

Berri ezazu, Jauna, zure Elizan,  
Agustin sailduari nasaiki eman zenion izpiritua :  
izpiritu beraz beterik,  
zutaz bakarrik izan gaitezen egarri,  
zu baitzira egiazko zuhurtziaren iturri,  
eta zu bakarrik bila zaitzagun,  
zu baitzira betiko maitasunaren egile.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Gure salbamenduaren oroigarria ospatuz,  
umilki otoizten zaitugu, Jainko guziz ona :  
zure urrikalmenduaren sakramendu hau izan bekigu  
batasun seinale eta maitasun lokarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***Mt 23, 10.8*

Jaunak dio : Erakasle bat baizik ez duzue, Kristo.  
Denak elgarren haurride zirezte.

**AZKEN OTOITZA**

Kristoren mahaian parte hartzeak  
saildu egin gaitzala, Jauna :  
haren gorputzeko menbro eginik,  
hartu duguna izan gaitezen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Abuztuaren****Oroimena****29****Jondoni JOANI BATISTAREN MARTIRIOA**

*Joani Batista martira, Herodes Antipas-ek lepoa moztarazi zion Macheronte-n, Itsas Hilaren bazterretan. Bere martirak argitan emaiten du Jesu Kristoren aitzindari honen arimaren kalitatea. Erantzun betea emaiten dio Jainkoaren deiari. Bere heriotzan eta hitzetan Egiari lekukotasun osoa emaiten dio. "Erretzen eta argitzen duen su lama" izan da, Jesusen hitzen arabera (Jn 5, 35).*

**SARTZEA**

*Sal 119 [118], 46-47*

Zure legea aipatzen nuen erregeri :  
Nork egin ote beldur neri ?  
Zure nahiak hain zitzaizkitan neri gozo :  
Haientzat baitut amodio.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zuk hala nahirik,  
Jondoni Joani Batista izan da zure Semearen bide-egile,  
bai haren sortzean, bai heriotzean :  
Egiaren eta zuzentasunaren alde  
bere bizia eman duen bezala,  
egizu, guk ere, Ebanjelioaren alde  
beldurrik gabe lan egin dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Orain egiten dauzugun eskaintzaren bidez, Jauna,  
emaguzu zure bide zuzenatarik ibiltzea,  
bide horiek erakutsi baitzituen Joani dohatsuak  
basamortuan oihu eginez,  
bai eta aitortu ere, bere odola ixuriz.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**PREFAZIOA**

*Jondoni Joani Bataiatzailea*

**Jauna zuekin.  
℞. Eta zure izpirituarekin.  
Gora bihotzak.  
℞. Jaunari dauzkagu.  
Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.  
℞. Egoki da eta zuzen.**

**B**ai, egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti, zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saildu,  
Jainko guziahaldun betierekoari,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Haren bide egile den Joani Batista,  
amen semeetan handiena denaren baitan,  
zure miragarriak goresten ditugu.

Sortu aitzin, pozez jauzi egin zuen,  
gizon-emazte guzien Salbatzailea etorri zitzaionean ;  
sortzean bozkario handi bat ekarri zuen,  
eta berak bakarrik, profeta guzien artean,  
erakutsi Kristo, Jainkoaren Bildotsa.

Hola saildutu beharrak ziren uretan,  
bataiatu zuen bataioaren Egilea,  
eta bere odola ixuriz,  
aitormenik ederrena eman zion Kristo Jaunari.

Horrengatik, zeruko indar guziekin,  
lurrean beti goresten zaitugu,  
zuri, Jainko guziz handiari, gelditu gabe kantatuz :

*Saildu ...*

#### KOMINIONEA

*Jn 3, 27.30*

Joanesez ihardetsi zuen :  
Harek behar du handitu, nik aldiz ttipitu.

#### AZKEN OTOITZA

Jainko Jauna,  
Joani Bataiatzaile sailduaren besta ospatzean,  
zuri otoitzez gaude :  
guk hartu sakramenduek adiarazten dituzten  
miragarriak gorets ditzagula,  
bai eta ere gu baitan goza haien fruituak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## IRAILEKO SAINDUAK

### Irailaren

#### 2 FRANTSES DARDAN dohatsua eta bere LAGUNAK

*Ixturitzen sortua, Baionako diozesan, Frantses Dardan lehenik Larresoroko semenarioan erakasle izan zen. Santa Barbara Pariseko kolegioan zen, Karmeko konbentuan preso altxatu zutelarik. 1792eko buruïlaren 2an, beste apez lagun batzuekin Elizari bere atxikimendua erakutsi zuen, Iraultzako konstituzioa erefusaturik : burua moztu zioten.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

#### OTOITZA

Jainko Jauna, Frantses Dardan apeza  
eta bere lagunak martir ohoreaz apaindu dituzu,  
sineste katolikoa eta Elizaren zuzena  
gora atxiki dituztelakotz.

Egizu, haien otoitzeri esker,  
indarrezko Izpirituak azkarturik,  
Jainkoaren zerbitzari jarraikiak izan gaitezen  
hiltzeraino.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

### Irailaren

#### Oroimena

#### 3 San GREGORIO Handia, aita saindu eta Eliz erakaslea

*Gregorio Handiak (540-606 inguru) hamalau urtez Eliza gobernatu zuen. Erromako hiriko prefeta izan ondoan, fraide eta Konstantinoplen aita-sainduaren legato izan zen. Nahiz eta osagarritz erixka izan, egundoko lana kunplitu zuen. « Jainkoaren zerbitzarien zerbitzari » : behar zituen erromatarrak hornitu eta ber-denboran populua eskolatu eta gainerat lan teologiko inportanteak idatzi. Ingalaterrako ebanjelizazioa prestatu zuen. Kontenplazio jarraiki batekin hazten zituen bere egitateak.*

**SARTZEA**

Gregorio dohatsua, Petriren alkirat altxatuak,  
beti Jaunaren aurpegia bilatzen zuen,  
eta haren amodioa etengabe kantatzen.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zuk zaintzen duzu zure herria,  
eta amodioz erabiltzen :**

**Gregorio aita-saindua bitarteko,  
emaiezu zuhurtziazko Izpiritua  
zure Elizaren gidari ezarri dituzuneri,  
artaldea sainduago egiteak eman dezoten  
artzaineri betiereko zoriona.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN  
OTOITZA**

**Emaguzu, Jauna, Gregorio sainduaren besta huntan,  
gure onerako izan dadin gure eskaintza :  
opari hunen bidez  
barkatu baitituzu mundu guziaren bekatuak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**KOMINIONEA**  
*Ik. Lk 12, 42*

Huna etxegizon leial eta zentzuduna,  
nagusiak bere sehien buru ezarri duena  
bakoitzari ogi bihi neurria tenorez emaiteko.

**AZKEN OTOITZA** **Kristoren ogi bizi-az indar-berritzen dituzunak, Jauna,  
argi itzazu Kristoren erakaspenez,  
Gregorio sainduaren besta egunean,  
zure egia ikas dezaten eta maitasun urratsetan bete.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Irailaren****Besta****8****MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZEA**

*Maria, graziaz betearen sortzea, Salbatzailearen ama izatera deitua, jadanik Jesusen sortzea iragartzen du, Berri Onaren aitzin seinale. Sortze honek munduari esperantzaren eta salbamenduaren argia pizten dio. Elizak eguna bozkarioz ospatzera deitzen gaitu.*

**SARTZEA**

Bozkarioz ospa dezagun Maria Birjina dohatsuaren sortzea, harenganik sortu baita zuzentasunezko iguzkia, Kristo gure Jainkoa.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

Emaiezu, Jauna, zure zerbitzarieri  
zure graziaren dohaina :  
Maria Birjina dohatsuaren ama izaitea  
gure salbamenduaren hastapena izan zenaz geroz,  
haren sortzearen bestak bake osoa ekar diezagula.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.  
OTOITZA**

Zure Seme bakarra, gizon egina,  
etor bekigu lagun, Jauna :  
bere sortzean amaren birjintasuna ez kendu,  
bainan kotsakratu zuenaz geroz,  
berak atera gaitzala bekatutik,  
eta gure eskaintza zure gogoko egin.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**edo**

Maria Birjina dohatsuaren sortzea pozik ospatzean,  
gure emaitzak dakarzkizugu, Jauna, eta apalki eskatzen :  
lagun gaitzala Birjinarenganik sortuz  
gizon egin zen zure Semeak.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Prefazioa : Maria Birjina dohatsuarena I (440) edo II (441)  
Esker Onezko otoitzak I, II, eta III tan, parte bereziak badira**

**KOMINIONEA** Huna : Birjinak Seme bat sortuko du, harek baitu  
*Is 7, 14 ; Mt 1, 21* bere populua bere bekatuetarik salbatuko.

**AZKEN OTOITZA** **Kominione hunen bidez  
indartzen duzu, Jauna, zure Eliza :  
emaiozu bozkario betea,  
Maria Birjina dohatsuaren sortegun huntan,  
sortze hunek ekarri baitzion munduari  
salbamenduaren esperantza ta hastapena.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Benedizione nagusia erabil daiteke (648, 17)**

## **Irailaren**

### **9 San PIARRES CLAVER, apeza**

*Piarres Claver (1580-1654) hogei urtetan, Bartzelonako Jesusen Konpainian sartu zen. Kolonbiarar ontziz joan eta apeztu zen, 1616an. Zendu arte, ebanjelioa esklabo beltzeri aldarrikatzen iragan zuen. « Esklaboen esklabo » bezala, Kartagenan zendu zen erabat ahitua, urteak eta urteak iraganik arduratasun handiz jendeak konbertitzen.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)  
edo Sainduena (Karitatezko obretan) (918)**

**OTOITZA** **Jainko Jauna,  
esklaboen esklabo egin zenuen Piarres Claver saindua,  
eta maitasun miragarriz indartu haien laguntzeko :  
egizu, haren otoitzari esker,  
Jesu Kristoren jokabideari jarraikiz,  
maita dezagun lagun hurkoa egitez eta egiaz.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**



**Irailaren****12 MARIAREN IZEN SAINDUA**

*Mendez mende, kristauak geldigabe "Agur Maria" errepikatzen dute, aingeruak delako "Birjina Mariari" egin zion agurra. Maria Jainkoari ireki zaio, onartuz bere bizitzan haren eragina. Izena erratea berak pizten du gure baitan gaitasun berri bat, hau da Jainkoa gutan eraginkor izan daitekeela, Mariarengan izan den bezala.*

**SARTZEA** Jainko Jaunak lurreko emazte guzien gainetik  
*Ik. Jdt 13,18-19* benedikatu zaitu, oi Maria Birjina ;  
 Jaunak ospetsu egin du zure izena,  
 eta gizakiek ixildu gabe goratuko zaituzte.

**OTOITZA** Jainko guziahalduna,  
 egizu Maria Birjina dohatsuaren izen loriosa  
 ospatzen ari diren guziek,  
 haren otoitzari esker,  
 zure urrikiaren ontasunak eskura ditzaten.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAINEKO** Egizu, Jauna,  
**OTOITZA** Maria beti Birjina dohatsuaren otoitzak  
 zure gogoko egin ditzala gure emaitzak,  
 eta haren izena goستن dugunak  
 bihur gaitzala Zuretzat onargarri.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Maria Birjina dohatsuaren III (442)**

**KOMINIONEA** Jainkoak Gabriel aingerua igorri zuen birjina batengana ;  
*Ik. Lk 1, 26-27* birjinak Maria zuen izena.

**AZKEN OTOITZA** Egizu, Jauna,  
 Jainkoaren Ama Mariaren otoitzari esker  
 lor dezagun zure benedizionearen grazia,  
 haren izen agurgarria ospatzen dugunek  
 ardiets dezagun gure behar guzietan haren laguntza.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Irailaren**

Oroimena

**13****San JOANI KRIZOZTOMO,  
apezpiku eta Eliz erakaslea**

*Konstantinoplako aitalehena, Joan 1. (349-404 inguru) Krizoztomo izena zor zaio bere ongi mintzatzeko gaitasun paregabeari (Urrezko ahoa). Sirian trebatua izan zen fraideen diziplina bortitzean. Ebanjelioaren lekuko beldurgabea lehen-lehenik, pobreen aldekoa izan zen beti, aberatsen luxu lotsagabeen aurrean. Erbestera ihes joanik hil zen.*

**SARTZEA***Dn 12, 3*

Jakintsuek ortziak bezala distiratuko dute,  
eta besteak bide zuzenetik ibiltzen lagundu dituztenek  
argituko dute izarrek bezala, betiko.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, zure baitan esperantza dutenen indarra,  
Joani Krizoztomo saindua  
miresgarri egin duzu mintzaldietan,  
eta hersturetan indartsu :  
Egizu, haren erakaspeneak argi gaitzaten,  
eta haren pazientziaren etsenpluek indarrez bete.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Joani Krizoztomo saindua erakasle dugula,  
egiten gira, Jainko Jauna, zure goreslari :  
Atsegin dakizula,  
haren besta egunean eskaintzen dugun sakrifizioa.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***1 Ko 1, 23-24*

Kristo gurutzizatua predikatzen dugu,  
Jainkoaren indar eta Jainkoaren zuhurtzia da.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko urrikaltsua, Joani Krizoztomo sainduaren besta  
eguneko kominione hunek  
finka gaitzala zure maitasunean,  
eta zure egiaren aitorle ta lekuko zintzo egin.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Irailaren

Besta

## 14

## GURUTZE SAINDUAREN GORESTEA

Jesu Kristoren hillobiaren gainean eraikia den Berpiztearen-Elizaren-Eskaintza-zelebratu eta biharamunean ospatzen da Gurutze sainduaren besta. Kristoren kurutzea heriotzaren bazkoko garaipenaren trofeoa. Tradizioak hor Gizonaren Semearen ezaugarria ikusten du, zeruan agertuko delarik, bere itzulera iragartzeko. (Mt 24, 30)

## SARTZEA

Ik. Ga 6, 14

Ospe bakarra dugun izan Kristo Jaunaren gurutzean :  
Hartan dugu bai salbatzea, bizia eta berpiztea ;  
Harek baigaitu gu salbatu, harek odolaz gu libratu.

«Aintza zeruetan» erraiten da

## OTOITZA

Jainko Jauna, gizon-emazte guziak  
zure Semearen gurutzeak salbatzea nahi izan duzu :  
egizu, misterio hori mundu huntan ezaguturik,  
erospenaren fruitua zeruan ardiets dezagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

Besta hau igandez gertatzen denean, «Sinesten dut» erraiten da

## ESK. GAIN.

## OTOITZA

Opari hunek garbi gaitzala, Jauna, bekatu guzietarik,  
opari berak kendu baitzuen Gurutzeko aldarean  
mundu guziko bekatua.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## PREFAZIOA

*Gurutze aintzatsuaren garaipena*

Jauna zuekin.

℟. Eta zure izpirituarekin.

Gora bihotzak.

℟. Jaunari dauzkagu.

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℟. Egoki da eta zuzen.

**B**ai, egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti, zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guziz saildu,  
Jainko guziahaldun betierekoari.

Gurutzeko zuhaitzean ezarri duzu  
gizon-emazte guzien salbamendua,  
herioa sortu zen toki beretik bizia sort zadin  
eta zuhaitzean garaile izan zen etsaia,  
zuhaitzean garaitua izan zadin  
Kristo, gure Jaunaren bitartez.

Haren bidez dute aingeruek  
zure handitasuna goraiatzeko,  
zerutiar izpiritu eta botereek zure ospea adoratzeko,  
goiko indar eta serafin dohatsuek  
zuri ahuspez agur egiten,  
eta alegrantzia berak ditu zerutiar guziak inarosten.

Onar, Jauna, haien goresmenekin  
guk ere bat egin ditzagun gure kantuak :

*Saildu ...*

**KOMINIOEA** Nik, lurretik altxatuko nautenean,  
*Jn 12, 32* denak niganat bilduko ditut.

**AZKEN OTOITZA** Jesu Kristo gure Jauna,  
zure eskutik hartu dugun janariak indar-berriturik,  
zuri otoitzez gaude :  
gurutzeko zuhaitzaren bidez biziberritu gaituzunak,  
eraman gaitzazu piztearen zorionerat.  
Errege bizi baitzira gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Irailaren****Oroimena****15****DOLOREETAKO MARIA BIRJINA DOHATSUA**

*Mariak bihotzez bat egin du bere semearen pasioarekin. Horrela lotua izan da manera berezi batez Jesusen berpiztearen loriari. Ondorioz, Jesusen pasioan, Mariaren parte hartzea ospatzen dugu Gurutze Sainduaren biharamunean. Orroitarazten digu, gurutzearen oinetan Jesusek Mariaren gomendio utzi zuela dizipulua, eta haren medioz, Eliza guzia.*

**SARTZEA***Lk 2, 34-35*

Zimeonek erran zion Mariari :  
Huna zure haur hau ezarria dela  
Izraeldar anitzen eror edo altxa-bide, eta eztabada pitzgailu.  
Zuhauri ezpata batek aldean beste zilatuko dauzu arima.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, nahi izan duzu  
zure Semearen oinazetan Amak parte hartzea,  
gurutzearen ondoan xutik : Emaiozu Elizari ere  
Amarekin bat egitea Jesusen Pasionean,  
gero bat egiteko haren piztean.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Jainko urrikaltsua,  
Maria Birjina dohatsua gure ama egin nahi izan duzu,  
Jesusen gurutze ondoan xutik zagola :  
onar itzazu zure izenaren goresgarri  
haren ohoretan ekarri dauzkizugun eskaintzak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Maria Birjina dohatsuarena I (440) edo II (441)**

**KOMINIONEA***1 P 4, 13*

Bozkaria zaitezte, Kristoren paira-lagun zirezten neurrian,  
haren ospea agertzean, alegrantziaz bozkaria zaitezten.

**AZKEN OTOITZA**

Betiko erospenaren sakramendua hartu-eta, Jauna,  
apalik eskatzen dauzugu :  
Maria Birjina dohatsuak  
Kristoren oinazetan parte hartu zuela oroiturik,  
bete dezagula gure baitan Elizarentzat,  
oinaze heietan oraino jasaitekoa dena.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Irailaren**

Oroimena

**16****San KORNELIO, aita saindua  
eta Jondoni XIPIRINE, apezpikua, martirrak**

*Xipirine, Kartagoko apezpikua-ri, lepoa moztu zioten 258ko Irailaren 14an. Haren gutunak, beste idazkiak, eta Pasioaren kondaketak, egiazko artzain baten arima salatzen dute, beti prest pertsekituak diren giristino anai-arrebak laguntzeko. Kornelio aita saindua, erbestean, Civitavecchian hil zenak, bi urtez aita saindu egonik (251-253) Xipirinekin adiskidetu zen. Horra zergaitik, laugarren mendeaz geroz, Eliza Errominikoak Kornelio ospatzen duen Xipirineren heriotze egun berean.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)  
edo Artzainena (Artzain batzu) (893)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Kornelio eta Xipirine sainduak egin dituzu Elizarentzat  
artzain zintzo eta martir indartsu :  
egizu haien otoitzen bitartez,  
fede ta iraupen azkarrez bete gaitzen,  
eta gogotik lan egin dezagun Elizaren batasunerako.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.  
OTOITZA**

**Onar, Jauna, zure herriaren eskaintza,  
Kornelio eta Xipirine martir sainduen besta egunean :  
heieri hersturan indar eman zien bezala,  
guri eman diezagula ezinbestetan iraupen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**AZKEN OTOITZA**

**Hartu dugun sakramenduaren bidez, Jauna,  
egizu, Kornelio eta Xipirine dohatsuak bezala,  
gu ere azkar gaitzan zure Izpirituaren indarrak,  
Ebanjelioko egiaren lekuko izan gaitzen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Irailaren****17 San ROBERT BELARMIN,  
apezpiku eta Eliz erakaslea**

*Roberto Bellarmino Toskanotarra, Jesusen Konpainiakoa, lehenik Louvain hirian izan zen irakasle gero Erroman, non idatzi baitzituen bere "Kontrakotasunak", han zuen eskolatu Luis Gonzaga. Ospe handiko teologoa, Beneventeko kardinale egina izan zen. Irakasle bezain artzain dohatua agertu zen. Erromarat itzulirik, aita sailduaren kontseilari gisa, kurian goi mailako eragina izan zuen. Credo-a errezitatuz zendu zen.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zuk bete duzu Robert Belarmin dohatsua indar eta jakitate miresgarriz, Elizaren fedea zaintzeko : Egizu, haren bitartez, zure herriak oso ta garbi begira dezan fede bera.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Irailaren****19 San JANUARIO, apezpiku eta martirra**

*Benaventoko apezpiku, Januario martir zendu zen Puzzolan, 305ean. Ondoko mendean, haren gorpuzkiak Napolira eramanak izan ziren. Geroztik hiri honek bere saildu begiralea dauka.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)  
edo Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Zuk emaiten daukuzu, Jauna, zure martir Januario sailduaren besta ospatzea : emaguzu haren lagun izaitez bozkaria gaitezen betiko zorionean.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Irailaren**

Oroimena

20

**San ANDRES KIM TAE-GON, apeza, eta  
San PAULO CHONG HA-SANG eta LAGUNAK,  
Korean martirrak**

XVII. mende hastapenean, giristino laiko batzueri esker erlisio kristaua Korean sartu zen. Komunitate bat sortu zuten apezten laguntzarik gabe, laiko baten gidaritzarekin, suhar eta adoretu. 1846an Frantziatik misionest batzu ixilpean etorri ziren. 1839an, lehenik eta gero 1846 eta 1886an pertsekuzioak jasan zituzten. 103 martirren artean, lehenetsi behar da André Kim Tae-Gòn apeza eta misionest kartsua eta Paul Chong Ha-Sang apostolu laikoa, haueri gehitu behar zaizkie hiru apezpiku eta zazpi misionest, Pariseko « missions étrangères »-ekoak, beste gehienak laikoak ziren, gizon edo emazte, eskondu edo ezkongabeak, zahar ala gazteak, Koreako elizaren hastapen emankorrek beren odolean kontsakratu zituzten.

**SARTZEA** Martir sainduak Kristorengatik beren odola ixuri zuten lurrean ; horrengatik, betiereko saria irabazi dute.

**OTOITZA** Jainko Jauna, seme-alaba ordeko asko erein dituzu lurreko bazter guzietan eta Andres eta lagun martir sainduen odola kristau-hazi emankor bihurtu duzu ; egizu, otoi, izan dezagun haien laguntza eta jarraik diezaiogula beti haien etsenpluari. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean, Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAINEKO OTOITZA** Jainko guziahalduna, begira bihotz onez zure herriaren emaitzeri, eta egizu, martir sainduen otoitzari esker, mundu osoaren salbamenerako, bihur gaitezen guhaur Zuretzat opari sakrifizio atsegingarri. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Jendearen aitzinean aitortzen nauena, aitortuko dut Nik ere zeruko nere Aitaren aitzinean, dio Jaunak.  
*Mt 10, 32*



**AZKEN OTOITZA** Indartsuen janaria harturik,  
 martir sailduen ospakizuna egitean,  
 apalik eskatzen dauzugu, Jauna :  
 Kristorekin leial, bat eginik, joka dezagula Elizan  
 gizon-emazte guzien salbamenaren alde.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Irailaren

Besta

### 21 Jondoni MATIU, apostolu eta ebanjelista

*Matiu, apostoluen artean, pertsonaia apartekoa dugu. Kafarnaumeko zerga biltzailearen bokazioa, Jesusen Galileako lehen ministeritzaren gertakari ezaguna da. Matiuren ebanjelioak du hobekienik argitan emaiten itun zaharraren eta berriaren arteko lotura.*

#### SARTZEA

*Mt 28, 19a.20a*

Zoazte eta herrialdeak oro egizkizue ene dizipulu,  
 bataiatzen dituzuela,  
 erakutsiz manatu dauzuetan guzia egiten, dio Jaunak.

«Aintza zeruetan» erraiten da

#### OTOITZA

Jainko Jauna, zure urrikalmendu miragarrian,  
 Mati u zergalaria zure apostolu izaiteko hautatu duzu :  
 emaguzu, haren otoitz eta etsenpluen bidez,  
 zuri zintzoki jarraikitzea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

#### ESK. GAIN..

#### OTOITZA

Matiu sailduaren besta ospatuz,  
 ekartzen dauzugu, Jauna, gure eskaintza,  
 eta apalik eskatzen :  
 begi onez ikus dezazun  
 apostoluen erakaspenez hazi duzun Eliza.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

#### KOMINIONEA

*Mt 9, 13*

Ez naiz justuak deitzerat etorri,  
 bainan bai bekatorosak, dio Jaunak.

**AZKEN OTOITZA** Matiu sainduak Salbatzailea bere etxean hartzeaz izan zuen bozkario bera dugu orain :  
 Egizu, Jauna, bere ogiaz indar-berritu gaitzan beti,  
 ez justuak, bainan bekatoreak deitzerat etorri zen  
 Jesu Kristo gure Jaunak.  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (649,19)**

## Irailaren

Oroimena

23

### San PIO PIETRELCINAKOA, apeza

*Padre Pio, italiar kaputxinoa (1887-1968) Jainkoaren urrikalmenduaren emaile oparoa izan da baketzearen sakramenduaren bidez. Larritasun gizatiar eta izpiritual guziei irekia, Jesu Kristo kurutzefikatuari erabat konfiguratu zen, redenzioaren obratzeko bereziki deitua izanik.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895)  
 edo Sainduena (Fraide batentzat) (914)**

**OTOITZA**

Jainko guziahaldun betierekoa,  
 zure Semearen gurutzean parte izaiteko  
 dohain berezia eman zenion Pio apez sainduari,  
 eta haren zerbitzuaren bidez  
 zure urrikiaren miragarriak berritu zinituen ;  
 egizu, haren otoitzari esker,  
 Kristoren oinazeetan parte izanez,  
 hel gaitzen pizte zoriontsuaren ospera.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean,  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Irailaren****26 San KOZMA eta DAMIAN, martirrak**

*Kozma eta Damian, Cyr hirian (Sirian, Alep-en ondoan) martir eginak izan ziren. Laugarren mendean jadanik, beren hil hobian hainbeste mirakulu eragiten zuten, nun legendak presentatzen baititu dohainezko mediku artatzaileak. Haien gurtza laster hedatu zen Mediterraneo itsas-bazter guzietara.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

**OTOITZA**

Zu goresteko izan dadila, Jauna,  
Kozma ta Damian sailduen besta :  
zure arta miragarriari esker  
hartu baitzuten betiko ospea,  
eta hartzen baitugu guk zure laguntza.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Zure sailduen heriotze baliosa gogoan hartuz, Jauna,  
Martirio guzien iturri eta etsenplu den oparia  
eskaintzen dauzugu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**AZKEN OTOITZA**

Iraunaraz ezazu, Jauna, gu baitan zure dohain saildua  
zuk emanik hartu duguna.

Kozma ta Damian martir dohatsuen besta egunean ;  
ekar diezagula salbamendu ta bake.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Irailaren**

Oroimena

27

**San BIXINTXO Paulokoa, apeza**

*Pauloko Bixintxo (1581-1660) «Karitatearen Alabak» eta «Misioaren Apezak» kongregazioak sortu zituen. XVII. Mendeko frantses izpiritualitate eskolaren maisuetarik izan zen. Batez ere kristau karitatearen modeloa da : miseria guziera aurre egitera saiatzen dena. Sufritzen duen pertsona bakoitzean Jaunaren aurpegia ikusten du.*

**SARTZEA***Ik. Lk 4, 18*

Nere baitan dago Jaunaren Izpiritua,  
olio sainduz kontsokratu bainau :  
igorri nau behartsueri erakusterat Berri ona,  
bihotz urratuak sendatzerat.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, apostoluen dohainak  
eman dizkiozu Bixintxo Pauloko sainduari,  
behartsuak laguntzeko eta eliz gizonak moldatzeko :  
emaguzu kartsutasun bera,  
harek maitatu zuena maita dezagun,  
eta erakutsi zuena bete.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Jainko Jauna, Bixintxo Pauloko dohatsuari eman zenion  
ospatzen zituen zerutiar misterioen arabera bizitzea :  
egizu, sakrifizio hunen indarrez,  
gu ere egin gaitezen zuretzat eskaintza atsegingarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**KOMINIONEA***Sal 107 [106], 8-9*

Bai ona baita denek eskerrak Jainkoari :  
Gizonarentzat egin du anitz miragarri.  
Asetzekoa eman dio gose zoanari,  
Hamikatua zen arimari on-iturri.

**AZKEN OTOITZA**

**Zure sakramendu hunek indar-berriturik, Jauna  
apalik otoitz egiten dauzugu :  
Bixintxo sainduaren etsenpluak iratzar gaitzala eta susta,  
zure Semeak bezala,  
guk ere behartsueri Berri ona ekar diezaiegun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Irailaren****28 San BENZEZLAZ, martirra**

*Wentzeslao I.a Bohemiako Dukeak (Václav) hogeita hamar urte baizik ez zituen anaiak erahil zuelarik (935). Korte basati baten baitan, diziplina garratz bat zeraman, beharduneri buruz bihotz handikoa izan zen. Bere hil hobia, laster beila eta otoitz leku bilakatu zen.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zuk erakutsi diozu  
Benzezlaz zure martir dohatsuari  
zeruko erreinua maiteago izaiten lurrekoa baino :  
emaguzu haren bitartez, gure buruari uko egitea,  
zuri bihotz guziaz jarraikitzeke.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean San LORENTZO RUIZ eta LAGUNAK, martirrak**

*XVII. mendean (1633-1637), Lorentzo Ruiz eta lagunek beren odola isuri zuten Nagasakin, Kristoren maitasunez. Hamasei martirrak Predikarien Ordenako partaideak ziren : bederatzi apez (horietan : Guillaume Courtet frantsesa), bi fraide, bi birjina, hiru laiko, hauen artean: Lorenzo Ruiz aita familiakoa, filipindarrak denak. Urte batzu barne eta egoera desberdinetan, ebanjelioa aldarrikatu zuten, Filipinetan, Formosan eta Japonian, giristino fedearen unibertsaltasunaren lekuko.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

**OTOITZA**

**Jainko gure Jauna, zure erreinuan zoriontsu dira  
mundu huntan zuzenagatik herra jasaiten dutenak ;  
emaguzu Lorentzo Ruizek eta lagun martir sainduak  
zure eta lagun hurkoaren zerbitzuan  
izan zuten iraupen bera.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Irailaren**

Besta

**29 Jondoni MIKAEL, GABRIEL eta RAFAEL, arkanjeluak**

*Mikael, Gabriel eta Rafael arkanjeluekin, Jainkoaren salbamendua parabisutik obratzen duten aingeruak ospatzen ditugu. Jaunaren mezulariak, Haren xedeak eta aginduak ezagutarazteko igorriak, sainduekin batera Jainko bizidunaren adoratzaile kopuru kondaezina osatzen dute.*

**SARTZEA***Sal 103 [102], 20*

Eskerrak eman Jainkoari, haren aingeru indartsuek  
Baitzabiltzate beti zuek  
Haren manuen entzule eta mezulari.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
zure zuhurtzia handian, zuk ezartzen diezu  
bai gizakier bai aingeruer beren egitekoa :  
egizu, zeruan beti zure zerbitzari dituzunak,  
lurrean gure biziaren zaintzaile izan ditzagun.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Gure otoitz apalekin eskaintzen dauzugu, Jauna,  
goresmen-opari hau :  
zure ospearen aitzinerat  
aingeruek ekartzen dutenaz geroz, onar ezazu, otoi,  
eta egizu guretzat salbagarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Aingeruena (443)**

**KOMINIONEA***Sal 138 [137], 1*

Eskerrak zuri, eskerrak Jauna, bihotz osoz  
Aingeruak so, zaitut zu kantuz aipatuko.

**AZKEN OTOITZA**

Zeruko ogiak indar-berriturik,  
apalik eskatzen dauzugu, Jauna :  
indar berri horrekin eta aingeruen gerizapean,  
beldurrik gabe aitzina joan gaitezen  
salbamenduko bidean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Irailaren****Oroimena****30****San JERONIMO, apez eta Eliz erakaslea**

*Jeronimo apeza (340-420) noizean behin Erroman bizi izan zen, hor, Damasio aita sainduaren idazkari izan zen. Betlemen iragan zituen azken hogeita hamabost urteak, Jesus sortu zen harpetik hurbil. Hor penitentzian eta otoitzean, biblia artoski irakurtzen ari izan zen. Latinezko itzulpena eta komentarioak idatzi zituen.*

**SARTZEA***Ik. Sal 1, 2.3*

Liburu sainduen hitza ez bedi zure ahotik urrundu ;  
bainan gau ta egun gogoan erabil ezazu,  
begira ta egin ditzazun hartan izkiriatsuak oro :  
orduak zure biziak izanen du argi ta balio.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, Jeronimo apez sainduari eman diozu  
Liburu sainduen amodio gozo eta bizia :  
egizu zure herriak gehiago har dezan  
zure Hitzaren janaria,  
eta hortan aurki biziaren iturria.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Egizu, Jauna, Jeronimo dohatsuak bezala  
zure Hitza gogoan erabili-eta,  
lehia gehiagorekin eskain diezazugun opari salbagarria.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***Ik. Jr 15, 16*

Zure hitzak nereganat orduko, hazkurri nituen.  
Zure solasa nere bihotzaren poz ta atsegina,  
zure izena baineraman, Jainko Jauna.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko gure Jauna,  
Jeronimo sainduaren besta egunean  
egin dugun kominione hunek  
pitz ditzala zure fededunen bihotzak :  
Liburu sainduen erakaspeneri oharturik,  
ikus dezaten zoin bide har,  
eta bide hortarik ibiliz ardiets betiereko bizia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## URRIKO SAINDUAK

Urriaren

Oroimena

**1** Santa TEREZA JESUS HAURRARENA,  
birjina eta Eliz erakaslea

*Terexa Martin (1873-1897), Karmelean Terexa Jesus Haurrarena deitu denak, bere bizi laburrean serora izen horrek erraiten ziona egin du. Jesusen haur denborako izpirituari jarraiki da, bere « bide ttikia »-ri segituz. Pasioneko Kristo aurkitu du eta haren Bazkoa ezagutzea eman dio. Misionen patroina eta Elizaren erakaslea bezala hautatua izan da.*

**SARTZEA**

*Ik. Dt 32, 10-12*

Inguratu du Jainkoak eta argiz bete :  
Begi ñiñika bezain artoski begiratu.  
Hedatu ditu hegalak, nola arranoak :  
Hartu du berak eta eraman sorbaldetan.  
Jauna bakarrik izan du hak bere bidetan aitzindari.

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
ttipieri eta apaleri idekitzen diezu zure erreinua :  
emaguzu Terexa sainduaren bideari  
sineste osoan jarraikitzea,  
hura bitarteko dugula,  
ager dakigun zure betiereko aintza.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean,  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.**

**OTOITZA**

Miragarria zirela goraki aitortzen dugu, Jauna,  
Terexa dohatsua ohoratuz,  
eta apalik otoitz egiten dauzugu :  
haren merezimenduak zuretzat atsegingarri diren bezala,  
gure eskaintzak zure gogoko izan daitezen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA**

*Mt 18, 3*

Jaunak dio : Ez bazirezte itzultzen, haur ttipien idurikoak bilakatzeko, etzirezte zeruetako erreinuan sartuko.

**AZKEN OTOITZA**

Hartu dugun sakramenduak, Jauna,  
pitz dezala gu baitan maitasunaren garra :  
horrek ekarri zuen Terexa dohatsua osoki zurea izaitera,  
eta zure urrikalmendua denentzat eskatzera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.



## Urriaren

## Oroimena

## 2

## AINGERU BEGIRALE SAINDUAK

*Aingeruen bokazioea Jainkoaren bisaiaren edertasuna kontenplatzea da, eta haren goresmenak gelditu gabe kantatzea . Izkirioek diote ere Jaunak galdegin diotela gizakien ondoan egoitea, anaia begirale. Hori dauku oroitarazten Aingeru begiraleen besta hunek.*

**SARTZEA***Dn 3, 58*

Eskerrak eman, goi-aingeruek, Jainkoari :  
Aipa zazue, bai ta goraipa mendez mende.

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zure arta miresgarrian,  
aingeru sainduak igortzen dauzkiguzu begirale :  
apalik eskatzen dauzugu, beti begira gaitzaten,  
eta heiekin bozkaria gaitezen zeruan.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean,  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Onar, Jauna, aingeru sainduen ohoretan  
egiten dauzugun eskaintza :  
egizu, gure ondoan izan ditzagun,  
gaurko arriskueterik ateratu-eta,  
betiereko bizitzerat hel gaitezen.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Prefazioa : Aingeruena (443)**

**KOMINIONEA***Ik. Sal 138 [137], 1*

Aingeruak so, zaitut zu kantuz aipatuko, nere Jainkoa.

**AZKEN OTOITZA**

**Betiereko biziaren janaria eman daukuzu, Jauna,  
sakramendu huntan :  
eraman gaitzazu, aingeruen bitartez,  
salbamenduaren eta bakearen bidetik.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

## Urriaren

Oroimena

## 4 San FRANTSES Asisekoa

*Kristo bera San Damiano elizan ikusi zuen egunetik, Portioncule kaperan hil artio, San Frantsesek bideetan gaindi ebanjelioa mezutu zuen pobretasunean. Gero ta gehiago lagun bildu zituen bere inguruan eta Frantsiskanoen ordena asmatu. Asiseko « pobre ttikiak » (1182-1226) ez du sekulan gogoan besterik ukan Jesusi jarraitzea baizik bozkarioan, bihotz sinplezian, Elizaren amodioan, eta denentzat agertzen zuen maitasunean.*

**SARTZEA**

Frantses, Jainkoaren gizonak, utzi zuen etxea, utzi bere etxe-partea, behartsu ta pobre egiteko ; bainan Jaunak beretzat hartu zuen.

**OTOITZA**

**Jaingo Jauna,  
Kristoren iduriko egin duzu Frantses saindua,  
bizitze umil eta pobre baten bidez :  
egizu bide beretik ibil gaitezen,  
zure Semeari jarraitzeko, eta zurekin bat egiteko,  
pozez eta maitasunez beterik.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jaingo eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Gure eskaintzak ekartzean, Jauna, zuri otoitzez gaude :  
gai egin gaitzazu, Frantses sainduak hain maite zuen  
gurutzearen misterioa ospatzeko.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**KOMINIONEA***Mt 5, 3*

Dohatsu bihotz barnez behartsu direnak,  
haiena baita zeruetako Erreinua.

**AZKEN OTOITZA**

**Hartu dugun sakramenduaren bidez, Jauna,  
emaguzu Frantses sainduaren  
maitasun eta apostolu-garra :  
guzien salbamendurako erabil ditzagun  
zure bihotz onak eman dauzkigun graziak.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Urriaren****5 Santa FAUSTINA Kowalska, serora**

*1905ean, Poloniako Glogowiec herrian sortua, Santa Faustinak bere bizi laburra Birjina Maria Urrikaltsuaren seroren artean eraman du. Jainkoaren maitasun urrikaltsua aldarrikatzeko deia entzunik, bere izkirioetan utzi dauku bere esperientzia mistikaren lekukotasuna. Obra berri bat bultzatu du Jainkoaren Urrikalmendua mundu guzian iragartzeko eta otoizteko. Krakovin hil da 1938an.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)  
edo Sainduena (Serora batentzat) (915)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Faustina sainduari eman diozu  
zure urrikalmendu neurrigabea sinestea.  
Egiguzu, haren bitartez eta hura bezala,  
zure bihotz onari fidatzea,  
eta eskuzabaltasunez zure amodioari jarraikitzea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urriaren****6 San BRUNO, apeza**

*Cologne Alemaniako hirian kalonjer, Bruno (1035-1101) luzaz teologia erakasle izan zen Reims-en. Gero San Hugues, Grenobleko apezpikuak errezebitu zuen Chartreuse ko mendian, penitentzia eta kontenplazione bizi baten eremaiteko. Bere lagunekin, bizi molde bat hautatu zuen, ermiten bakartasuna eta elgarren arteko bizi lege batzuekin. Urbain II aita sainduak Erromarat deiturik, Kalabrako ermita etxe batean erretiratu zen eta han pausatu.*

**Meza : Sainduena (Fraide batentzat) (914)  
edo Artzainena (Artzain bat) (894-895)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Bruno saindua deitu duzu  
bakartasunean zure zerbitzari izaiterat :  
egizu, haren bitartez, mundu nahasi hunen erdian,  
beti zuretzat bizi gaitzen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urriaren**

Oroimena

7

**ARROSARIOKO MARIA BIRJINA DOHATSUA**

*1571 Urriaren 7an, Mendebaldeko herriak turkoen mehatxutik libratuak izan ziren, Lepanteko garaipenari esker, Arrosarioaren otoitzaren gain ezarri zutena. Egun, Mariaren lekua salbamenduan gogora dezagun Jainkoaren Ama agurtuz, misterio zoriontsu, argitsu, doloretsu eta ospetsuak gidari.*

**SARTZEA***Lk 1, 28.42*

Agur Maria, graziaz betea, Jauna da zurekin :  
benedikatua zare emazte guzien artean, eta benedikatua da  
zure sabeleko fruitua.

**OTOITZA**

Ixur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zure grazia :  
Aingeruak erranik, baitakigu  
Kristo zure Semea gizon egin dela ;  
emaguzu, Maria Birjina dohatsuaren bitartez,  
haren Pasione eta Gurutzearen bidez,  
hel gaitzen piztearen osperat.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Egizu, Jauna,  
gure bihotza izan dadin gure eskaintzaren arabera,  
eta zure Seme bakarraren misterioak ospatuz,  
hark aginduak ardiets ditzagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa : Maria Birjina dohatsuarena I (440) edo II (441)**

**KOMINIONEA***Lk 1, 31*

Huna nun, sabelean sortu-eta,  
seme bat izanen duzun, eta Jesus emanen diozu izena.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko gure Jauna, zure Semearen heriotzea ta piztea  
goraipatu ditugu sakramendu huntan :  
egizu, haren oinazetan parte harturik,  
haren pizte pozgarrian ere bat izan gaitzen.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Urriaren****9 San DIONIXIO, apezpikua, eta haren lagunak, martirrak**

*Dionixio, orain Parise den Lutezeko lehen apezpikuak, martirioa jasan zuen Montmartreko mendi kaskoan (Martirren mendia), III. mende erditsutan. Bere gorputza hiriaren iparrean ehortzi zuten. 495 irian, Santa Jenofak basilika bat eraiki zuen haren hilobiaren gainean, eta geroztik Frantziako erregeak han ehortziak izan ziren.*

**Meza : Martirrena (Martir batzu) (875-879)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, paganoeri Ebanjelioaren predikatzerat  
Dionixio saindua eta haren lagunak igorri dituzu,  
eta beren oinazetan zure indarrez bete :  
Emaguzu, hek bezala,  
mundu hunen fagore lilluragarriak gutiestea,  
eta haren etsaikerien beldurrik ez izaitea.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean San JOANES LEONARDI, apeza**

*Joanes Leonardi (1541-1609), Lukeseko (Toskanian) apezak bere hirian eraiki zuen apez elkarte bat haur eta heldueri katekesia erakasteko, Jainkoaren Amaren Apezak. Erromarat joan eta, semenario bat eraiki zuen, fedearen zabaltzearena. Izurrite batean hil zen, bere maitasunak eramanik.*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (899-900)  
edo Sainduena (Karitatezko obretan) (918)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, ongi guzien iturria,  
Joanes Leonardi apez saindua igorri duzu,  
herri askori Ebanjelioaren eremaiterat :  
egizu, haren bitartez,  
non-nahi ta beti zabal dadin egiazko fedea.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urriaren**

Besta

**10****BAIONAKO ELIZA NAGUSIAREN BESTA**

*Baionako katedralea erdiaroan eraikia izan zen. Gure diozesak baditu hiru katedrale, Baiona, Lezkar eta Olorone, bainan frantses iraultza denboran, beste biak Baionakoarekin lotuak izan ziren diozesa bakarrean. Urte guziz, egungo besta hunek erran nahi du eliza hau otoitz leku berezia dela, apezpikuaren kadera (katedra) dagon eliza. "Etxe hau ez da nolana hiko etxe bat, bainan zerua lurrean, hor baitago Jauna"*

**Meza : Sagaratzearen urtemugan (Eliza sagaratuan) (860)**

**Urriaren****11****San JOANES XXIII.a, aita saindua**

*Joanes aita saindu bihotz onekoa, Angelo Roncalli sortua 1881 ean, Italia iparraldeko laborari semea zen. Apez eta apezpiku izan eta, Pariseko nuntzio apostolika izenatu zuten, munduko bigarren gerla bukaeran. Hortik landa, Veneziako patriarcha bai eta kardinale hautatua ere bai. 1958 an, aita saindu hautatua izan zen Pie XII ondotik, eta Vatikanoko II kontzilioa erabaki zuen, Elizari hats berri bat emaitako. Frantses aita sainduak kanonizatu du 2014 ean.*

**Meza : Artzainena (Aita saindu) (889-890)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
San Joanes aita sainduaren bidez,  
mundu guzira zabaldu nahi izan duzu  
Kristo artzain onaren irudi bizia :  
egizu, haren otoitzari esker,  
alaitasunez zabal dezagun kristau-maitasunaren betea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urriaren****14****San KALIXTRO Ia, aita saindu eta martirra**

*Erromako elizaren diakre zelarik, Kalixtro, lehen esklabo izan zenak Via Appia bidearen ondoan eraiki zuen bere izena duen hilerria. Aita Saindu izendatu eta (217), kartsuki defenditu zuen fedea, teologo zombaiten aurka. Giristinoen kontrako nahasmendu batean hil zen, Transtebere deitu auzoan (222) : orain artio hartaz oroitzen dira gune hortan.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)  
edo Artzainena (Aita saindu) (889-890)**

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
 Kalistro aita saindu dohatsua deitu duzu  
 Elizaren zerbitzuko eta hilen ohoratzeko ;  
 Egizu, haren fedea azkarturik,  
 eta mundu iragankor hunen saretarik libratu eta,  
 ondorego iraunkorra merexi dezagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita,  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Urriaren****Oroimena****15 Santa TEREZA Avila-koa, birjina eta Eliz erakaslea**

*Terexa Avila-koa (1515-1583), Karmelaren berritzailea, emazte bizia eta otoizlaria izan zen. Otoizlariak utzi dauzku Jainkoari buruz igaiteko bidearen segetua, Elizako erakasle handienetarik baten gogoetak. Bere izpiritu biziak Espainia guzira kurritu zuen, Serora etxeak eraikitzeo eta arramoldatzeko. Bere nahikeria : “bakarrik Bakarrarekin” bizitzea.*

**SARTZEA** Orkatzak udan iturriraino zer lehia.  
*Sal 42 [41], 2-3* Zuanat, Jauna, nik ere dudan egarria.  
 Nere arima egarriz eta minez doa  
 Noiz ikus ote guziz indartsu den Jainkoa.

**OTOITZA** Jainko Jauna, zure Izpirituaren bidez  
 argitu duzu Avilako Terexa saindua,  
 Elizari saindutasun betearen bidea erakusteko :  
 egizu haren erakaspenetan aurki dezagun beti janari,  
 eta egiazko saindutasunaren lehiak sutan ezar gaitzan.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Zure gogoko izan dadila, Jauna, gure eskaintza,  
**OTOITZA** zuretzat atsegingarri zen bezala,  
 zuri osoki emana zen Terexa sainduaren bihotza.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Jaunaren bihotz onari kantu sekulako,  
*Sal 89 [88], 2* Haren egia mendez mende dut aipatuko.



**AZKEN OTOITZA** Jainko gure Jauna,  
 zeruko ogiaz hazi duzu zure zerbitzarien familia :  
 egizu, Terexa dohatsuak bezala,  
 zure urrikalmendua gorets dezan beti.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (650, 21)**

## Urriaren

### 16 Santa HEDUIGA, serora

*Heduiga (1174-1243), Silesia eta Poloniako dukesak bere familia fede kartsuan hazi zuen. Bere senarra galdu eta, Trzebnicz, Wroclaw ondoko monasterio zizterzianoan sartu zen. Berak eraikia zen eta bere alaba zen abade. Bere zazpi haurretarik sei galtzeko atsegabea jasan behar izan zuen. Doidoietarik salbatu zen, bere seme zaharrena Tartaroen kontrako gudu batean hila zela jakitean.*

**Meza : Sainduena (Serorentzat) (915) edo (Emazte saindu) (920-921)**

**OTOITZA** Jainko guziahalduna,  
 Heduiga sainduaren bizian denek ikus dezakete  
 zer den egiazko apaltasuna :  
 haren otoitzak ardiets diezagula zeruko laguntza.  
 Zure Seme ...

### Egun berean Santa MARGARITA MARIA ALACOQUE, birjina

*1673-1675 urteetan, Kristok erakutsi zion Marguerita-Maria Alacoque (1647-1690) bisitandina serora gazteari gizonarentzat zuen amodio neurrigabea. Bere bihotza erakutsi eta, galdegin zion besta bat izan zadin haren ohoretan. Zailtasuneri kasurik egin gabe, eta Kolonbiereko San Klaudiok lagundurik, bere bizi osoa misione horrentzat eskaini zuen.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)**

**OTOITZA** Ixur gure gainerat, Jauna,  
 Margarita Maria dohatsuari nasaiki eman zenion Izpiritua :  
 guk ere ezagut dezagun  
 jakitate guziez goragokoa den Jesu Kristoren maitasuna,  
 eta bete gaitezen Jainkoaren betearen beteaz.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.



**Urriaren****Oroimena****17****San IGNAZIO Antiokiakoa, apezpiku eta martirra**

*Antiokiako San Ignazio abere basen erdirat botatua izan zen Erroman, 110 irian. Suplizio hortarako bidean, zonbait Elizeri idatzi zituen gutun eder batzu, giristino bihotz batean sortu amodiozko kantu ederrenetarik : “Utz nezazue argi garbia hartzerat. Ez da nitan ur bizi bat baizik, murmurikan ari : “Zato Aitarenganat”.*

**SARTZEA***Ga 2, 19-20*

Kristorekin gurutzean josia nago ; bizi naiz, bainan ez ni,  
Kristo da ni baitan bizi ;  
Jainko Semearen sinestean bizi naiz, harek bainau maitatu,  
eta harek baitu bere burua neretzat eman.

**OTOITZA**

Jainko guziahaldun betierekoa,  
martir sainduen aitormenez  
edertzen duzu Elizaren gorputz guzia :  
egizu Antiokiako Ignazio sainduaren pasioneak,  
hari betiereko ospea eman zion bezala,  
guri ekar diezagun betiko laguntza.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Atsegin bekizu, Jauna, zure zerbitzarien oparia :  
hala hartu zenuen Ignazio saindua, Kristoren bihi,  
basaberen hortzetan ehoa eta ogi garbi egina.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA**

Kristoren ogi naiz egina,  
Aberen hortzek nezatela ni eho dena :  
Jaun zerukoak nezan aurki hak nahi bezain ogi garbi.

**AZKEN OTOITZA**

Ignazio sainduaren besta egunean  
hartu dugun zeruko ogiak indar-berritu gaitzala, Jauna :  
eta eman diezagula izenez eta egitez giristino izaitea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Urriaren**

Besta

**18 San LUK, ebanjelista**

*Luk, «mediku maitea», Pauloren bide lagunak, bere ebanjelioan kondatu du Kristoren goxotasuna, eta Apostoluen Egintzetan, Elizaren garapena Mendekoste biharamunean. Idazle xorrotxa, berak kondatu Berri ona esker onezko kantika bat da, bozkarioz eta baikortasunez betea.*

**SARTZEA***Is 52, 7*

Bai ederrak direla mendi gainetan,  
bakearen berria ekartzen duen mezulariaren oinak,  
berri ona eta salbamendua erranez dabilanaren oinak.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

Jainko Jauna, Luk saindua hautatu duzu,  
bere hitzez eta idatziez erakuts zezan  
behartsuen alderat duzun maitasunaren misterioa :  
Emaiezu, zure izena pozik aitortzen duteneri,  
gogo bihotzez bat izaitea,  
eta munduko herrialde guzietan  
zure salbamendua ikustea.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Zeruko dohainen bitartez emaguzu, Jauna,  
bihotz zabalez zerbitza zaitzagun :  
Luk ebanjelista dohatsuaren besta egunean  
dakarkizugun eskaintza izan dakigun  
sendabide ta salbamen.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa II (445)

**KOMINIONEA***Ik. Lk 10, 1.9*

Jaunak igorri zituen dizipuluak, hirietan erraiterat :  
Hurbil duzue Jainkoaren Erresuma.

**AZKEN OTOITZA** Jainko guziahalduna,  
zure aldaretik hartu dugun sakramenduak  
saindu egin gaitzala, eta indarrez bete  
San Lukek erakutsi zuen Ebanjelioaren fedean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)**

## Urriaren

### 19 San GRAT, apezpikua

*Olorongo Elizaren apezpiku zen VI. mende hastapenean. San Zezario Arlekoak, 506an, bildu Agdeko kontzilioko dekretuak sinatu zituen. Bere erlikiak Olorongo katedralean beiratuak dira, eta hango patroina da.*

**Meza : Artzainen (Eliza eraikitzaile bat) (896)**

**OTOITZA** Jainko guziahaldun betierekoa,  
zeruko osperat eraman duzu Grat saindua :  
emaguzu pozik ohora dezagun haren besta.  
Haren laguntzak bozkaria gaitzala,  
bizitze saindu baten ondotik  
harekin batean izan gaitezen zeruan.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Eskaintza hauen bidez, Jauna,  
**OTOITZA** zure herriak esker onez bete zaitzala  
fedearen emaitzarentzat.  
Grat sainduaren otoitzari esker,  
egia bihotzean, bila dezagun beti  
zuzen eta saindu den guzia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

**AZKEN OTOITZA** Grat sainduaren otoitzaren bidez,  
begira Jauna sakramendu huntaz hazi duzun zure herria,  
eta izur gure bihotzetarat zure graziaren argia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Egun berean San JOANI Brebeuf eta ISAAK Jogues, apezak,  
eta haien LAGUNAK, Kanadan martirrak**

*Joani Brebeuf eta Isaak Jogues Ipar Ameriketarat igorriak izan ziren zortzi jesuiten buruak dira. Kristorengatik masakratuak izan ziren 1642 eta 1649 artean. Isaak Jogues, lehena, martirioa jasan zuen Irokoarrenan, Auriesvilleko ondoan, New Yorkeko estadoan ; Joani Brebeuf Hurondarren lurretan, Kanadako eskualdean.*

**Meza : Martirrena (Martir misionestentzat) (885)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Joani, Isaak eta haien lagun sainduen bizitzaz  
eta haiek ixuri odolaz adiarazi nahi izan duzu  
betiko erreinuaren itxaropen zorionsua ;  
egizu, zure bihotz onez, haien otoitzari esker,  
azkar dadila egunetik egunera giristinoen fedea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan**

**Egun berean San PAULO Gurutzekoa, apeza**

*Ipar Italian sortua, Paul Danei (1694-1775), Paulo Gurutzekoa deitu zutena Pasionisten kongregazioa eraiki zuenean, gazterik lotu zen Jesusen pasionearen kontenplatzeari eta baserriak ebanjelisatzeari. Bere bizi guzia hortarako eskaini zuen, bere anaia Joanirekin. 1765ean, Erromarat joan zen bizitzerat, Paulo eta Joaniren basilika zaharraren ondoan.*

**SARTZEA** Zuen artean ez dut deus jakin nahi izan,  
*1 Ko 2, 2* Deus Jesus baizik, bai eta Jesus gurutzean.

**OTOITZA** Jainko Jauna, Paulo apez sainduak  
 Gurutzea izan zuen maite bakarra :  
 berak ardiets diezagula zure grazia,  
 haren etsenpluak sustaturik,  
 bihotz handiz har dezagun gure bizitzeko gurutzea.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Jainko guziahalduna, ikus gure eskaintza,  
**OTOITZA** Paulo dohatsuaren besta huntan :  
 eta egizu,  
 Jaunaren Pasioneako misterioak ospatzen ditugunek  
 gure bizian ere bete ditzagun.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Jesu Kristo gurutzefikatua erakusten dugu,  
*Ik. 1 Ko 1, 23.24* Kristo, Jainkoaren indar eta Jainkoaren zuhurtzia.

**AZKEN OTOITZA** Jainko Jauna, Paulo sainduan  
 harrigarriki agertu duzu Gurutzeko misterioa :  
 egizu, opari hunek indarturik,  
 Kristori leialki jarraik gaitezen, eta Elizaren baitan  
 lan egin dezagun denen salbamendurako.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Urriaren****22 San JOANES PAULO II.a, aita saindua**

*Gaztean, Poloniako Wadowicen, Karol Wojtyla istudioetan eta antzerkilaritzan trebe zen. Apez egin zen, eta igorri zuten Krakoviarat erakasle ; herri hortako apezpiku hautatua izan zen. Vatikanoko II kontzilioan parte hartu zuen. 1978an aita saindu hautatua izan zen. Gizonen dretxoan begirale, anitz egin du munduan bakearentzat, eta komunismoaren aurdikitzearentzat. 2005ean hila, Frantses aita sainduak saindutasunerat iganarazi zuen 2014ean.*

**Meza : Artzainena (Aita saindu) (889-890)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, urrikian aberatsa zirena,  
zuk egin duzu San Joanes Paulo II.a, aita saindua,  
Eliza osoaren gidari :  
egizu, haren erakaspenen argira,  
zabal dezagun konfiantza osoz gure bihotza  
gizakiaren askatzaile bakarra den  
Kristo salbatzailearen graziara.  
Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urriaren****23 San JOANES Kapestranekoa, apezka**

*Joanes Kapestranekoa (1386-1456), frantsiskano talenduz betea eta predikari sutua, jende biltzailea zen. Bere lehen lana izan zen bere ordenaren berritzea Frantzian eta Italian ; gero Europan gaindi ibili zen Jean Hus en heresiaren kontra borrokatzeko. Gurutzada bat predikatu behar izan zuen Hongrian sartzeko pundian ziren Turkoen kontra.*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (899-900)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, zure herria bere hersturetan laguntzeko,  
Kapestraneko Joanes saindua eman diozu :  
ezar gaitzazu, otoi, haren gerizapean,  
eta begira ezazu Eliza bake iraunkorrean.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urriaren****24 San ANTONIO-MARIA KLARET, apezpikua**

*Antonio-Maria Klaret, katalunian sortua (1807), predikari famatua izan zen, eta misionest elkarte bat eraiki zuen. Kubako ugartean predikatzerat joan zen, Santiagoko apezpiku hautatua izan, eta ahoan bilorik gabe esklaboen defentsa hartu zuen. Holakoetan beti etsaiak ausarki, hamabost aldiz entseatu ziren haren hiltzerat. Frantzian hil zen, Fontfroideko abadian (1870) beti laidoez kalomniatua.*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (899-900)  
edo (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Antonio-Maria Klaret sailduari  
maitasun eta iraupen eman diozu  
gizakiak Ebanjelioaren argirat ekartzeko :  
Egizu, haren bitartez, atsegin zaizuna bilatuz,  
lehia gaitezen gure anaiak Kristorengan biltzera.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Urriaren****25 Eliza baten sagaratzea, eguna ez delarik ezaguna**

*Besta hunek erran nahi du eliza hau otoitz leku berezia dela, Jainkoaren osperako eta gizakien salbamendurako eraikia. "Etxe hau ez da nolana hiko etxe bat, bainan zerua lurrean, hor baitago Jauna"*

**Meza : Sagaratzearen urtemugan (Eliza sagaratutik kanpo) (862)**

**Urriaren****Besta****28 Jondoni ZIMUN eta JUDA, apostoluak**

*Zimun apostolua Zelota deitua zen, dudarik gabe Erromanoen kontrako gudari armatuetarik bat zelakoan. Juda aldiz, deitua ere Thadée : harek zion Jesusi galde bat egin azken afarian, eta Jesusek arrapostu eman zion : « Maite nauenak nere mezua begiratuko du ; nere Aitak maitatuko du, eta biak etorriko gitaizkio, eta haren baitan biziko gira » (Jn 14, 23).*

**SARTZEA** Zimun eta Juda dira Jainkoak bere betiko amodioan apostolu hautatu gizonak, betiko ospea eman baitiote.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
apostolu sainduen bidez ezagutarazi daukuzu zure izena  
Zimun eta Juda dohatsuak bitarteko, egizu  
gero ta handiago egin dadin zure Eliza,  
beti fededun berriak eginez.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Zuri otoitzez gaude, Jauna,  
**OTOITZA** Zimun eta Juda apostolu sainduen  
betiko ospea goraiatzean :  
onar itzazu gure otoitzak, eta emaguzu  
meza huntan behar bezala parte hartzea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

**KOMINIONEA** Maite nauenak begiratuko du nere errana, dio Jaunak,  
*Jn 14, 23* eta nere Aitak maitatuko du ; harenganat etorriko gira,  
eta haren baitan eginen gure egoitza.

**AZKEN OTOITZA** Zure sakramendua harturik, Jauna,  
Izpiritu Saindua baitan otoitz egiten dauzugu :  
Zimun eta Juda apostoluen besta egunean  
eskaini dugun opariak  
begira gaitzala zure maitasunean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)



## AZAROKO SAINDUAK

Azaroaren

Bestaburua

## 1 OMIASAINDU

Saindu guzien bestaburuak salbatuen oste ezin kondatuzkoa ikusterat emaiten dauku, guhaur heieri buruz bagoazelarik. Kontura gaitezen gure aitzinean ezin ikusizko mundu hortarat joan diren horiekin bat girela. Jainkoaren aldean bizi dira, guretzat ararteko fidagarri.

**SARTZEA** Loria gaiten Jauna baitan, Saindu guzien gaurko bestan.  
Huntaz baitute gaur Aingeruek bozkario,  
Eta denek bat Jainko Semeaz laudorio.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Jainko guziahaldun betierekoa,  
saindu guzien merezimenduak  
egun berean ospatzea emaiten *daukuzu* :  
hoinbeste bitarteko ditugunaz *geroz*,  
emaguzu nasaiki eskatzen dauzugun urrikalmendua.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

**ESK. GAIN.** Atsegin bekizu, Jauna,  
**OTOITZA** saindu guzien ohoretan dakarkizugun *eskaintza* :  
eta zeruan zure betiko lagun aitortzen *ditugunak*,  
*lurrean* gure laguntzaile sendi *ditzagula*.  
Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

**PREFAZIOA** *Gure ama zeruko Jerusalemen aintza*

Jauna zuekin **℞**. Eta zure izpirituarekin.  
Gora bihotzak **℞**. Jaunari dauzkagu.  
Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari **℞**. Egoki da eta zuzen.

[kantuz : 618]

**B**ai egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saildu,  
Jainko guziahaldun betierekoari.

Zuri esker ospatzen baitugu egun zure hiri saildua,  
gure ama dugun zeruko Jerusalem.  
Han ditugu orain bilduak, gure haurride dohatsuak,  
beti ta beti zu goستن ari.

Fedearen bidetik harat goatzi gu ere,  
pozik ikusten ditugula zeruko argi ederrean,  
Elizaren seme alaba horiek,  
gure ahuleziari zuk lagun eta etsenplu emanak.

Horrengatik,  
nehork ezin kondatuzko sailduen ostearekin,  
eta aingeru guziekin batean,  
aho batez goresmen hau  
kantatzen (erraiten) dauzugu : *Saildu ...*

**Esker Onezko Otoitzetan : parte bereziak.**

**KOMINIONEA**

*Mt 5, 8-10*

Dohatsu bihotz garbiak, Jainkoa ikusiko baitute.  
Dohatsu baketiarrak,  
Jainkoaren seme deituak izanen baitira.  
Dohatsu zuzentasunarengatik gaizki erabiliak direnak,  
haiena baita zeruetako Erreinua.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko Jauna, saildu guzien besta egunean,  
zu aitortzen zaitugu miragarri, zu bakarrik saildu :  
zure grazia eskatzen dauzugu,  
zure maitasunaren betean saildu egin gaitzazun,  
eta eraman lurreko mahai huntarik,  
zeruko etxean prestatua daukuzun mahai ederrerat.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (ondoko orrialdean)**

**BENEDIZIONE NAGUSIA :**

Sainduen ospe ta bozkario den Jainkoak  
benedika zaitzatela betiko benedizioez  
Saindu guzien egun huntan.

**R.** Amen.

Haien bitartez gaurko gaitzetarik ateratu-eta,  
haien etsenplu sainduak argiturik,  
Jainkoaren eta gizakien zerbitzuan lehia zaitezela.

**R.** Amen.

Egun huntan Eliza bozkariotan dago,  
bere seme-alabak aingeruekin batean ikusirik :  
zuek ere heiekin batean izan dezazuela zeruko zoriona.

**R.** Amen.

Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak :  
Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

**R.** Amen.

**Azaroaren****Oroimena****2****FEDEDUN HIL GUZIEN OROIMENA**

*Jainkoaren altzoan direnen bestaburuaren biharamunean, Elizak galdegiten dauku otoitz egitea piztearen esperantzan hil diren gure haurrideentzat. Hilentzat otoitzaldi hau aspaldidanikako ohidura giristinoa da, Cluny otoizlekuan, 998an, Odilon saindua abade zelarik, hasi baitzen hilen ospakizun berezi hori. Gure otoitza heda dadila ere Jaunak bakarrik haien fedea ezagutzen duen hil guzieri.*

## I - Lehen meza

**SARTZEA***Ik. 1 Ts 4, 14 ;**1 Ko 15, 22*

Jesus hil eta piztu dela, sinesten dugu ;  
berdin ere, Jesusen baitan lokartu direnak,  
Jainkoak eramanen ditu harekin batean.  
Adamen baitan dira hiltzen gizaki guziak,  
Kristoren baitan dira denak piztuko.

**OTOITZA**

**Bihotz onez entzun, Jauna, gure galdeak :  
handiago egizu, otoi,  
zure Seme hiletarik piztua baitan dugun fedea,  
gure haurride hilak piztuko direlako esperantza ere  
handiagoa izan dadin.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Begi onez ikus, Jauna, gure eskaintza :  
hilak diren zure fededun guziak  
sar daitezten zure Erreinuan,  
bere maitasun-misterioan  
bat egin gaituen zure Semearekin.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Hilen prefazioa, n°1-5 (452 - 456)**

**KOMINIONEA***Jn 11, 25-26*

Ni naiz piztea, ni bizia :  
Nitan sinesten duen hura, hil bada ere biziko da.  
Nitan sinetsiz bizi dena, hura sekulan ez da hilen.

**AZKEN OTOITZA**

**Idek iezaiezu, Jauna, gure haurride hileri  
argi ta bake den zure etxea :  
haientzat ospatu baitugu Bazko-sakramendua.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Benedizione nagusia erabil daiteke (651, 23)**

## II - Bigarren meza

**SARTZEA***Ik. 4 Esd 2, 34.35*

Betiereko zoriona, hileri, otoi, eman, Jauna,  
Betiko argi zabalean, zure argiak argi ditzan.

**OTOITZA**

Zu zira, Jainkoa, fededunen bizia, zu zintzoen ospea,  
zuk salbatu gaituzu zure Semearen heriotze ta pizteaz :  
urrikal zaite gure haurride hilez,  
eta Kristo baitan piztuko girela sinetsi dutenaz geroz,  
goza dezatela betiko zoriona.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Jainko guziahaldun urrikaltsua,  
sakrifizio huntan eskaintzen den Kristoren odolaz  
ken zure zerbitzari hilen bekatuak :  
zure bihotz onak garbiago egin ditzala,  
bataioko urean garbitu dituzunak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

*Hilen prefazioa, n°1-5 (452 - 456)*

**KOMINIONEA***Ik. 4 Esd 2, 35*

Betiko argi zabalean dutela izan argi, Jauna,  
Zure sainduen betiereko ospe hartan ,  
Zuk hain baituzu bihotz ona.  
Betiereko zoriona hileri, otoi, eman, Jauna.  
Betiko argi zabalean, zure argiak argi ditzan.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko Jauna,  
guretzat hil eta aintzaz piztu den  
zure Semearen sakramendua harturik,  
otoitz egiten dauzugu gure haurride hilentzat :  
Egizu, Kristoren Bazko-misterioan garbitu-eta,  
zeruko zoriona ardiets dezaten pizte-egunean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

*Benedizione nagusia erabil daiteke (651, 23)*

## III - Hirugarren meza

**SARTZEA***Ik. Erm 8, 11*

Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoak  
gure gorputz hilkorak ere piztuko ditu,  
gure baitan dagon Izpirituaren bitartez.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, zure Seme bakarrak herioa garaiturik,  
zure Erreinurat iraganarazi duzu :  
egizu, gure haurride hilek ere,  
haren garaipenean parte harturik,  
betierean ikus zaitzaten,  
zu beren Egile ta Salbatzailea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Onar, Jauna, Kristoren baitan lo dauden guzientzat  
egiten dauzugun eskaintza :  
zure Semearen sakrifizio bakarrak atera ditzala  
herioaren lokarrietarik,  
eta ardiets diezaiela betiereko bizia zure ondoan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

*Hilen prefazioa, n°1-5 (452 - 456)*

**KOMINIONEA***Ik. Flp 3, 20-21*

Salbatzaile igurikatzen dugu Jesu Kristo gure Jauna,  
harek baitu gure gorputz ezdeus hau aldaturen  
bere gorputz loriosaren idurirat.

**AZKEN OTOITZA**

Eskaini dauzugun sakrifizio hunen bidez, ixur, Jauna,  
zure urrikalmendu nasaia gure haurride hilen gainerat :  
bataioan zure grazia eman diezuneri,  
emaiezu orain betiko zorionaren betea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

*Benedizione nagusia erabil daiteke (651, 23)*

**Azaroaren****3 San MARTIN Porresekoa, fraidea**

*Peruko Liman sortua, Martin Porresekoa (1579-1639), mestizo bat zen, espanol zaldun baten ezkontzaz kanpoko semea. Limako dominikanoen konbentuan, eri artatzaile zen. Otoitzean, partikulazki gauaz, atxemaiten zuen nahiko argia, eta katixima egile famatua izan zen.*

**Meza : Sainduena (Fraide batentzat) (914)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Porreseko Martin saindua  
apaltasun-bidetik eraman duzu zeruko osperraino :  
emaguzu, haren bidetik ibili-eta,  
harekin batean zeruan sar gaitezten.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Azaroaren****Oroimena****4 San XARLES BORRROMEO, apezpikua**

*Xarles Borromeo (1538-1584), Milaneko arkapezpikua, Trenteko kontzilioak nahi zuen apezpikuaren etsenplua izan zen. Apezen bizia ereformatu zuen, kontzilioak bilduz eta semenarioak idekiz. Girstinoen bizi moldeak ere berritu zituen bere bisita pastoralen bidez. Bere bizian, denentzat ebanjelioaren egiazko lekukoa izan zen.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA**

**Zain ezazu, Jauna, zure herrian,  
Xarles Borromeo sainduari nasaiki eman zenion izpiritua :  
Elizak, beti ta beti berriturik,  
eta Kristoren idurirat izanik,  
haren aurpegia erakuts diezaion munduari.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Begi onez ikus, Jauna, Xarles sainduaren besta egunean  
zure aldarerat ekarri ditugun eskaintzak :  
hura, bai bere artzain lanean, bai bertutean  
apezpiku miresgarri egin zenuen ;  
egizu, guk ere, sakrifizio hunen bidez,  
fruitu nasaiak eman ditzagun.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**AZKEN OTOITZA** Kominione hunek eman diezagula, Jauna,  
bihotzeko indarra : horrek egin zuen Xarles dohatsua  
zure zerbitzuan leial eta maitasunean kartsu.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Azaroaren**

**Besta**

## 9 LATRANEKO ELIZAREN SAGARATZEA

*Latraneko basilika aita sainduaren katedralea da. 320 urte irian, Konstantin imperadoreak eraikia, urtez eta ohorez mendebaldeko eliza guzietan lehena da. Petriren ondoko gisa, aita sainduaren misioea da Jainkoaren populuaeren batasunaren printzipio eta zimendu izaitea ; hori dugu sagaratze egun huntan ospatzen.*

**SARTZEA**

*Ik. Ap 21, 2*

Hiri saindua, Jerusalem berria, ikusi nuen jausten zerutik,  
Jainkoaganik, ezkonberria bere senarrarentzat bezala apaindua.  
**edo**

*Ik. Ap 21, 3*

«Huna Jainkoak jendeen artean ezarri duen bizilekua;  
heiekin biziko da; heiek ukanen ditu bere herri,  
eta bera “Jainkoa heiekin” izanen da.

**«Aintza zeruetan» erraiten da**

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
harri biziak dituzu hautatzen  
zure aintzaren betiko etxea eraikitzeko :  
emenda ezazu Elizan zure graziaren izpiritua,  
leial dagokizun herria gero-ta handiago egin dadin,  
zeruko Jerusaleme eraikitzeraino.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**edo**

Jainko Jauna,  
zure herriari Eliza eman diozu izena :  
egizu zure izenean bilduak diren fededunek  
izan dezaten zure beldurra ta maitasuna,  
zuri jarraitzeko gogoia,  
eta, zu gidari, hitzeman zerurat heltzeko grazia.  
Zure Seme ...

**Besta hau igandez gertatzen delarik, Sinesten dut erraiten da.**



**ESK. GAIN.** Onar, Jauna, gure eskaintza,  
eta egizu ardiets dezagun hemen  
sakramenduen indarra eta gure otoitzen fruitua.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

*Prefazioa : Sagaratze urtemugan (860)  
Eliza Kristoren emaztea eta Izpituaren tenploa*

**KOMINIONEA** Zuek ere, harri biziak iduri, izpirituzko tenplu eginen zaituzte  
*Ik. 1 P 2, 5* Jainkoak eta apez sagaratuko.

**AZKEN OTOITZA** Jainko Jauna,  
goiko Jerusaleme agertzen daukuzu  
Elizaren ezagutgarri iraunkorrean :  
sakramendu hunen bidez,  
zure graziaren egoitza egin gaitzazu,  
eta sar zure aintzaren etxean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

*Benedizione nagusia erabil daiteke (651, 22)*

## Azaroaren

## Oroimena

### 10 San LEON Handia, aita saindu eta Eliz erakaslea

*San Leon Handiak (440-461) indar berarekin buru egin zuen barbaroen inbasioneri eta Jesus haragi egitea gutiesten zuen Eutychesen heresiari. Egiatzko artzain gisa, populuari noiznahi oroitarazten zion fedeak egun guzietako bizian behar duela agertu.*

**SARTZEA** Bake-elkargoa egin zuen Jaunak harekin,  
*Ik. Si 45, 24* eta saildutegiaren eta herriaren buru ezarri zuen ;  
hola, izanen zen apezgo nagusia betiko.

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
apostoluen harroka sendoaren gainean ezarri duzu Eliza,  
eta ez duzu behinere utzi gaizkiaren indarra nagusitzera :  
San Leon aita-sainduaren bitartez  
begira ezazu beti zure egian eta bakean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.**  
**OTOITZA**

Eskaintza hau ekartzean, Jauna, eskatzen dauzugu :  
argi ezazu amultsuki zure Eliza,  
zure artaldea bazter guzitan aitzinatu dadin,  
eta artzainak, zuk gidaturik, zure gogoko izan daitezten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIOEA**  
*Ik. Mt 16, 16.18*

Simon Petrik Jesusi ihardetsi zuen : «Zu zira Kristo, Jainko  
biziaren semea.» Jesusek orduan : «nik diozut : Petri (Harri)  
zira zu, eta harri horren gainean eraikiko dut neure Eliza.

**AZKEN OTOITZA**

Gida ezazu, Jaun ona,  
mahai saindu huntan indar-berritu duzun Eliza :  
esku azkarrez zuk eramanik,  
libertatean aitzinatu dadin,  
eta fedearen betean iraun dezan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Azaroaren**

**Oroimena**

**11 Jondoni MARTINE, apezpikua**

*Martin, Hungariako soldado bat konbertitua, lehenik Poitiers-ko Hilarioren dizipulu egin zen eta Ligugen, mendebaldeko lehen monasterioa ideki zuen. Tours eko apezpiku (372) hautatua, fraide misionest talde bat bildu zuen. Heiekin Europa mendebaldeko eskualde asko ebanjelisatu zituen. 397an hil zen.*

**SARTZEA**  
*Ik. 1 Sm 2, 35*

Xutiaraziko dut enetzat apez bat leiala,  
ene bihotzaren eta gogoaren arabera ariko dena, dio Jaunak.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, Jondoni Martinek  
goretsi zaitu bai bizitzeaz bai heriotzeaz :  
berri itzazu gure bihotzetan zure graziaren miragarriak,  
ez herioak, ez biziak ez gaitzan zukan berexi.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Saindu egizu, Jauna, gure eskaintza,  
**OTOITZA** Martine dohatsuaren besta egun huntan :  
 lagun gaitzala, lur huntako atseginen eta atsegaben artetik  
 beti zureganat joaiten.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Egiaz derautzuet,  
*Mt 25, 40* ene haurrideak diren xumeen horietarik bati  
 egin duzuen aldi guzietz, eni dautazue egin.

**AZKEN OTOITZA** Jauna, batasunaren sakramendua eman daukuzu janari :  
 egiguzu beti zure nahiaren arabera bizi gaitezen,  
 Martine saindua osoki eman zitzaizun bezala,  
 gu ere bozkaria gaitezen egiazki zureak izanik.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Azaroaren

## Oroimena

### 12 San JOSAFAT, apezpiku eta martirra

*Orthodoxo sortua (1580), Josafat Kuncewycz goizik sartu zen Erromakoari lotua den Ukrainiar Elizan. 1617an, Polotzeko arkapezpiku deitua izan zen, eta bere populuaren zerbitzari kartsu bilakatu. Bere lanak hain zuen arrakasta handia nun Eliza katolikoaren etsaiak jatzarri baitzizaizkion. Vitebsken masakratu zuten bisita pastoral bat egiten ari zelarik (1623).*

**SARTZEA** Jaunaren batasunari eta arbasoen legeari jarraikiz,  
 Jainkoaren sainduak haurrideen maitasunean iraun zuten,  
 izpirituz eta fedez bat.

**OTOITZA** Pitz, Jauna, zure Elizan Josafat sainduari  
 bizia bere ardientzat emanarazi zion izpiritua :  
 egizu, guk ere, hura ararteko eta Izpiritu berak indarturik,  
 gure bizia beldurrik gabe  
 eman dezagun gure haurrideentzat.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Jainko guziz ona, benedika, otoi, gure eskaintzak,  
**OTOITZA** eta azkar gu baitan, Josafat sailduak  
 bere odola ixuriz aitortu zuen fedea.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Bere bizia neregatik galduko duenak, aurkituko betiko.  
*Ik. Mt 10, 39*

**AZKEN OTOITZA** Zeruko mahai hunek, Jauna, eman diezagula  
 indarrezko ta bakezko Izpiritua :  
 Josafat dohatsuak bezala, gogotik bizia eman dezagun,  
 Elizaren ohorea ta batasuna zaintzeko.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Azaroaren

### 15 San ALBERT Handia, apezpiku eta Eliz erakaslea

*Albert Handia, Bavierar dominikanoa, lehenik Parisen erakasle izan zen, eta han Tomas Akinekoa ukan zuen ikasle gisa (1245-1248). Bi urteko parentesia batean, Ratisbonneko apezpiku deitua izan zen ; bainan etengabe bere ikertzale eta erakasle lanari lotua zen, fisikaren legeak aztertu beharrez, Kreatzailearen lana erakusteko. Kolognen hil zen 1280ean.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
 Albert apezpiku saildua handi egin zenuen  
 zure fedea eta gizon-zuhurtzia bat egiten zituela :  
 emaguzu, haren erakaspeneri jarraikiz,  
 jakitatean aitzinatuz goazilarik,  
 gero ta hobeki ezagut eta maita zaitzagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Azaroaren****16 Santa MARGARITA Eskoziakoa**

*Ingles printsesa, Margarita Hungarian sortu zen (1046 urte irian). 1070ean, Malcom III Eskoziako erregearekin ezkondu zen, eta zortzi haur eman ziozkan. Kultura, abilezia eta maitasun handikoa baitzen, bere senarrarentzat laguntza handikoa izan zen eta bere populuaren erlisionea berpizteko anitz egin zuen. Zonbait egun barne, senar emazteak biak betan hil ziren 1093ean*

**Meza : Sainduena (Karitatezko obretan) (918)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Margarita dohatsua  
miresgarri egin zenuen pobren alderako amodioaz :  
egizu, hura bezala eta haren otoitzeri esker,  
gizakien artean, zure bihotz onaren iduriko ager  
gaitezen.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Egun berean Santa GERTRUDA, birjina**

*Gertruda (1256-1302), Helfta (Saxe) ko abadiako serorak hogeita bost urte zituen, berak dionaz, Jaunak "hartu, altxatu eta bere aldean ezarri" zuelarik. Ordutik hara, Jainkoari egiazki juntaturik bizi izan zen, Izkirioak eta Elizako Erakasleak barnatuz, eta Kristo gurutzizatuaren aitzinean heldu zitzaizkion gogoetak idatziz.*

**Meza : Birjinena (Birjina batentzat) (904-906)  
edo Sainduena (Serora batentzat) (915)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Gertruda dohatsuaren bihotzean  
zuretako bizi-leku atsegina egin zenuen :  
haren otoitzen bidez, ken gure bihotzeko ilunbeak,  
pozik sendi dezagun gure baitan zaitugula,  
eta gure baitan ari zirela.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Azaroaren**

Oroimena

**17 Santa ELIXABET Hungriakoa**

*Elixabet Hungariakoa (1207-1231) Luis IV Thuringekoarekin ezkondu zen hamalau urtetan ; harekin sei urte zoriontsu ukan zituen, biak elgarrekin frantsiskano bideari jarraikitzen zirela. 1227an, Luis hil zen, Elixabet haur beharretan zelarik. Ordutik hara, bizi pobre batean higatu zen, beharretan zirenen zerbitzuan.*

**Meza : Sainduena (Karitatezko obretan) (918)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Elixabet sainduari eman zenion behartsuen baitan Kristo ezagutzea eta gorestea : emaguzu, haren bitartez, behartsuak eta atsegabetuak beti amodiorekin zerbitza ditzagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Azaroaren****18 Jondoni PETRI ta PAULOREN ELIZEN SAGARATZEA, apostoluak**

*Petriren gorputza Vatikanon, Neronen zirkuaren ondoan, ehortzia izan zen. Paulorena aldiz Ostiko bidean. IV. mendean, Konstantin inperadoreak basilika handi bat eraiki zuen Petriren hilobiaren gainean, eta ttipiago bat Paulorenaren gainean. Hoiien sagaratzea egun ospatzen dugu bi apostoluetaz oroituz.*

**SARTZEA**

Dener dituzu buru eman, lurrez lur mundu zabalean.

*Ik. Sal 45 [44], 17-18*

Hek dire, Jauna, sekulako zure izenaz oroituko.

Jendeek zuri laudorio, mundu mendeek dirauteno.

**OTOITZA**

**Begira ezazu, Jauna, zure Eliza Petri ta Paulo apostoluen gerizapean : Jainkoaren nahiaren berri eman ziotenaz geroz, haien bidez ere har dezala azken eguneraino handitzeko behar duen zure grazia.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.** Gure eskaintza ekartzean, Jauna,  
**OTOITZA** zure bihotz onari dei egiten diogu :  
 begira ezazu oso osoa gure bihotzetan  
 Petri ta Paulo apostoluenganik dugun fedea.

**Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)**

**KOMINIONEA** Jauna, zuk dauzkazu betiereko biziaren hitzak, eta guk,  
*Ik. Jn 6, 68-69* sinesten dugu zu zirela Kristo, Jainkoaren Semea.

**AZKEN OTOITZA** Zure herria, Jauna,  
 zeruko ogiaz indar-berritu duzu :  
 bozkaria dadila gidari ta zaintzaile dituen  
 Petri ta Paulo apostolu sainduak goraiatzean.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## Azaroaren

## Oroimena

### 21 MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ESKAINTZEA

*Lehen ospatzen zen Maria Birjina Tenploan presentatua. Egun, ekialde eta mendebaldeko Elizak oroitzen dira Birjina nota gabeak, gazte gazterik, bere burua Jaunari osoki eskaini zuela. Gristino guziek Maria "graziaz betean" ikus dezakete bizi kontsokratuaren etsenplua.*

**Meza : Maria Birjina dohatsuarena (864-871)**

**OTOITZA** Maria Birjina guziz sainduaren besta  
 ohoratzen duguneri, Jauna,  
 emaguzu, haren bitartez,  
 guri ere zure graziaren betetik.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Azaroaren**

Oroimena

**22 Santa ZEZILIA, birjina eta martirra**

*V. mendearen bukaeran, Zezilia, Baleriano eta Tiburzen martirioak, giristino birjintasuna goratuz, fama handia eman zion erromatar Zezilia, Kalisten hilerrian ehortzia denari. Bere Transtevereko basilikak atxikitzen du bere Oroimena, eta bere Pasionearen zati batengatik, musikarien patroina bezala hautatua izan da.*

**Meza : Martirrena (Birjina martir bat) (887)  
edo Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)**

**OTOITZA****Jainko Jauna**

**Zezilia zure zerbitzari sainduaren bestaz  
urtero pozten gaituzu ;**

**egizu otoi, haren biziaren etsenpluari jarraikiz,  
hura bezala bizitzera lehia gaitezen,  
eta Jesu Kristok bere sinesdunetan  
egiten dituen miragarriak kanta ditzagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Azaroaren****23 San KLEMAN I.a, aita saindu eta martirra**

*Lino eta Kletoren apezpiku urteek oroitzapen guti utzi dute. Haien ondotik, Kleman Petriren lehen ondokoa bezala ikusia da, hartaz errana da « Apostoluak ikusiak zituen, eta haien predikuak oraino beharrietan zauzkan ». 95 urte irian Korintiarreri haien batasuna sustatzeko idatzi zien gutunean, Klemanek emozio handirekin aipatzen ditu Petri eta Paulo.*

**Meza : Martirrena (Martir bat) (884)  
edo Artzainena (Aita saindu) (889)**

**OTOITZA**

**Jainko guziahaldun betierekoa,  
miresgarria zira zure sainduen indarrean :  
emaguzu Kleman sainduaren besta pozik ospatzea ;  
berak zure Semearen apez ta martir izanik,  
odolaz aitortu zuen, ospatzen zuen misterioa,  
eta egintzetan bete, hitzetan erakusten zuena.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**



**Egun berean San KOLONBAN, abadea**

*Kolonban Irlandes fraideak Mantxako kanala trebesatu zuen 590 urte irian, eta Galia Ipar-ekialdea eta Rhin ibai eskualdea ebanjelisatu. Gero Luxeuil en plantatu zen, eta han lege garratzekilako monasterio bat eraiki zuen. Hango proiektua loratu eta, Italiarat jo zuen, eta Bobbion beste monasterio bat eraiki : han hil zen 615 ean.*

**Meza : Artzainena (Misionestentzat) (899-900)  
edo Sainduena (Abade bat) (913)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Kolonban saindua baitan  
miragarriki bat egin dituzu  
Ebanjelioa zabaltzeko lehia eta komentu-bizirako karra :  
egizu, haren bitartez eta harek bezala,  
lehia gaitzen zu oroz gaintetik bilatzerat,  
eta fededunen herria handiarazterat.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Azaroaren****Oroimena****24****San ANDRES DUNG-LAC, apeza,  
eta LAGUNAK, Vietnamen martirrak**

*XVI. mende hastapenean hasi zen Vietnam herriaren ebanjelizatzea. Onkoko mendeetan, partikulazki Minh-Mang inperadorearen erreinuan (1820-1840), giristino askok beren bizia martir bezala eskaini zuten. Apez, serora eta fraide, katekista eta bataiatu berriek zernahi atsegabe jasan behar izan zituzten, Elizaren lekuko zintzo bilakatzen zirela. Horien artean 117 lagun ohoratuak dira egun, ezagutuena Theofano Venard Pariseko Missions Etrangères eko kidea.*

**SARTZEA**

*Ik. Ga 6, 14a ;  
1 Ko 1, 18*

Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzeaz baizik harro izan gaitzen, gurutzeko heriotzearen mezua Jainkoaren indarra baita salbatuak izan girenentzat.

**OTOITZA**

**Aitatasun ororen iturri eta sorburu ziren Jainkoa,  
odola ixurtzeraino onartu zuten  
Andres eta lagun martir sainduak  
zure Semearen gurutzea :  
egizu, haien otoitzari esker,  
zabal dezagun Zuganako maitasuna gure haurrideentzat,  
eta lor dezagun zure seme-alaba izena, baita izana ere.  
Zure Seme ...**

**ESK. GAINEN** Onar, Aita guziz ona,  
**OTOITZA** Vietnameko martir sailduen pasionea ospatzean  
eskaintzen dauzkizugun oparigaiak,  
eta egizu, gure biziko ezbeharren artean,  
bizi gaitezen beti Zuri leial,  
eta eskain dezagun  
gure burua Zuretzat opari atsegingarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Zoriontsuak zuzentasunagatik gaizki erabiliak direnak,  
*Mt 5, 10* haiena baita zeruetako erreinua.

**AZKEN OTOITZA** Ogi berak hazi gaitu, Jauna,  
zure martir sailduen Oroimena ospatu dugun huntan ;  
apalki eskatzen dauzugu,  
iraun dezagun denek bat Zuganako maitasunean,  
iraupenari agindu betiko saria ukan dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

---

## Azaroaren

### 25 Santa KATALINA Alexandriakoa, birjina eta martirra

*Katalina, IV. mendean Alexandriako martirra, neska gazte noblea eta eskolatua omen zen. Filosofo pagano batzuen aitzinean, bere fedea aitortu zuen martirioa jasaiteraino. Bere izeneko monasterio zaharra kausi daiteken Sinai menditik, bere gurtza Eliza guzian hedatu da. Erdi aroan, sailduetan famatuena zen, ohidura asko berari lotuak zirelarik.*

**Meza : Martirrena (Birjina martir bat) (887)  
edo Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)**

**OTOITZA** Jainko guziahaldun betierekoa,  
Zuk eman zenion zure herriari  
Santa Katalina birjina eta martirra :  
haren otoitzari esker, indar gaitzazu fede iraunkorrean,  
eta emaguzu aspertu gabe  
Elizaren batasunerako lan egitea.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sailduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

## Azaroaren

Besta

## 30 Jondoni ANDRES, apostolua

*Andres, Petriren anaia eta hura bezala Bethzaiden arraintzari, apostoluetan lehena izan zen Jesus Jordan ibaiaren bazterrean ikusi zuena. Berak zuen Petri Jesusenganat bildu. Tradizioaren arabera, Patrasen gurutzizatua izan zen, Grezian ebanjelioa predikatu ondoan. Konstantinopleko elizak patroi bezala hautatu du, « lehen deitua » bezala ohoratzen duelakoan.*

**SARTZEA***Ik. Mt 4, 18-19*

Galileako itsas-hegian, Jaunak ikusi zituen bi anaia, Petri eta Andres ; deitu zituen : «Zatozte ene ondotik, gizaki arraintzale eginen zaituztet.»

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

Denen Nausia ziren Jainkoa, ahuspez eskatzen dauzugu :  
Andres apostolu dohatsua,  
zure Elizaren erakasle eta gidari izan zena,  
gure ararteko izan dadin beti zure aitzinean.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Jainko guziahalduna, zure gogoko egin gaitzala  
Andres sainduaren bestan  
ekarri dauzugun eskaintzak,  
eta zuk onarturik, bizia eman diezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Apostoluen prefazioa I (444) edo II (445)

**KOMINIONEA***Ik. Jn 1, 41-42*

Andresek erran zion bere anaia Zimuni : «Kausitu dugu Mesias, erran nahi baita Kristo». Eta eramane zuen Jesusenganat.

**AZKEN OTOITZA**

Hartu dugun sakramenduak, Jauna,  
indarrez bete gaitzala :  
Andres apostolu sainduak bezala,  
Jesusen gurutzea eramanez,  
ardiets dezagun harekin bizitzea zeruan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (649, 19)

## ABENDOKO SAINDUAK

### Abendoaren

Oroimena

#### 3 San FRANTSES XABIHEREKOA, apeza

*Frantses Xabierekoa nafartar euskalduna (1506-1552) Ignazio Loiolakoaren lehen lagunetarik izan zen. 1541ean, India portugestetako Misionest hautatua, Kristo predikatu zuen Indian, Ceylan, Moluka eta Japonia uharteetan. Txinako ateetan hil zen, Jainkoaren ospea eta gizakien salbamenduko pasionearen suak jana, hain zituen giristino guziera hedatu nahi.*

**SARTZEA** Atzerritarren artean zaitut goretsiko, Jauna ;  
*Sal 17, 50 ; 21, 23* Aipatuko dut zure izena neure haurrideen artean.

**OTOITZA** Jainko Jauna, San Frantses Xabierekoaren hitzaldiez,  
 herrialde asko zureganat erakarri dituzu :  
 emaiezu fededuneri fedearen alderako kar bera,  
 eta Eliza sainduari  
 mundu guzian haur berriak izaiteko bozkarioa.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Onar, Jauna,  
**OTOITZA** Frantses dohatsuaren besta egunean  
 dakarkizugun eskaintza :  
 egizu, hura gizakien salbatzeko egarriak  
 urrunerat eraman zuen bezala,  
 gu ere, Ebanjelioaren lekuko ta aitorle kartsu izanez,  
 gure haurrideekin batean zureganat lehia gaitzen.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA** Ilunpean erraiten dauzuetana, argitan errazue;  
*Mt 10, 27* eta beharrirat entzuten duzuen, etxe-gainetarik oihuka zazue.

**AZKEN OTOITZA** Jainko Jauna, sakramendu hunek,  
 pitz dezala gure baitan maitasunaren garra,  
 Frantses saindua arimen salbatzeko  
 sutan zaukan gar bera :  
 guk ere, zure deiari hobeki jarraikiz,

harekin batean ardiets dezagun  
langile oneri hitzeman saria.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

---

## Abendoaren

### 4 San JOANES Damasekoa, apez eta Eliz erakaslea

*Joanesek (675-749 urte irian) Damaseko arabiar administrazioan lan egiten zuen, fraide bizirako deia entzun zuelarik (710 urte irian). San Sabako monasterioan plantatu zen, Judako desertuan, eta handik ez zen ateratzen Jerusalemen predikatzeko baizik. Hor idatzi zuen ere Egiazko Fedearen Aurkezpena, eta kartsuki defenditu Irudi sainduen kultua.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895) edo Erakasleena (901-902)**

#### OTOITZA

Lagun gaitzala, Jauna,  
Damaseko Joanes sainduaren otoitzak :  
hain ederki erakutsi zuen egiazko fedea  
beti izan dadila gure indar eta argi.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

---

## Abendoaren

### 6 San NIKOLAS, apezpikua

*Nikolas Myreko apezpiku izan zen (oraingo Turkian) IV. mendeko lehen partean. VI. mendean, bere izena zuen eliza batean atxeman zitaken bere hilobia. Bainan 1087an, Bari (Italia) ko marinel batzuek haren erlikiak hartu zituzten eta beren hirirat eramana : orain hiri hortan beiratua da saindu horren kultua.*

**Meza : Artzainena (Apezpiku bat) (891-892)**

#### OTOITZA

Zure urrikalmenduari, Jauna, ahuspez dei egiten diogu :  
San Nikolasen bitartez zain gaitzazu herstura guzietan,  
salbamendurako bidea  
zabal zabalik aurki dezagun gure aitzinean.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Abendoaren**

Oroimena

**7 San ANBROXIO, apezpiku eta Eliz erakaslea**

*Sortzez Erromakoa, Anbroxio (340-397) Milaneko polizian ari zen jendek apezpikutzat hautatu zutelarik (374). Artzainetan handienetarik izan zen. Inperadorearen podereari buru egin zion azkarki, populuari fedezko gauzak erakatsi, Izkirio sainduak esplikatu eta eliza kantikak hedatuz.*

**SARTZEA***Ik. Si 15, 5*

Jaunak, batzarraren erdian hitz egiteko gaitasuna eman dio Anbroxio sainduari, adimendua eta zuhurtziaz argituz, alleluia

**OTOITZA**

**Jaingo Jauna, Anbroxio apezpiku saindua egin duzu fede katolikoaren erakasle eta beldurrik gabeko apostolu : sorraraz itzazu Elizan zure gogoko gizonak, gidari zuhur eta indartsu ukan ditzan.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jaingo eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

**Misterio sainduak ospatzen ditugularik, Jauna, Izpiritu Sainduak ixur dezala gutarat fedearen argia : horrek baitzuen beti argitu Anbroxio dohatsua zure aintza ezagutarazteko.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**KOMINIONEA***Ik. Sal 1, 2-3*

Jaunaren hitza atsegin zaiona eta hitz hori gau eta egun hausnartzen duena bere sasoinean fruitua dakar.

**AZKEN OTOITZA**

**Sakramendu huntan indar-berritu gaituzu, Jauna : egizu, San Anbroxioren erakaspenera ongi balia dakigun, zure bidetan azkar ibili-eta, betiko mahaian bozkariatzeke gai izan gaitezen.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

## Abendoaren

Bestaburua

8

MARIA BIRJINA DOHATSUA  
BEKATURIK GABE KONTZEBITUA

*Bere bizi haste hastetik, Maria bekatu guzietarik beiratua izan da bere Semearen heriotzetik zetorren grazia bati esker. Beraz Maria bekatu gabe kontzebitua izan zen Jainkoaren ama izanen zelakoan. Bere zeruratzean bezala, Maria bekatu gabe kontzebitua Elizaren aitzin irudia da, hau Jainkoak nahi izan baitu «kutsu eta zimurrik gabea, bainan saindu eta guziz garbia».*

## SARTZEA

*Is 61, 10*

Lorietan naiz, loriatuko Jauna baitan,  
Hartan arima bozkariotan zait jauziko :  
Salbamendua baitaut Jainkoak jauntzi eman,  
Zuzentasuna soin-gaineko.  
Iduri baitut espos berri urre dirdirez miresgarri.

«Aintza zeruetan» erraiten da

## OTOITZA

Jainko Jauna, Maria Birjinaren sortze garbiaz,  
behar bezalako egoitza prestatu diozu zure Semeari,  
eta Semearen heriotzetik heldu zen graziari esker  
ama bekatu guzietarik garbi begiratu :  
egizu, Maria Birjinaren otoitzari esker,  
gu ere zureganat garbi hel *gaitezen*.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

«Sinesten dut» erraiten da

## ESK. GAIN.

OTOITZA

Onar, Jauna,  
Maria Birjina dohatsuaren sortze garbia ospatzean  
eskaintzen dauzugun opari salbagarria :  
zure graziak aitzindurik,  
bekatu guzietarik garbi dela aitortzen dugunaz geroz,  
haren bitartez atera gaitzazu gu ere hoben guzietarik.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## PREFAZIOA

*Mariaren eta Elizaren misterioa*

Jauna zuekin.

℞. Eta zure izpirituarekin.

Gora bihotzak.

℞. Jaunari dauzkagu.

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

℞. Egoki da eta zuzen.

**B**ai, egoki da eta zuzen, on eta salbagarri,  
non-nahi eta beti zuri eskerrak emaita,  
Jauna, Aita guziz saildu,  
Jainko guziahaldun betierekoari.

Maria Birjina dohatsua  
zuk begiratu duzu sortzeko bekatuaren kutsutik,  
bai eta graziaz bete,  
zure Semearentzat ama paregabearen prestatzeko.

Hunen baitan erakusten zenuen Eliza,  
zimur eta zikinik gabeko emaztea,  
den dena ederrez jauntzia.

Birjina garbi hunek eman behar zaigun Salbatzailea,  
gure bekatuak kentzen dituen Bildots garbia.

Emazte guzien artean hautatu duzu,  
zure herriarentzat ararteko izan dadin,  
bai eta saildutasun betearen etsenplu miresgarri.

Horra zergatik, aingeru taldeekin batean  
goresten zaitugun, bozkariotan diogula :

*Saildu ...*

**Esker Onezko otoitzak I, II, eta III tan, parte bereziak badira**

## KOMINIOEA

Miresgarriak diozkate zutaz, Maria dohatsua,  
zuanik sortu baita zuzentasun-iguzkia,  
Jesu Kristo gure Jainkoa.



**AZKEN OTOITZA** Jainko gure Jauna,  
 Maria Birjinaren sortzea  
 sortzeko bekatutik garbi begiratu duzu  
 grazia berezi *baten* bidez :  
 hartu dugun sakramenduak senda ditzala gu baitan  
 bekatu beraren *zauriak*.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren *bitartez*.

**Benedizione nagusia erabil daiteke**

**BENEDIZIONE NAGUSIA**

Maria Birjina ama eginik, gizakia bihotz onez  
 salbatu duen Jainkoak eman diezazuela bere  
 benediziona.

**℞.** Amen.

Biziaren egilea eman dauzuenaren laguntza  
 sendi dezazuela non-nahi eta beti.

**℞.** Amen.

Eta Mariaren besta sailduki ospatzerat etorri zireztenek  
 eraman dezazuela zuekin goiko bozkarioaren  
 eta zeruko sariaren dohaina.

**℞.** Amen.

Benedika zaitzate Jainko guziahaldunak :  
 Aitak eta Semeak ✠ eta Izpiritu Sainduak.

**℞.** Amen.

**Abendoaren****9 San JOANES DIEGO CUAUHTLATOATZIN**

*Joanes Diego, Amerikako indio xume eta umila, bere emaztearekin betan bataiatua izan zen helduak zirelarik. Bere fede garbiak galdegiten zion bihotz on eta kartsutasunean bizi izan zen. 1531an, Jainkoaren Ama agertu zitzaion, Mexico hiriaren ondoan. Harek galdaturik eta haren ohoretan, eliza bat eraikiarazi zuen. Pobrezian egonez, etengabe beilariak han errezebitzen zituen, bera hil artio 1548an.*

**Meza : Sainduena (Saindu bat) (911)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
San Joanes Diegoren bidez adierazi zenuen  
Maria Birjina sainduak zure herriari dion maitasuna ;  
egizu, haren otoitzari esker,  
Guadalupeko gure Amaren aholkueri zintzo jarraikiz,  
zure nahia bete dezagun beti.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abendoaren****11 San DAMASO I.a, aita saindua**

*Damaso aita saindua (366-384) gehienik famatua da Erromako martirren kultura hedatzeko zuen karrarengatik. Hilerri zaharrak antolatuz, pertsekuzio handiaren Oroimenak izkirioz bilduz, otoitz molde horri bultzada handia eman zion. Bestalde, Damasok galdegini zuen Jeronimok Biblia latinerat itzuli.*

**Meza : Artzainena (Aita saindu) (889-890)**

**OTOITZA**

**Emaguzu, Jauna,  
beti martirren merezimenduak ospatzea,  
San Damaso aita sainduak  
hain ederki erakutsi zaigun bezala.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abendoaren****12                    Guadalupeko MARIA BIRJINA DOHATSUA**

*1531an, Maria Birjina agertu zen, Juan Diego, Mexikar indio xume bati, egiazko Jainkoaren ama bezala. Seinaletzat, arrosa batzu eman ziozkan, apezpikuari eraman ziozkanak. Hunek atxeman zuen orduan Mariaren irudia kapan inprimatua. Mariaren ohoretan egin zen basilikan, populu guziak deitzen ditu bere Semearen maitatzera, eta Jean-Paul II.-az geroztik, ebanjelizatzearen izarra bezala otoiztua da.*

**Meza : Maria Birjina dohatsuarena (864-871)**

**OTOITZA**

**Jainko Aita urrikaltsua,  
zure Semearen Ama sainduaren zaindaritzapean  
jarri zenuen miragarriki zure herria :  
egizu, Guadalupeko Amatzat harturik  
dei egiten dioten guziek  
fedez biziz bila dezaten herrien aurrerabidea,  
zuzentasunaren eta bakearen bidetik .  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abendoaren****Oroimena****13                    Santa LUXIA, birjina eta martirra**

*Luxia Syrakuseko birjina martir bat da, Diocletien (304) en pertsekuzioko urteetan hil zitakeena. Siziliarrek munduan barna hedatu dute argi izena duen sainduaren kultua.*

**Meza : Martirrena (Birjina martir bat) (887)  
edo Birjinena (Birjina batentzat) (904-905)**

**OTOITZA**

**Jainko Jauna,  
Luxia dohatsuak, guretzat otoitz eginez ospean,  
pitz dezala gure garra :  
Kanta dezagun egun haren zeruan sartzea,  
eta gero ikus betiereko bizia.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita,  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Abendoaren**

Oroimena

**14 San JOANES GURUTZEARENA, apez eta Eliz erakaslea**

*Joanes Gurutzearena (1542-1591), karmeldar fraide espagnolak hogeitabost urtetan ezagutu zuen Avilako Terexa, Karmelaren berritzailea. Berak ere nahi izan zuen Karmeldarren hastapenetako moldeetatik itzuli, bainan bere buruzagiek errefusatu zioten. Pertsekuzioak lagundu zuen izaitekotz Jainkoarekin bateratzen bizi mistikoaren gainetarat helduz, bere idatzi sutsuek erakusten duten bezala.*

**SARTZEA***Ga 6, 14*

Nere ospea bakar bakarrik hau dudala  
Nik : Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzea.  
Hartan mundua neretzat baita itzatua,  
Eta ni berdin munduarentzat bainaiz hila.

**OTOITZA**

Jainko Jauna, Joanes apez sainduari  
erakutsi zenion bere buruari uko egiten  
eta gurutzea ezin hobeki maitatzen :  
egizu, haren bideari jarraiki-eta,  
zure aintza betierean ikusterat hel gaitzen.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.****OTOITZA**

Jainko guziahalduna, ikus gure eskaintza,  
Joanes dohatsuaren besta huntan,  
eta egizu,  
Jaunaren Pasioneko misterioak ospatzen ditugunek,  
gure bizian ere bete ditzagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**KOMINIONEA***Mt 16, 24*

Norbaitek nahi badu ene ondolik etorri,  
uko egin bezo bere buruari, har beza bere gurutzea,  
eta jarraik bekit, dio Jaunak.

**AZKEN OTOITZA**

Jainko Jauna, Joanes saindua baitan  
miragarriki agertu duzu Gurutzeko misterioa :  
egizu, opari hunek indarturik,  
Kristori leialki jarraik gaitzen,  
eta Elizaren baitan lan egin dezagun  
denen salbamendurako.  
Jesu Kristo gute Jaunaren bitartez.

**Abendoaren****21 San PIARRES KANISIO, apez eta Eliz erakaslea**

*Piarres Kanisio (1521-1557) Nimeguen (Holanda) sortu zen, bainan Alemanian zuen Jesuita bizia hautatu eta bere urte gehienak pasatu. Erakasle, predikari, katekista, idazle, misionest, molde guzietan borrokatu zen Alemania ez zedin Luterranismozat pasatu. Bere azken urteak Friburgen (Suitza) pasatu zituen.*

**Meza : Artzainena (Artzain bat) (894-895) edo Erakasleena (901-902)**

**OTOITZA**

Jainko Jauna,  
 fede katolikoaren zaintzeko,  
 indarrez eta jakitatez bete duzu Piarres Kanisio saindua :  
 haren bitartez, emaiezu egiaren bila dabilzaneri  
 pozik zu aurkitzea,  
 eta fededun herriari  
 beti zure aitorle zintzo izaitea.  
 Zure Seme ...

**Abendoaren****23 San JOANES Kętykoa, apeza**

*Joanes Kętykoa (1390-1473), apez polonesa, filosofia eta teologia erakasle izan zen Krakoviako unibersitatean. Erakasleak distiratzen zuen bere jakitateaz, bainan are gehiago pobreentzat zuen amodioaz eta bere penitentzia gogoaz. Beilaren otoitz balioaz segur baitzen, Jerusalemara joan zen Jesusen hilobiaren gainean otoitz egitera, eta lau aldiz Erromara.*

**Meza : Artzainen (Artzain bat) (894-895)  
 edo Sainduen (Karitatezko obretan) (918)**

**OTOITZA**

Jainko guziahalduna, emaguzu,  
 Ketyko San Joanese bezala,  
 aitzinatu gaitezen sainduen jakintzan,  
 eta denekin urrikalkor izanez,  
 zukanikako barkamena ardiets dezagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**Abendoaren**

Besta

**26 Jondoni ESTEBE, lehen martirra**

*Estebe lehen martirra izan da. Hortakotz, bere lekukotasuna beti etsenplu berezia izan da Elizarentzat. Apostoluak esku lanetan lagundu behar zituzten Zazpien buru hautatua, bere parte hartu zuen ere Berri Onaren predikuan. Kristo piztuaren lekuko eta haren pasionearen imitatzailer, harri ukaldika hil zuten Jerusalem.*

**SARTZEA** Zeruko atea zabaldu zaizko Estebe sainduari,  
martirretan lehena, hartu du zeruko ospearen korona.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA** Erakutsaguzu, Jauna, etsaietzat otoitz egiten,  
egun ohoratzen dugun Estebe martir sainduak bezala :  
Emaguzu, haren etsenpluari jarraikiz,  
jakin dezagun etsaiak ere maitatzen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Onar Jauna,  
**OTOITZA** bihotz onez eskaintzen dauzkizugun eskaintzak  
Estebe dohatsua zure martirraren besta  
ospatzen dugun egun huntan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eguberriko prefazioa, n° 1-3 (406-408)

I, II, eta III Esker Onezko otoitzetan Eguberriko misterioaren  
aipamena egiteko parte bereziak badira

**KOMINIONEA** Hasi ziren Estebe harrikatzen ; hura otoitzean ari zen :  
*Eg 7, 59* «Jesus Jauna, har ezazu ene izpiritua».

**AZKEN OTOITZA** Eskerrak emaiten dauzkizugu, Jauna,  
zure ongi nasaiengatik :  
zure Semearen sortzeaz salbatzen gaituzu,  
eta Estebe martir sainduaren bestaz bozkarioz betetzen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (640, 2)

**Abendoaren**

Besta

**27 Jondoni JOANI, apostolu eta ebanjelista**

*Joani apostolua Kristorenganik hurbil bizi izan da : Jordan ibaiaren ondoan ezagutu zuen. Bere itxuraldatzearen eta bere agoniaren lekuko izan zen, Jesus hiltzen ikusi zuen eta hilobian ezarri. Bazko goizean, lehena izan zen haren piztean sinetsi zuena. Gauza horiek guzietaz lekukotasun argitsu eta mamitsua utzi dauku bere idazkietan.*

**SARTZEA**

Hau da Joani,  
azken afarian Jesusen bularrerat burua pausatu zuena ;  
apostolu dohatsua,  
zeruko segetuak agertuak izan baitzaizkio ;  
harek ditu biziaren hitzak mundu zabalean hedatu.

**Edo**

*Ik. Si 15, 5*

Elizan bildu biltzarrean  
Jaunak du gora mintzarazi.  
Bai zuhurtzia, bai jakitate dio eman  
Eta ospez du berak jauntzi.

«Aintza zeruetan» erraiten da

**OTOITZA**

**Jainko Jauna, Jondoni Joani apostoluaren bidez  
agertu daukuzu zure Hitzaren misterioa :  
egizu adi eta maita ditzagun  
harek erakutsi dauzkigun misterioak.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**ESK. GAIN.  
OTOITZA**

**Benedika, Jauna, guk ekarri eskaintza :  
eta egizu mahai huntan aurki ditzagun  
betiereko Hitzaren misterioak,  
Jondoni Joaniri ere  
iturri beretik eman baitzinion haien berri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Eguberriko prefazioa, n° 1-3 (406-408)**

**I, II, eta III Esker Onezko otoitzetan Eguberriko misterioaren  
aipamena egiteko parte bereziak badira**

**KOMINIONEA** Hitza haragi egin da, eta gure artean egin du bere egoitza,  
*Jn 1, 14.16* eta haren betearen betetik denek ukan dugu.

**AZKEN OTOITZA** Jainko guziahalduna, Jondoni Joanik eman dauku  
 gizon egin den zure Hitzaren berri :  
 orain ospatu dugun sakramenduari esker, egizu, otoi,  
 beti gure bihotzetan bizi dadin zure Hitza.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Benedizione nagusia erabil daiteke (640, 2)**

## Abendoaren

Besta

### 28 HAUR HOBENGABE SAINDUAK, martirrak

*VI. mendez geroztik segurik, Elizak Jaunaren sortzeko egunetan ohoratzen ditu Haur Hobengabe Sainduak. Herodesek hil zituen haur inoxente horiek salbatuen abiadurak dira. Hoiien hiltzearen bidez, gurutzeta krexaren ondorat hurbildu da.*

**SARTZEA** Haur hobengabeak, bularrekoak hil zituzten :  
 Bildots hobengabeari jarraikitzen zaizko,  
 beti hau erranez : Aintza zuri, Jauna.

**«Aintza zeruetan» erraiten da**

**OTOITZA** Jainko Jauna, egun huntan,  
 haur hobengabe martirrek zure aintza aitortu zuten,  
 ez hitzez, bainan heriotzez :  
 egizu ahoz aitortzen dugun fedea  
 bizitze guziaz ager dezagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita  
 gizaldi eta gizaldi guzietan.

**ESK. GAIN.** Onar otoi Jauna, zure herriaren eskaintzak,  
**OTOITZA** eta misterio hunen bidez garbi gaitzazu,  
 gu, zure zerbitzari leialak,  
 zu ezagutzen ez zaituztenak ere  
 horren bidez salbatzen dituzunaz geroz.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.



Eguberriko prefazioa, n° 1-3 (406-408)

I, II, eta III Esker Onezko otoitzetan Eguberriko misterioaren aipamena egiteko parte bereziak badira

**KOMINIONEA** Hauk erosiak izan dira gizonen artetik, lehen uzta  
*Ik. Ap 14, 4* Jainkoarentzat eta Bildotsarentzat.  
Bildotsari jarraikitzen zaizko norat nahi doan.

**AZKEN OTOITZA** Jauna, zure Semea ahoz aitor etzezaketen Haurreri,  
haren sortzearen graziaz zeruko korona eman diezu :  
haien besta egun huntan,  
janari saindu hau hartu duguneri,  
emaguzu nasaiki zure salbamendua.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedizione nagusia erabil daiteke (640, 2)

## Abendoaren

### 29 San TOMAS BECKET, apezpiku eta martirra

*Tomas Becket (1118-1170) Ingalaterrako kantziler zen Henri II Plantagenetek Kantorberiko arkapezpiku egin zuelarik. Azkarki defenditu zituen orduan erregeak bere peko nahi zuen Elizaren dretxoak. Lehenik Frantziarat desterratua izan zen, eta etxerat itzuli zenean, erregearen hurbileko batzuek hil zuten bere katedralean.*

**Meza : Martirren (Martir bat) (884)**  
**edo Artzainen (Apezpiku bat) (891-892)**

**OTOITZA** Jainko Jauna,  
zuk eman diozu bihotz Tomas Becket sainduari  
bere bizia zuzentasunarengatik emaitako :  
egizu, haren bitartez,  
gure bizia Kristorengatik gal dezagun mundu huntan,  
egun batez aurkitzeko zeruan.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.

Eguberriko prefazioa, n° 1-3 (406-408)

I, II, eta III Esker Onezko otoitzetan Eguberriko misterioaren aipamena egiteko parte bereziak badira

**Abendoaren****31 San SILVESTRE I.a, aita saindua**

*Silvestre, aita saindu hautatua Konstantinen bakearen biharamunean, Erromako Elizaren gidari izan zen hogeitabat urtez (314-335). Ikusi zuen girstino fedea zoizietatearen xoko guzietan sartzen, bainan jasan behar izan zuen ere krisia bat, Alexandriko Arius apezak sortu zuena Kristoren jainkotasuna ukatuz. Bere ordainak igorri zituen Nizeko lehen kontzilio ekumenikorat (325).*

**Meza : Artzainena (Aita saindu) (889-890)**

**OTOITZA**

**Zato, Jauna, zure herriaren lagun,  
eta Silvestre aita-sainduaren otoitzen bitartez,  
emaiozu indar, gaurko bizi huntan zuk gidaturik,  
egun batez betierekorat hel dadin.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita  
gizaldi eta gizaldi guzietan.**

**Eguberriko prefazioa, n° 1-3 (406-408)**

**I, II, eta III Esker Onezko otoitzetan Eguberriko misterioaren aipamena egiteko parte bereziak badira**